goiena
Zu hemen zaude.
2020-05-22 EGUBAKOITZA / 861. ZENBAKIA / 20. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

KORONABIRUSA

MASKARAK, DERRIGORREZKO

Musukoak erabiltzea derrigortzen duen araua indarrean dago eta jendea ohikotasunez erabiltzen hasi da, leku itxietan ez ezik, baita kalean ere; baina nolakoak eta nola erabili? / 4

XABIER URZELAI

"Bertan behera geratu diren ekitaldi batzuk udan egin gura ditugu"

Agintaldiaren eta egungo egoeraren errepasoa egin du Oñatiko alkateak, eta aurrera begira jarri da / 34

Izaro Elorza, Oñatiko alkatea. E.A.L.

SINADURAK

GOTZON IPARRAGIRRE / 10
PEDRO GARITANO / 28
ENEKO FERNANDEZ / 16
GARAZI GARAYO / 36
PALOMA MARTINEZ / 22
AINTZANE OIARBIDE / 48

Kepa Errasti aktoreari elkarrizketa

Ondarearen eta historiaren gordeleku: museoak

Oñatiko Zuazola-Larraña Lanbide Heziketan, astelehenera begira segurtasun neurriak bermatzeko gelak atontzen. M.S.

Bailarako ikasle gutxi batzuk astelehenean itzuliko dira ikasgelara

Bailarako ikastetxeetan zalantzak dira nagusi. Lanbide Heziketako ikasle batzuk astelehenean itzuliko dira klasera. Taberna barruak ere zabalduko dituzte; mugekin

Maialen Santos DEBAGOIENA

Dena ondo bidean, astelehenean pasako da EAE konfinamendua arintzeko planaren baitako bigarren fasera. Espainiako Gobernuak fase aldaketarako behin betiko baldintzak ezagutzera eman bitartean, Eusko Jaurlaritzak hainbat proposamen helarazi dizkio asteon Espainiako Osasun Ministerioari. Uste dute Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak bigarren fasera igarotzeko "baldintza guztiak" betetzen dituztela; eta, azaldu dute EAEko egoera epidemiologikoa eta asistentziala "ona" dela eta zaintza eta kontrol "neurri guztiak" hartzen ari direla.

Bestalde, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eman du Gobernu zentralari egindako proposamenen berri. Besteak beste, gune itxi guztietan eta bi metroko distantzia gorde ezin den lekuetan maskarak erabiltzea gomendatzeko eskatu dute; bestalde, kultura jarduerak ekainaren 1etik aurrera programatzen hastea; eta, horretaz gain, taberna barruek eta merkataritza-zentroek %50eko edukiera izan dezatela. Hori gutxi balitz, turismo aktiboa eta natura-turismoa eta azoka-esparruak irekitzeko proposamena egin dute; etxebizitza pribatutan eta espazio pribatuetan bilerak egin ahal izatea; eta hezkuntza maila jakin batzuk maiatzaren 25etik aurrera hezkuntza-jarduera presentzialera itzultzea. Adinekoen egoitzei dagokienez, egoiliarrek bisitak jaso ditzaten uzteko eskatu diote Espainiari.

Proposamen hauek guztiak baldintza zehatz batzuk beteta soilik eraman ahalko lirateke aurrera, eta, betiere, Espainiako Gobernuak onartuko balitu; izan ere, Eusko Jaurlaritzatik azpimarratu dute momentuz "proposamenak besterik" ez dela.

IKASTETXEETARA BUELTA

IKASLE GUTXI BATZUK ASTELEHENETIK AURRERA JARDUN PRESENTZIALEAN

Ikastetxeetara era mailakatuan itzultzeko Jaurlaritzaren planean zehazten zen DBH-4ko, batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak maiatzaren 18an hasiko zirela jardun presentzialera itzultzen. Joan den astean, ordea, atzera egin eta ikasleak jardun presentzialera itzultzeko erabakia ikastetxeen esku utzi zuen Jaurlaritzak. Edozelan ere, azaldu zuten goizenez jota maiatzaren 25ean itzuliko zirela.

Bailarako ikastetxeetan galdetuta, Bergarako Aranzadi Ikastolan azaldu dute erabakia euren esku dagoen artean ikasleak ez direla aurrez aurreko eskoletara itzuliko, "gutxienez ekainaren 4ra arte", eta Ipintzan oraindik ez dute "erabakirik" hartu; baina "asmoa" da batxilergoko 2. mailakoek ikasturtea presentzialki amaitzea, eta ohiko eta ezohiko azterketak ere hala egitea. Mariaren Lagundian, bestalde, ez dira jardun presentzialetara itzuliko, baina DBHko 4. mailakoek azterketak "presentzialki" egingo dituzte. Eskoriatzako Kurtzebarritik adierazi dute oraindik ez dutela erabakirik hartu. Halere, badute "barne-planteamendu" bat, eta ikuskariaren "erantzunaren zain" daudela azaldu diote GOIENAri. Oñatiko Elkar Hezi ikastetxetik, ostera, aitortu dute oraindik ez dutela erabakirik hartu. Horretaz gain, Txantxiku Ikastolako arduradunek aditzera eman dute DBH-4tik 2. batxilergora bitarteko ikasleek ikasturtea "etxetik" amaituko dutela. Halere, selektibitatearen prestaketarako saioak antolatuko dituzte, eta berdina egingo dute Zuazola-Larraña Institutuan, eta baita Arizmendi Ikastolan ere. Arrasateko BHI Institutura presentzialki itzuliko diren ikasleek ere selektibitatea prestatzea izango dute helburu; eta ekainaren 2an itzuliko dira, zehazki. Gainera, bailarako ikastetxe gehienek azaldu dute beharrezko laguntza "ikasleen esku" jartzea helburu, ikasturtea amaitzeko baliabiderik ez duten edota errefortzua behar duten ikasleei ere eskainiko dizkietela klase presentzialak.

Lanbide Heziketari dagokionez, Oñatiko Zuazola-Larrañan astelehenean itzuliko dira klasera lehenengo eta bigarren lauhilekoetan irakasgai praktikoren bat gainditu gabe duten ikasleak, horiek gainditzeko "aukera" izan dezaten. Oñati Gestio Heziketan, bestalde, ikasturtea "online" bukatuko dute kasu guztietan, "ikasleek materia praktikorik ez dutelako". Arizmendiren kasuan, hauek arituko dira presentzialki: berreskurapenak eta

Elkarretaratzeak egiteari ekin diote

Krisi egoeraren eraginez elkarretaratzerik ezin izan dute egin azken asteetan. Konfinamendua arintzeko planaren baitan, baina, hasiak dira berriz ere elkartzen, "segurtasun neurri guztiak hartuta". Hain zuzen, Etxeratek eta Gure-Artera Sarek antolatuta, presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea egin zuten Bergaran. Hala, "plaza osoa hartuta" eta elkarren arteko "distantziak errespetatuta" bildu ziren plazan, euskal presoek bizi dituzten sei egoera salatzeko: urrunketa, zigorren batuketa, emakumea eta kartzela, preso adinduak, haur motxiladunak eta zigor luzeak.

Zapatuan, bestalde, Elgetako plazan elkarretaratze isila egin zuten, Zaldibarko zabortegiko ezbeharra gertatu zenetik 100 egun igaro zirela aitzakia hartuta. Herriko plazan sakabanatuta eta distantziak mantenduz, Zaldibarko zabortegian zer gertatu den jakiteko, zaborpean jarraitzen duten Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran ateratzeko eta instituzioek gertaeraren erantzukizuna argitzeko dei egin zuten.

Debagoieneko Ikasle Abertzaleek eta Gazte Koordinadora Sozialistak antolatuta, gose eta egarri greba egiten diharduen Patxi Ruiz presoaren aldeko elkarretaratzea egin zuten astelehenean Bergarako plazan. Arrasaten ere bildu ziren, Amnistia mugimenduak deituta. COVID-19 gaitzak espetxeetan izandako "ondorioak" ere salatu gura izan zituzten.

Azkenik, astelehenean itzuli ziren Gipuzkoako Pentsiodunen Mugimenduko kideak kaleetara. Euren "haserrea" erakusteko asmoz, pandemiak adineko pertsona eta pentsiodunengan eragin dituen ondorioak salatu zituzten eta, era berean, gogorarazi nahi izan zuten Gipuzkoako adinekoen etxeetan apiril amaierara arte 160 pertsona hil direla, horietako gehienak "bakardade osoan" eta "hurbilekoen azken agurraren kontsolamendurik gabe."

ohiko eta ezohiko azterketak egin behar dituzten ikasleak, errefortzua behar dutenak, selektibitatera aurkeztuko direnak eta jarduera praktikoak egingo dituztenak. Horretaz gain, Mariaren Lagundiko Lanbide Heziketan "azken azterketak" egitera itzuliko dira ikasgelara; eta Aretxabaleta Lanbide Eskolan, astelehenean itzuliko dira ikasgeletara bigarren kurtsoko ikasleak. Horretaz gain, Bergarako Miguel Altunan, lehenengo mailakoak izango dira ikasturtea jardun presentzialean amaituko dutenak; soilik modulu praktikoetan errefortzua behar dutenak itzuliko dira klasera, halere. Azkenik, Goi Eskola Politeknikotik azaldu dute "protokoloa" prest dutela astelehenean eskoletara itzultzeko, eta Gobernuaren "oniritziaren" zain daudela oraindik. Zehaztu dute praktika gehigarriak, azterketak eta erronka edo proiektuen aurkezpenak egingo dituztela.

"Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren inprobisazioaren aurrean", Steilas, LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek ikasturte amaiera "seguru, adostu eta kalitatezko" baterako proposamena helarazi dute ohar bateratu baten bitartez. Oharrean, besteak beste, Hezkuntza Sailari eskatzen diote osasun protokolo eta gainerako dokumentazioan jasotako prozedurak zein edukiek dituzten "gabeziak" sindikatuekin osatu ditzatela, Hezkuntza Sailak "ikastetxe guztientzat" irizpide bera finkatu dezala aurrez aurreko ikasketei ekiteko; eta azkenik, aurrez aurreko ikasketara itzul daitezela "soilik" selektibitatea prestatzeko beharra duten ikasleak edota ondorio kaltegarriak "modu gehigarrian" jasan dituztenak.

Lagun talde bat terrazan eserita, zerbitzaria edariak eramaten dabilela. M.S.

TERRAZAK ETA TABERNAK

DATORREN ASTEAN TABERNA BARRUAK ERE ZABALDUKO DITUZTE ZENBAITEK

Espainiako Gobernuak konfinamendu-arintze planaren barruan azaldu zuen bigarren fasean baimenduko zuela –terrazez gain– jatetxeen irekiera, mugekin; bakarrik mahaiak erabiltzeko –barrarik ez– eta edukieraren heren bat beteta. Eusko Jaurlaritzak Gobernu zentralari asteon egindako proposamenean eskatu dute, halere, taberna barruko edukiera %50era igotzea.

Baldintza zehatzak zeintzuk izango diren jakiteko zain, bailarako zenbait tabernarik irekiko dituzte negozioak datorren astean. Bergarako Ignacio Etxabarrik, esaterako, Etxagi eta Euxebio tabernak zabalduko ditu. GOIENAri azaldu dionez, segurtasun neurriak hartuta eskainiko du zerbitzua, eta barruko mahai bakoitzean bost lagun inguru egon ahalko direla dio. Halere, Etxabarrik aitortu du "aurrera begira" gertatu daitekeenak kezkatzen duela bera. Oñatin, bestalde, Eltzia taberna itxita egon da orain artean; eta martitzenean irekiko dute, "astelehena asteko atseden eguna izaten da eta". Hala, terraza eta taberna barruan egon ahalko dira bezeroak, eta asteburuetan errazio eta pintxoak ere eskainiko dituzte. Arrasateko Txoko tabernak ere asteazkenean zabalduko ditu ateak, bertako Asier Altuna tabernariak azaldu duenez: "Orain artean, itxita eduki dugu, eta datorren astean, jantokia eta terraza egongo dira erabilgarri".

KORONABIRUSA DEBAGOIENEAN

AZKEN EGUNETAN EZ DA PCR BIDEZKO KASU POSITIBORIK ATZEMAN BAILARAN

Jaurlaritzak emandako datuen arabera, azken hiru egunetan ez da kasu positibo berririk baieztatu PCR bidez bailaran. Azken 24 orduetan 227 lagun sendatu dira EAEn, eta koronabirusa izan dutenen %88,6 sendatu da dagoeneko. 298k oraindik gaixorik jarraitzen dute –%3,7–. Bestetik, pandemia hasi zenetik guztira 1.483 lagun hil dira; gaitza izan dutenen %7,7.

Adinekoen egoitzei dagokienez, Foru Aldundiak eguaztenera arte emandako datuen arabera, Eskoriatzako Jose Aranan dagoeneko ez dago koronabirusak kutsatutako gaixorik, positibo emandako biak sendatu egin dira eta. Aretxabaletako GSR Debagoienan 24 positibo daude, zortzi lagun sendatu dira eta sei hil. Arrasateko Iturbiden, azkenik, 54 egoiliar sendatu dira eta 26 hil. Horretaz gain, bertako zuzendari Olatz Etxabek azaldu du dagoeneko ez dagoela kutsatutako gaixorik; Aldundiak emandako datuetan, ostera, kutsatu bakarra dagoela jasotzen da. Halere, Aldunditik azaldu dute datuak "eguneratzeko lanetan" dabiltzala.

HAUTESKUNDEAK

UZTAILAREN 12AN EGINGO DITUZTE LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

Pandemia egoera "hobera" egiten ari dela-eta hauteskundeak uztailaren 12an egiteko erabakia hartu du Iñigo Urkullu lehendakariak, Gobernu Kontseiluaren ezohiko bileraren ostean iragarri moduan. Botoa emateko herritarrek "osasun berme guztiak" izango dituztela azaldu du, eta uztaila horretarako "data aproposena" dela, "osasun publikoaren txostenak dioenez". Bestetik, abstentzioaren inguruko kezkarik ez duela azaldu du: "Hiritar orok jakin behar du berme guztiak izango dituela; eta abstentzioarena baino gehiago, agian, kontrako efektua izango du horrek". Horretaz gain, oraindik denbora falta dela azaldu du Urkulluk, eta, beraz, hauteskunde-eguna iritsi orduko egoera "hobea" izango delakoan dago: "Oraindik ia bi hilabete falta dira, eta, aurreikuspenak betetzen badira, 4. fasea bukatuta egongo da ordurako".

Oposizioa hasieratik Urkulluren erabakiaren kontra agertu da. Orain arte egin diren Alderdien Mahaietan, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek zorrotz kritikatu dute lehendakariaren asmoa, eta "arduragabekeriaz jokatzea" eta "gainerako alderdien iritzia kontuan ez hartzea" leporatu izan diote. EH Bilduk uste du hauteskundeak egitearen arrazoia "interes elektoral eta alderdikoiak" babestean datzala. Bestetik, oposizioak bestelako proposamenak egin izan dituela ere esan du, baina Urkulluk "erabakia lehendik hartuta" zuela uste dute EH Bilduko kideek. Bukatzeko, hauteskundeen aurreko egoeran ere erabakiak eragina izango duela pentsatzen dute: "Zailtasun handiak izango dira hauteskunde-kanpainan aukera-berdintasuna bermatzeko, eta zailtasunak izango dira herritarrek beren botoaren zentzua hausnartzeko".

Maskarak, derrigorrezko babes neurri atzo ezkero: nola, noiz eta zeintzuk?

Atzo sartu zen indarrean maskara erabiltzea derrigortzen duen araua. 6 urtetik gorako herritarrek maskarak jantzita eraman beharko dituzte gune itxietan; eta bi metroko distantzia mantendu ezin daitekeen aire libreko espazioetan ere bai

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Maiatzaren 4a ezkero, maskarak derrigorrez erabili behar ziren garraio publikoan –autobusean, metroan, hegazkinean...–, baina, asteon, erabilera hori zabaltzea erabaki dute. Astelehen iluntzean hartu zuen erabakia Espainiako Gobernuak, autonomia erkidegoetako gobernuekin batera egindako bileran. Eguaztenean, hilak 20, argitaratu zuten aldizkari ofizialean maskarak erabiltzeko derrigortasuna, eta atzo, hilak 21, sartu zen indarrean agindua. Bertan zehazten denez, atzo ezkero, 6 urtetik gorako herritarrek erabilera publikoko edozein gune itxitan jantzita izan behar dute maskara, baita kalean eta aire libreko espazioetan ere, bi metroko distantzia mantendu ezin bada.

Alarma egoera ekainaren 7ra arte luzatzea onartu zuen eguaztenean Espainiako Kongresuak, eta, hain zuzen, maskaren erabilera ordura arte behartuko dute. Sudurra eta ahoa estaltzen duten maskarak izan behar dute –higienikoak eta kirurgikoak hobesten dira– eta pertsona bakoitzak maskara mota zehatz bat erabiltzeko gomendioak eman ditu Espainiako Gobernuak.

Derrigorrezkoak, norentzat?

6 urtetik gorako herritarrentzat da derrigorrezkoa maskararen erabilera, eta, era berean, gomendagarria da 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat, nahiz eta azken horientzat derrigorrezkoa ez izan.

Salbuespenei dagokienez, maskararen erabilerak larriagotu ditzakeen arnas zailtasunak dituzten pertsonak ez daude erabiltzera behartuak, ezta ere desgaitasun edo mendekotasun egoerak eragindako jokabide nahasmenduak maskararen erabilera bideraezina egiten duten pertsonen kasuan. Maskara erabiltzearekin bateraezinak diren jardueretan ere ez da derrigorreko izango. Maskararen erabilera behar bezala justifikatutako osasun-arrazoiengatik kontraindikatuta badago ere, ez dago zertan erabili.

ETXEAN EGINDAKO MASKAREI DAGOKIENEZ, EZ DUTE ERAGINKORTASUNA GUZTIZ ZIURTATZEN

Maskara motak

	Norberaren burua babesteko	Besteak babesteko
HIGIENE-MASKARA		
UNE espezifikazioduna	+	✓
UNE espezifikazio barik	Etiketa kontsultatu behar da, bertan zehaztuko da babes maila	
MASKARA KIRURGIKOA		
I mota	+	✓
II mota	+	✓
IIR mota	+	✓
PROFESIONALENDAKO MASKARA Maskara mota hau soilik erabili behar dute osasun-profesionalek, birusarekin kontaktuan dauden pertsonek edo koronabirusarekin lotutako arrisku-praktikak dituztenek.		
FFP1 exhalazio-balbula barik	✓	✓
FFP2 exhalazio-balbula barik	✓	✓
FFP3 exhalazio-balbula barik	✓	✓
FFP2 exhalazio-balbularekin	✓	✗
FFP3 exhalazio-balbularekin	✓	✗

ITURRIA: KONTSUMO MINISTERIOA

Non erabili behar da?

Orain arte bezala, garraio publikoan derrigorrezkoa izango da maskararen erabilera. Agindu berriarekin, bide publikoan ere erabili behar da, bi metroko distantzia mantentzea ezinezkoa den kasuetan, baita erabilera publikoa duten edo publikoarentzat irekita dauden espazio itxietan ere.

Aire zabaleko espazioei dagokienez, bi metroko distantzia mantentzea ezinezkoa den kasu guztietan da derrigorrezkoa maskararen erabilera, baita langileen segurtasuna bermatzeko asmoz hainbat lantokitan –ez dute zehaztu zer lanlekutan–.

Zer mota daude?

Hiru multzo nagusitan sailka daitezke maskara motak: higiene-maskarak, maskara kirurgikoak eta profesionalendako maskarak. Herritarrendako, higiene-maskarak edo maskara kirurgikoak lehenesten ditu Espainiako Gobernuak.

Higiene-maskarak

Higiene-maskarak, pertsona osasuntsuendako daude gomendatuta, eta urruntze fisikoaren eta higiene neurrien osagarri direla gogorarazi dute. Gehienez, lau orduz erabiltzea gomendatzen dute, eta bi mota daude: berrerabilgarria eta ez berrerabilgarria. Berrerabilgarriak badira, fabrikatzaileak zehaztuko du zenbat aldiz garbitu daitekeen maskara bakoitza. Besteak babesteko balio du, eta, nork bere burua babesteko kasuan, oztopo-elementu bat direla gogorarazi dute, betiere, gainerako urruntze fisikoko neurriekin, eskuen higienearekin batera erabiltzen badira. Edozein establezimendutan erosi ahal dira eta haur zein helduentzako neurriak daude.

Maskara kirurgikoak

Maskara kirurgikoak, sintomatiko edo sintomarik gabeko pertsona positiboek eraman behar dituzten maskarak dira. Osasun langileek eta paziente gaixo zein susmagarriek agente infekziosoak transmititzea saihesten dute.

EZ DA GOMENDATZEN 12 URTETIK BEHERAKOEK HELDUEN MASKARAK ERABILTZEA

Gehienez, lau orduz erabiltzea gomendatzen da, eta, denbora hori igaro baino lehen busti edo kaltetu egiten bada, aldatu egin behar da. Maskara kirurgikoen kasuan ere hiru mota daude; I mota, eraginkortasun gutxiagoko iragazketa dutenak; eta II mota, iragazketa eraginkorragokoak. IIR motakoak ere badira. Denek babesten dute bestea, eta, norberaren kasuan, neurriekin erabili behar dira.

Edozein establezimendutan eta paketatuta saldu behar dira; banaka farmaziek soilik saldu ahal dituzte; ontziratuan garrantzitsua da CE marka izatea.

Profesionalendako maskarak

Profesionalek soilik erabili behar dituzte maskara hauek. Birusarekin kontaktuan ez daudenek edo birusarekin lotutako arriskujarduerarik ez dutenek ez dute horrelako maskararik behar. Norbera Babesteko Ekipamendua (NBE) da; profesionalek erabiltzeko gomendatzen da; arrisku potentzial baten eta erabiltzailearen arteko hesi bat sortzen du. Talde zaurgarrientzat ere gomendagarriak izan daitezke; betiere, medikuaren gomendioz bada. Gehienez, lau orduz erabiltzea gomendatzen da, eta berrerabilgarriak eta ez berrerabilgarriak daude. Balbularik gabeko FFP 1, FFP 2 eta FFP3 maskarek norbera eta beste pertsonak babesten dituzte. Balbuladun FFP2 eta FFP3 maskarek erabiltzailea babesten dute soilik.

Ohiko zalantzak

Ez da komeni maskarari buelta ematea. Horrek ez du maskaren iraunkortasuna handituko, ezta eraginkortasuna ere. Era berean, ez da segurua mikrouhin-labean garbitzea. Ez dago metodo horren bidezko higienizazioaren eraginkortasunari buruzko datu eztabaidaezinik.

Haurrak eta etxeko maskarak

Etxean egindako maskaren kasuan, Espainiako Gobernuak ez du eraginkortasuna bermatzen, egiaztapenen edo saiakuntzen kontrola pasatu ez badute, behintzat. Haurren kasuan, ez da gomendatzen 12 urtetik beherakoek helduentzako neurria duten maskara higienikoak erabiltzea. Hala ere, COVID-19aren ondoriozko positiboek sintoma edo asintomatiko positiboak badituzte, helduentzako neurria duten maskara kirurgikoak erabiltzea lehenesten da.

Maskara nola ipini

OHARRA: ESPAINIAKO GOBERNUAK EMANDAKO GOMENDIOAK DIRA ALBISTE HONETAN JASOTAKOAK.

Garbitzeko neurriak

Berrerabili ezin diren maskarak ezin dira garbitu. Fabrikatzaileak maskara garbitzeko modukoa dela adierazten ez badu –eta, beraz, berrerabiltzeko–, ez garbitzeko eskatu dute. Berrerabilgarrien kasuan, fabrikatzaile bakoitzak garbitzeko jarraibideak azaltzen ditu. Espainiako Osasun Ministerioak hainbat aukera eskaintzen ditu: maskarak garbitzea eta desinfektatzea detergente arruntarekin eta ura 60-90 gradu bitarteko tenperaturan, lixiba diluzio batean ur epelarekin 30 minutuz. Ondoren, garbitu urarekin eta xaboiarekin, eta ondo kendu lixiba guztia; ostean, lehortzen utzi. Bestetik, berrerabili ezin daitezkeenak edukiontzi grisera bota behar dira, eta ez beste inora. Izan ere, berrerabilgarrien edukiontzietan hainbat osasun maskarila eta eskularru atzeman dituela ohartarazi du Mankomunitateak.

Eskoriatzako udalekuetako haur eta begiraleak, iaz, plazan. GOIENA

Orain arteko udalekuak ez dira posible izango aurten; baina, zer egin?

Zalantza handiak eragiten ari da udalekuen gaia, eta, ohiko udalekuak egitea posible izango ez dela ikusita, alternatiba ezberdinak bilatzen ari dira antolatzaileak; Eudelek, esaterako, udalekuak bertan behera uzteko gomendioa egin die EAEko udal guztiei

Eneko Azurmendi ARRASATE

Egingo al dituzte aurtengo udalekuak? Egiten badituzte, ze baldintzatan? Ze prebentzio neurri hartu beharko dituzte osasuna eta segurtasuna bermatzeko? Erantzun asko airean daude oraindik, nahiz eta batzuek dagoeneko hartu duten erabakia.

Debagoieneko herrietako udaleku irekiei dagokienez, Antzuolan oraindik ez dute erabakirik hartu. Badaezpada izen-ematea eginda daukaten arren, Udalak eta Idolaz taldeak maiatzaren 27an egingo dute udalekuekin zer egin erabakitzeko bilera, online, eta herritarrek ere parte hartu ahal izango dute.

Aramaion eta Aretxabaletan, bestalde, alternatiba posibleak aztertzen ari dira, arlo ezberdinak lantzen, baina, printzipioz, ez dute horren gaineko erabakirik hartu.

Arrasaten ere ildo beretik doaz gauzak. Txatxilipurdiko kideak elkartzen ari dira egunotan, baina, oraingoz, ez dute ezer erabaki. Halere, adierazi dutenez, datorren astean hartuko dute erabakia, eta elkartetik emango dute horren berri.

Bergaran, udaleku irekietan eta kirol campusean izena emateko aukera zabalik dago maiatzaren 24ra arte –domeka–. Baina oraindik ez dute ezer erabaki. Izena eman duten familiei ekainaren 5erako jakinaraziko die Udalak hartutako erabakia. "Ikusiko dugu datorren astean

UDAL GEHIENEK DATOZEN EGUNETAN ERABAKIKO DUTE ZER EGINGO DUTEN AURTEN UDALEKUEKIN

goragoko administrazioek zerbait erabakitzen duten, bigarren fasera pasatzearekin ere lotuta egongo da. Aukera ezberdinak aztertzen ari gara, baina, momentuz, ez daukagu ezer finkorik mahai gainean", adierazi du Nagore Narbaizak, Bergarako Udaleko Gazteria, Hezkuntza eta Partaidetza teknikariak.

Hori bai, Jardunek antolatzen dituen udaleku itxiak bertan behera geratu dira dagoeneko.

Berme guztiekin bakarrik

Elgetan garbi daukate ez dituztela orain arte moduan egingo. "Normalean, 90 ume inguru elkartzen dira, eta hori baztertuta daukagu dagoeneko. Beste aukera batzuk aztertzen ari gara, baina garbi daukagu segurtasuna eta osasuna bermatu beharra daukagula guztiaren gainetik", adierazi du Iraitz Lazkano alkateak. "Era berean, espero dugu Osakidetzatik edo Eusko Jaurlaritzatik irizpide formal bat etorriko dela udalekuekin zer egin eta nola jokatu adieraziko duena. Herri txikiak ezin gara erabaki horiek hartzen ibili irizpide barik, ardura handia da", azpimarratu du.

Eskoriatzan, *B* plan bat diseinatu dute, badaezpada, hamar laguneko taldeetan, ordu gutxiagorekin, eta abar. Halere, zalantza handiak dituzte oraindik, eta gaur, egubakoitza, dira erabakitzekoak izen-ematea zabaldu edo ez, bilera batean.

Leintz Gatzagan ere, elkartzen ari diren arren, oraindik apur bat gehiago itxoitea erabaki dute, eta, egoeraren eboluzioaren arabera, erabakia hartuko dute aurrerago.

Zaintza zerbitzurako deialdia

Oñatiko Udalak hartu du erabakia. Ez dute egingo, orain arte moduan ez, behintzat, ez udaleku irekirik, ez arte udalekurik ezta kiroleko uda kanpainarik. Hala ere, Udala ari da horren alternatiba lantzen. "Uste dugu kontziliazioagatik zein gurasoek edo umeek izan dezaketen beharrengatik, arreta edo zaintza moduko zerbitzu bat eman behar dugula, eta hori ari gara lantzen; egoerara eta beharretara egokitutako zerbitzua izango da, osasun adituek eskatutako segurtasun neurriak betetzea lortzen badugu", azaldu du Haur eta Gazteria zinegotziak, Iker Oñatek. Lanketa hori duela aste batzuk hasi ziren egiten eta badoa itxura hartzen, zein baldintza izan behar dituen oraindik ez badakite ere: "Oraindik ez da dekreturik argitaratu esaten orain artekoak bertan behera gelditzen direla ezta nolakoak izan behar duten gero antolatuko direnak ere. Ez dakigu ziur zein izango dan adin muga, zenbateko taldeak egin ahal izango diren, zenbat txanda eskainiko diren, zer ordutegi izan ahal duten, ze iraupen, noiztik nora...", dio Oñatek.

Zerbitzu hori eskaini ahal izateko, dagoeneko begiraleak har-

IKASTOLEN ELKARTEA DA ORAINGOZ UDALEKUAK EGITEKO ASMOA ERAKUTSI DUEN BAKARRA

tzeko deialdia egin du Udalak. Maiatzaren 26a izango da izena emateko azken eguna, udaletxean, baina aurrez izena eman beharko da, telefonoz, 010 doako lineara deituta, oñatiarrentzat, edo 943 78 04 11 telefonora deituta, Oñatitik kanpokoentzat. *Haz@onati.eus* helbidera idatzita ere aukera dago horretarako.

Aldundiarenak, bertan behera

Aurtengo udalekuak egin ahal izateko "nahikoa segurtasun eta osasun berme" ez dagoela adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta bertan behera utzi ditu. Arabako eta Bizkaiko diputazioekin batera hartutako erabakia izan da, berme guztiekin egin ahal izatea ezinezkotzat jo dutelako. Horrez gain, azaldu dute udalekuen helburuetako bat ezin izango litzatekeela gauzatu, haurrek behar bezala elkarbizitzen eta sozializatzen ikastea, hain zuzen ere.

Zerbitzua eskaintzeko asmoz

Ikastolen Elkarteak, oraingoz, udaleku irekiak eskaintzeko asmoa erakutsi du, nahiz eta ziurtasunik ez izan eskaini ahal izango duten. "Udaleku hauek gure sareko ikastoletan antolatzeko aukera emango dugu, ikastolak hala nahi duen kasuetan. Orain aukera hau baloratzen ari dira, eta eskaintza zabaltzea erabakitzen duen ikastolak berak kudeatuko du izen-ematea", azaldu du Idurre Maortuak, elkarteko kideak. Udaleku itxiak ez dituzte egingo.

Programa egokitu dutela dio Maortuak, ikastoletako espazioek eta umeen konfinamendu osteko beharrak aintzat hartuz.

Gaineratu du "zinez" uste dutela haurrek udalekuen beharra izango dutela "itxialdi luzearen" ondoren, "lagunekin egoteko, gorputzak mugitzeko, naturarekin harremanetan jartzeko eta batez ere, euskaraz aritzeko". Euskara etxean erabiltzeko aukerarik ez duten umeentzat aukera on bat izango dela dio. Informazio zehatzagoa *www.aisialdia.eus* atarian dago.

Euskal Udalekuen bilera, gaur

Euskal Udalekuei dagokienez, izen-ematea eginda daukate, baina gaur, egubakoitza, bilera batean dira erabakia hartzekoak.

Bertsozale Elkartearen udalekuak, azkenik, bertan behera utzi dituzte.

Arkaitz Etxezarreta eta Naia Altube oñatiarrak maiatzaren 30ean ziren ezkontzekoak, baina atzeratu egin dute ezkontza. N.A.

Ezkontzak hankaz gora jarri ditu koronabirusak

Konfinamendua arintzeko bigarren fasetik aurrera, ezkontzak baimenduta egongo dira Hego Euskal Herrian, segurtasun neurri guztiak hartuta; egoera ikusita, ordea, zalantza handia izaten ari dira ezkongaiak, eta datorren urtera ere atzeratzen ari dira

Eneko Azurmendi OÑATI

Beste ezkongai askori moduan, pandemiak hankaz gora jarri die ezkontza Arkaitz Etxezarreta eta Naia Altube oñatiarrei. Maiatzaren 30ean ziren ezkontzekoak, baina atzeratu egin dute. "Hau guztia hasi zenean, pentsatzen genuen posible izango zela datari eustea, baina egoera okerrera zihoala eta inguruan arrisku taldeko senideak ditugula ikusita, atzeratzea erabaki genuen", azaldu du Altubek.

Uztailaren 31ra atzeratu zuten, pentsatuz posible izango zela, baina oraindik zalantza handiak dituzte. "Gaitza oraindik ez dago kontrolatuta eta txertorik ere ez da egongo ordurako. Horrez gain, egitekotan, segurtasun neurri guztiak hartuta egin beharko genuke, eta dantzaldirik gabe. Azarorako ere hartu genuen lekua, baina adituek diote berriro hazi daitekeela kutsatu kopurua garai horretan, eta ez dugu egoki ikusten. Beraz, orain bertan, ez dakigu zer egingo dugun". Agian datorren urtera edo 2022ra atzeratuko dutela onartu du Altubek. Izan ere, kanpotik datorren jende asko edukiko dute. "Bartzelonan egin nituen ikasketak eta hango lagun batzuk gonbidatu ditut. Europa guztitik dira etortzekoak, baita Mexikotik ere. Horiek etortzea nahiko nuke, eta ezkontza berme guztiekin egin".

Bazkaria Zumarragako Etxeberri jatetxean dira egitekoak. "Oso pozik gaude eman diguten tratuarekin. Ez digute fidantzarik eskatu, gurekiko konfiantza osoa erakutsi dute eta oso prest egon dira edozertan laguntzeko. Aukera ona egin dugu, eta benetan eskertzen diegu". Hori dela eta, ezkontzen direnean, garbi dute Etxeberria jatetxean egingo dutela bazkaria. "Eta berdin musikariarekin, argazkilariarekin, eta abarrekin. Hori guztia mantendu egingo dugu, benetan lan bat hartu dugulako horiek aurkitzen eta lotzen".

Bukatzeko, haien egoera berean dauden guztiak animatu gura izan ditu Altubek. "Ez da batere erraza, eta ilusio guztiarekin egindako lana atzeratzen dela ikusteak ondoez moduko bat sortzen du. Baina aterako gara honetatik eta, aukera daukagunean, modu bikoitzean ospatuko dugu ospatu beharrekoa".

Gure Ametsa, neurrien zain

Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeak ekainerako eta uztailerako erreserbatuta zituen ezkontza guztiak atzeratuta edo ezeztatuta ditu. "Astebururo ezkontza bat geneukan, eta orain, ezjakintasun handiarekin gaude. Urrirako edo urte bukaerarako atzeratu dituzte batzuek, eta datorren urterako beste batzuek. Horrez gain, badaude beste batzuk aurtengoari eutsi diotenak, baina bazkaria gertukoenekin bakarrik egingo dutenak. Baina ez dakigu ze baldintzatan posible izango dugun zerbitzu hori ematea, eta itxaroten gaude ea Espainiako Gobernuak eta Euskko Jaurlaritzak zer esaten diguten, oraindik gauza asko ez dituztelako zehaztu", dio ezkontzen arduradun Josune Ibabek.

Etorkizunari begira, "baikor"

Ezkontzen antolaketa eta argazkiak egiteaz gain, gonbidapenak, ezkontzetarako opariak eta honekin zerikusia duen guztia eskaintzen dute Arrasateko Belunen. "Lantxo batzuei eragin die egoera honek, baina gehienak atzeratu egin dira. Beraz, aurretik egindako lanak, beste data baterako, baina balio izango du. Pozik gaude", azaldu du Leire Bediak, Beluneko arduradunak. Zerbitzua atzeratu dutenei dagokienez, batzuek data zehaztu dute eta beste batzuek data berriaren zain daude oraindik, Bediaren esanetan. "Udazken inguruko ezkontzak, momentuz, mantendu egiten dira, baina zalantza askorekin".

Hala ere, itxaropentsu daude etorkizunari begira. "Enpresentzako ere lan asko egiten ditugu, eta, familia eta haurdunen argazkilaritza ere egiten dugunez, baikor, aurrera begira gaude".

Zailena, ezjakintasuna

Bost hilabete atzeratuta dituela adierazi du Amaia Albes moda diseinatzaile arrasatearrak. "Martxoa, apirila, maiatza, ekaina eta uztaila. Data horietan aurreikusita zeuden ezkontza guztiak atzeratu egin dira. Martxokoak ia bezperetan ezeztatu behar izan zituzten. Soineko horiek eginda daude, eta apirilekoak ere bai, baina hemen ditut pilatuta. Izan ere, neurrira lan egiten dudanez, normalean soinekoa ez dut entregatzen egun batzuk lehenagora arte. Askotan, egunean bertan eraman eta nik janzten diet", nabarmendu du.

Ezkongaiek, hasiera batean, *B* plan bat egin zutela dio, uztailerako, abuzturako edo irailerako. "Hala ere, ezjakintasuna dela eta, zuzenean datorren urtera pasatu dute gehienek". Era berean, martxoan ezkontzetik uztailean edo abuztuan ezkontzera aldea dagoela azaldu du Albesek, eta jantzian aldaketa batzuk egitea komeni dela. "Hala ere, gehienetan posible izaten dut aldaketa horiek egitea, neurrira egiten dudalako lan. Beraz, lasai egoteko esaten diet".

Egoera honetan, zailena ezjakintasuna dela dio. Hala ere, pozik azaldu da bezeroekin hitzorduak berreskuratu dituelako. "Agenda guztia egokitu behar izan dut. Baina pozik nago, berriro bezeroekin lanean hasi naizelako, niretzako hori da-eta politena, haiekin sortzen den harremana. Okerrena da lana eduki arren jantziak entregatu arte ez dudala fakturatzen, nahiz eta jakin aurrerago fakturako dudala", gaineratu du.

Eraztunetan, data aldaketa

Ezkongai askok ezkontza-eraztuna aurrez eskatuta zeukatela dio Arrasateko Zubiaga bitxitegiko gerente Elena Fernandezek. "Ezkontzaren data aldatu beharko diete eraztunei, baina gehienek oraindik ez dakite zein izango den data berria, ezjakintasun handia dago. Guri, oraingoz, ez zaigu inor etorri data aldatzera, normala den moduan. Jendeak ez daki aurtengo urtea nola joango den, ezta datorrena ere. Beraz, zuhur jokatzen ari dira. Mugimendu gutxi dugu orain salmentei dagokienez".

"EZKONTZA BERME ETA GONBIDATU GUZTIEKIN EGITEA NAHIKO NUKE"

NAIA ALTUBE, EZKONGAIA

"ORAINDIK EZ DAKIGU ZE BALDINTZATAN EGIN AHAL IZANGO DITUGUN EZKONTZAK"

JOSUNE IBABE, GURE AMETSA JATETXEA

"AURREZ EGINDAKO LANAK, BESTE DATA BATERAKO, BAINA BALIO IZANGO DU"

LEIRE BEDIA, BELUN UNE AHAZTEZINAK

"BEZEROEKIN LANEAN HASI NAIZ BERRIRO; INPORTANTEENA HORI DA NIRETZAT"

AMAIA ALBES, MODA DISEINATZAILEA

"EZKONTZA-ERAZTUNEI DATA ALDATU BEHARKO DIETE EZKONGAIEK"

ELENA FERNANDEZ, ZUBIAGA BITXITEGIA

Metagra Group-eko Ruben Matilla, estanpazio arduraduna, eta Pello Txintxurreta, enpresako zuzendari nagusia. A. A.

Krisiari aurre egiteko bide berriak urratzen

Bergaran sortu berri duten Wolfratex enpresak hileko zazpi miloi maskara ekoitziko ditu; Aretxabaletako Mondragon Assembly-k maskarak egiteko makinak egin ditu; eta Bergarako Metagra Group-ek hotzezko estanpaziorako puntako makina erosi du

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

Bilerak pantailaren bitartez, makina gutxiago martxan tailerrean, batzuk ERTEarekin. Hori da eskualdeko enpresa gehienen argazkia. Hala ere, proiektu asko sortu dira egungo egoerak ekarri dituen beharrei eta eskaerei erantzunez; eta, era berean, begiak aurrera begira jarrita dituzte, "egoera normaltzen denean lehiakorragoa izateko", eta tresnerian inbertitzen ari dira batzuk.

Wolfratex-en maskarak

Pandemiak elkarlanerako bideak zabaldu ditu, eta horren erakusle da Bergaran Lazpiur, Embalan3, Servimasa eta Egile Taldea enpresek elkarrekin sortu duten Wolfratex. Lagun zaharrak dira, eta duela aste batzuk elkartu ziren, sortu diren behar berrien aurrean nola lagundu zezaketen ikusteko, eta orain dela astebete inguru itxi zuten akordioa. Wolframari keinu egin gura izan diote izen horrekin, eta, hala, Bergarari erreferentzia zuzena egin. Lazpiurko zuzendari nagusi Ander Aranburuk akordioa lortzeko "bizkortasuna" nabarmendu du, eta enpresa bakoitzak bere "jardueraren ezagutzarekin" lagunduko duela gaineratu. Dagoeneko prestaketa lanak hasita dituzte; adibidez, areto zuri bat egokitu dute Spriri alokatutako lurretan".

Atzo hasita, derrigorrezkoa da maskara toki askotan, eta igarri dute. "Telefonoek gehiagotan jotzen dute, bai. Gure aurreikuspenak dira lehenengo bertako eskaerei aurre egitea, eta ikusten badugu bertakoei zerbitzua eman ondoren aukera daukagula kanpoan ere ematen hasteko, bada, aurrera egingo dugu", dio Embalan3 enpresako gerente Ion Atxurik.

Hilean zazpi milioi maskara ekoitziko dituztela azaldu du Atxurik. "Ekainaren 5ean nahi dugu maskarak seriean fabrikatzen hasi. 2R izeneko maskara kirurgikoak izango dira gureak. Hiru motatakoak daude, baina 2R-koak dira seguruenak".

Taldeko enpresa bakoitzak jarduten duen arloaren ardura izan du, eta, hala, Lazpiurrek bi produkzio-lerro automatizatu garatu ditu: maskara kirurgikoak egiten dituena bata, eta FPP2 eta FPP3 sortzen dituena bestea. Bergarako lantegian egindakoa da guztia eta CE ziurtagiria duena. "Minutuko 120 maskara egiteko aukera izango dugu. Eskaera handiagoa bada, makina gehiago egiteko aukera ere badugu; hortaz, ez dugu oraingoz aterik ixten".

Makina berritzailea Metagran

Automobilgintza sektorerako egiten du, bereziki, lan Bergarako Metagra Group enpresak. Bi lantegi dituzte, Bergaran –100 langile– eta Mexikon –hogei langile–. Une honetan, sektoreko gehienen moduan, ez dute garairik onenak bizi: "Salmenta eta egoera aldetik oso txarra eta beldurgarria da egoera. Apirilean salmentetan %15era ez gara iritsi, eta ikusiko dugu maiatzean %30 izaten den... Eta ikusita merkatua nola mugituko den, aurreikuspenak ez dira onak; izan ere, autoa ez da derrigorrezko beharra, aurretik daude jatekoak eta etxebizitza. Urteko epea kontuan hartuta, %30eko salmenta jaitsiera aurreikusten dugu. Murrizketa ERTE batean sartuta gaude, errelebo batera lanean, baina hori ere ez osorik. Honen guztiaren onena izan da zuzendaritzak eta langileen ordezkariek, guztion artean adostu eta bozkatu ditugula. Oso pozgarria da hori, eta aurrera egiteko indarra ematen du. Hau talde moduan atera behar dugu, konfiantza eta babes horrekin", dio Metagra Groupeko zuzendari nagusi Pello Txintxurretak.

Pozik daude jaso berri duten eta etorkizunera ilusioarekin begiratzeko aukera emango dien hotzezko estanpaziorako "makinetan erreginarekin". "Zazpi kolpeko makina da. Ohioko (AEB) National Machinery enpresa handian egin dute. Hotzezko estanpaziorako makinen artean aurreratuena da. Europa mailan oso gutxi daude zazpikoak; Euskal Herrian, nik dakidala, ez dago halakorik. Guk, orain arte, hiru, lau, bost eta sei kolpekoak genituen".

Tamainaz ez da dituzten artean handiena. "Ezaugarri nagusia da kolpe kopurua. Zenbat eta kolpe gehiago, orduan eta gauza konplexuagoak egin daitezke. Hotzezko estanpazioan kolpe bakoitza deformazio bat da. Makinan altzairu pieza bat sartzen dugu eta hori kolpeka piezari forma ematen joaten da; zenbat eta kolpe gehiago izan, orduan deformazio konplexuagoak atera daitezke. Horrez gain, batzuetan makinatik kanpo egin beharreko lanen bat, adibidez, mekanizazioa, ekiditeko aukera ere eman dezake. Beraz, kostuak gutxitzeko eta lehiakorragoak izateko aukera emango digu. Aurrera begiratu beharra dago, eta, horregatik, orain dela urtebete hartutako erabakia, gaur egungo egoeran ere erabaki zuzena izan zela deritzogu".

Irailerako makina berria martxan jartzea da euren asmoa. "Ezin da zuzenean lurrean jarri, aurrez lur azpia prestatu behar izaten da. Lan horretan gaude, eta gero, makinaren muntaia dator. Ez da konplikatua, baina lan luzea da bai".

Assembly: makinak hemen dira

Osasun Ministerioaren eskaria betez Mondragon Assemblyk Txinan duen lantegian eginiko lau makinak Euskal Herrian dira; horietako hiruk Hernanin egoitza duen Bexen Medical enpresarendako maskara kirurgikoak ekoiztuko dituzte; modu horretan, maskara-fabrikatzaile handiena bihurtuta; eta laugarrena Defentsa Ministerioaren farmazia zentrora bideratu dute.

Microliquid-en PCR test diagnostikoa

Minbiziaren, arnas gaixotasun infekzioen eta beste farmako batzuen tratamenduen diagnosirako teknologia mikrofluidikoetan Arrasateko Microliquid enpresa bioteknologikoa erreferente da.

COVID-19aren diagnostiko azkarra errazteko sistema eramangarri bat garatzen ari da, Biozientziak Gipuzkoa fundazioak lagunduta, eta 150.000 euroko laguntza jasoko du. Aurreikuspenen arabera, zazpi hilabetean prest egongo da Euskadiko osasun zentroetan eta ospitaleetan erabiltzeko.

Emaitzak, 15 minutuan

Fundaziokoen esanetan, "emaitzak modu azkar eta eraginkorrean lortuta, modu estrategikoan erraztuko da kutsaduren identifikazio azkarra, eta balizko isolamendua egoera ezberdinetan, itxarote denboran dagoen murrizketari esker"; izan ere, PCR –Polymerase Chain Reaction– teknikan oinarrituta, hamabost minutuan emango ditu gailu berriak emaitzak, eta gaur egungo sistema gehienen epea bost ordukoa da.

Microliquid-ek beharrezko hornidurak eta azpiegiturak ditu produktu biosanitarioak egiteko derrigorrezkoa den ISO 13485 zertifikazioarekin ekoizteko.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Ate Irekiak Online

Maiatzak 25 - 26 -27

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

www.mondragon.edu/gmhz • onarpena.lhm@mondragon.edu • 664 298 704 • 664 298 683

Mondragon Unibertsitatea

LABORAL kutxa

HETEL

Fp EUSKADI LANBIDE HEZIKETA

ZABALIK

GOTZON IPARRAGIRRE

Pandemia eta matematikak

Matematikak pandemiara ekarri eta lege posible batzuen bidez nire sentipenak azaltzen saiatu nahi dut.

1. Axioma bat: ikusezina, ber bi. Ikusezina den zerbaitek denon aurrean ikusezin bihurtu gaitu, bakoitza bere etxera bidaliz. Imajinatu ezazu 1 mm. Ze txikia, ezta? Ba, zatitu miloi bat zatitan. Halako 100-150 besterik ez du birusak, eta larrutu egin gaitu. Sinpletasunaren garaipena.

2. Zenbait terminoren eztandaren printzipioa. Konfinamendua, pandemia, antigorputzak, PCRak... Bagenekien eskalatzen ari zena pareta baten gora zihoala; batek daki, berriz, zer den deseskalada. Lotu iezazkiozu deseskaladari faseak eta, hara, ze saltsa! Ez dago matematika arloan halako algoritmo konplexurik.

3. Kolpeen uniformetasunaren lege ankerra. Birusak ez omen dauka mugarik, ez klase sozialik, inor ez gaude libre bere atzamarretatik, gertu-gertuan omen dabilkigu bere hatsa... baina iruditzen zait Afrika eta Hego Amerika inoiz ez bezala odolusten ikusiko ditugula; beldur naiz, behintzat... Txertoa lortuko da, baina norentzat? Ze preziotan? Ez, halakoetan ez da izaten uniformetasunik.

EGOERAK BEHARTZEN EZ BAGAITU, LEHENERA JOKO DUGUN ZALANTZARIK EZ DAUKAT

4. Normaltasun berriaren teoria. Ez daukat honetan fede handirik. Normaltasuna, lortzean, ez da izango berria, zaharra baizik. Egoerak behartzen ez bagaitu, lehenera joko dugun zalantzarik ez daukat. Ez gaituzte gerrara bidali, bakarrik gure etxeetara.

5. Harropuzkeriaren algoritmoaren hutsezintasuna. Ez dakit nor garelakoan ari gara, mundua geurea balitz eran, bizitzarekin jolasean, jainkotiarretik asko izan gabe jainko bagina bezala jolasean... Egoerak otzandu eder baten beharraren berria ekarri digu, berriz, enegarrenez.

Matematika legetatik haratago, bizitza! Mina, bakardadea, heriotzak, isolamendua... Besarkada sentibera bana isil-isilik agur esan diguzuen denoi eta, bereziki, agur esan ezinik, babesik gabe, atsekabeturik geratu zareten senitartekoei.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA

HANDIK ETA HEMENDIK

Udaberriarekin topo

JUNE FERNANDEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Bitxilore zuriz jantziak topatu ditut zelaiak eta potoloak orain dela hilabete biluzik zeuden zuhaitzak. Inoiz baino ozenago entzun ditut txantxangorrien kantak, ez dakit ea udaberria delako, goizean goiz atera garelako ala 40 egun eman ditugulako herritik aldendu barik. Orain ulertu dut zergatik duen Txorierri izena eskualde honek.

Alaba soinera lotuta daramat zapiarekin eta aldapan gora nabaritu dut aste hauetan irabazi duen kiloa.

Begirada belarrean galduta, bere begiak marra bi bihurtu dira eta lo geratu da, titiaren eta lo-kanten beharrik gabe, itxialdia baino lehen bezala, nire pauso urratsek kulunkatuta.

Emakume bat eta bere txakurra soilik topatu ditugu bidean. Hori zen ohikoa. Berriro ere zentzugabea iruditu zait osasun publikoaren izenean landetatik aldendu eta dendetako ilaretan pilatzearen kriterioa.

Are gehiago, ortura joateko lantegira eta supermerkatura joateko baino traba gehiago jartzearena. Baina tira, orain ez da politikaz pentsatzeko unea.

Fruta-arbola batzuei orain ateratzen ari zaizkie loredun kimuak. "Beitu, txikitxu, zure lehenengo udaberria da, ez dizute lapurtu", esan nahi diot, baina ez dut esnatu nahi.

"Mundu osoan zehar existitzen diren herrixkak izango dira agian gure bizirautea ahalbidetuko dutenak", esan du Saskia Sassen soziologoak, COVID-19ari buruzko elkarrizketa batean. Ez dakit, ba. Dakidana da Madrilen politikariek maskaren eraginkortasunaren inguruan eztabaidatzen zuten bitartean, Larrabetzuko *patchwork* taldekoak buru-belarri zeudela herritar guztientzat oihalezko maskara ederrak josten.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza, Maite Igartua.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"5G teknologiarekin etengabe egongo gara irradiatuta"

ISABEL MORENO INFORMA TU ELKARTEKO KIDEA

Mireia Bikuña Madrid OÑATI

Informa Tu eta Ixutu Begixak elkarteek sinadura-bilketa kanpaina abiarazi dute Debagoienean, udalek 5G instalazioak bertan behera utz ditzaten edo, gutxienez, atzera ditzaten eskatzeko.

Zein helbururekin abiarazi duzue kanpaina hori?

Ez dago txostenik esaten duenik 5G teknologia segurua dela. Ez dute ikertu jakiteko osasunarendako txarra den edo ez. Are gehiago, 3G eta 4G teknologiak kaltegarriak direla egiaztatzen duten hainbat txosten daude. Osasunari eta ingurumenari kalte egiten diote. Hala, Udalei eskatu diegu 5G teknologiarendako antenak ipintzea atzera dezatela, seguruak direla baieztatu arte. Mundu osoan dago teknologia horri buruzko kezka, eta 400 ikertzailek eta zientzialarik baino gehiagok sinatu dute dagoeneko.

Eta zerk kezkatzen zaituzte gehien?

Informa Tu elkarteko kide Isabel Moreno. I.M.

5G teknologiaren segmentuetako batek uhin milimetrikoak erabiliko ditu. Horiek eragin negatiboa dute gure gorputzaren azalean eta organoetan. Eta hori 24 orduetan eta 365 egunetan erabili behar badugu, nola eragingo digu? Etengabe egongo gara irradiatuta. Era berean, 200 metrotik behin antenak ipintzea aurreikusten da, seinalea ondo bideratzeko. Egungo telefonia mugikorrak zenbat kalte egiten duen jakinda, uste dugu horiek areagotu egingo direla 5G teknologiarekin etengabe funtzionatuz gero.

Hortaz, abantailak baino eragozpen gehiago ditu?

Gure ustez, bai. Bereziki, herritarrendako. Uste dugu ez duela merezi gure osasuna eta gure ingurumenarena arriskuan ipintzea film bat azkarrago deskargatzeagatik.

Mugikorretatik aparte, non gehiago erabiliko litzateke 5G?

Eremu guztietan: garraio adimendunean, produktuen trazabilitatean, telelagundutako kirurgian, urruneko nekazaritza-lanen programazioan... Dena den, horiek guztiak egin ahal dira arrisku txikiagoa duten teknologiekin.

Zer egingo duzue batutako sinadurekin?

5G ezartzeari buruzko kezka kuantifikatu gura dugu. Ostean, bailarako udalei eta Mankomunitateari horren berri emateko. Gurako genuke estatu mailan aitzindari izan, biztanleen osasuna zaintzen eta bermatzen dugulako.

Non sinatu daiteke?

Debagoieneko herrietako hainbat komertziotan sinatu daiteke. Hiru astez egongo dira eskuorriak.

ITURRI ONETIK

Kultur ekitaldien 'Oscarretan' saritua

Mondragon Taldearen ekimenez egindako *Humanity at music* Sinfonia Kooperatiboa kultura ikuskizunak aitortza berezia jaso berri du. Buesa Arenan iaz irailean egin zen ekitaldi bereziagatik. Eventex nazioarteko ekitaldi handien sariketan, brontzezko saria jaso du kulturaren alorrean. Askoren ustez, Global Eventex Awards izeneko sariak dira nazioarteko jaialdien *Oscarrak*. Buesa Arenako ekitaldiak 15.000 lagun batu zituen iaz Gasteizen.

ALBISTE IZAN ZEN

GOIENA

2014-05-18

Erabakitzearen alde, giza katea Urbiako zelaietan

Ekainaren 8ko erabakitzeko eskubidearen aldeko lehen giza kate handirako prestatzen eta girotzen joateko, ekimena antolatu zuen Gure Esku Dago-k Urbian. Jendetza batu zen, eguraldi ederra lekuko. Ehunka lagunek hartu zuten parte "giza kate ikusgarrian", Debagoieneko, Urolako, Goierriko eta Arabako Lautadako Gure Esku Dago-k egindako deiari erantzunez. Asteburuan, argazkiak atera zituzten hainbat herritan.

HAU BE BADOGU!

Maskarak, sare sozialetako izarrak

Maskarak kaleetan ere erabiltzearen aginduaren aurrean, sare sozialak txantxaz eta ironiaz bete dira, beste behin:

@koldotxu: "Mota jakin bateko maskarak derrigorrezkoak badira, erakundeek debalde banatuko dituzte, ezta? kar, kar, kar".

@txerren: "Maskarak, ezpatak... XXI. mendea interesgarri dator".

Legebiltzarrerako hauteskundeak datoz

Uztailaren 12an izango dira EAEko hauteskundeak:

@maia_jon: "Dolurik egiteko modurik eta tarterik gabe, mundua eta bizitzak geratu dituen larrialdiaren baitan denetariko beldurrekin eta hausnarketarako tarterik gabe elkarlanera eta elkarrizketara beharrean lehiara eta zenbakietara goaz".

Patxi Ruiz hizpide sare sozialetan ere

Gose eta egarri greban dagoen euskal presoa hizpide nagusi izan da aste honetan; Twitterren, batez ere:

@urkobetan: "Egoera larria *#patxiruiz* euskal preso politikoarena. 10. eguna, gaur, gose greban, bizitza arriskuan jarriz, bere eskubideak errespetatu ditzaten".

Aritz Adurizek futbola utzi du

Aldakako arazoak direla-eta futbolari agur esan dio donostiarrak. Sare sozialetan *trending topic* izan da:

@madariaga: "Eskerrik asko Athletic, eta Euskal Herriari eman diozun guztiagatik. Ahaztezina eta ordezkaezina izango zara beti. Garaiz zabiltza uztailaren 12an Ajuria Eneara heltzeko".

22 metro

BEÑARDO KORTABARRIA
ANTZUOLAKO ALKATEA
ANTZUOLA

Antzuolan bada herrigunearekin oinezko lotura segururik ez duen auzo bat, Basalde. Herritik Deskarga aldera irtenda, ezkerraldeko magalean dago. Hor bizi direnak edo autoz mugitzen dira edo beren bizia arriskuan jarri behar dute, errepidetik oinez joanda. Aspaldi ari gara arazoari irteera bat eman nahian, baina ez dugu lortu.

Errepidea hondoratzen ari zela eta, duela gutxi, erreka eta errepidea bereizten dituen horma konpontzen ari da Aldundia. 22 metroko luzerako horma da, 3-4 metro altuerakoa eta metro inguruko zabalerakoa. Metro hori zabalagoa egiteko eskatu genion Aldundiari, oinezkoak pasatzeko moduan jartzeko. Ura Agentziaren komodina atera, eta ezin zuela esan ziguten. Ura Agentziarekin hitz egin genuen, baina ez zuten erantzun garbirik eman, erreka zaindu eta hegal-erako irtenbideak ezin zirela proposatu esanez. Non eta Antzuolan? AHTk eta autobideko obrek inguru osoa sarraskitu duten toki berean, proiektua aldatu eta ezerezetik erreka gainean errotonda bat eraiki zen herri berean. Horretarako jarri ziren, ba, ados.

Guk baino gehiago ez du inork maite geure ingurua, guk baino gehiago ez du inork zaindu nahi... eta badakigu proposatzen ari garenak ez diola kalte handiagoa egingo. Eta badakigu Basaldeko irisgarritasuna ez duela osorik konpontzen, baina errazten du. Eta ez da diru-kontua, eta horregatik zaigu ulergaitza.

Gaitzean aldaketak

JOSU GARITAONANDIA
'OPARITU ZUHAITZ BAT'
EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

Kokoteraino gauden birus honek aldaketa ugari ekarri dizkigu gure eguneroko bizitzan, baina sakonak dira aldaketa horiek?

Planeta osoa hankaz gora jarri du; gaitzak jo duen eremuetan gelditu egin direlako eta gaitza sartu ez den parajeetan lehengai batzuk falta zitzaizkielako, moteldu egin da. Honek agerian jartzen ditu nazioartekotzearen arazoak. Oinarrizko produktu eta zerbitzuak ahalik eta gertuen ekoiztu beharko lirateke. 50 kilometro inguruan eduki beharko genituzke, asko jota; Euskal Herri barruan. Horrek bai emango liguke herri bezala egonkortasuna etorkizunean.

Krisiarekin edo krisirik gabe, aberatsak gero eta aberatsago bihurtzen dira.

Oinarrizko errentak joera hau aldatuko luke: estatuak pertsona bakoitzari duin bizi izateko adina diru helaraztea. Horrek bermatuko luke gizartearen askatasuna, denen lehen beharrak aseta. Hori gauzatzeko ez da nahikoa zergen bitartez aberatsen dirua batzea gizartean banatzeko; seguru aski, aberatsak beste estatu batera joango lirateke. Gakoa da diru horrekin zer egiten dugun; gure inguruko, gure estatuko, gauzak erosten ez ditugun bitartean, alferrik dira ahaleginak.

Beraz, praktikan jar dezakegu: kontsumitu gertuen ekoiztutako produktuak.

Iturbidetik mila esker

OLATZ ETXABE
ITURBIDEKO EGOITZABURUA
ARRASATE

Egun latzak pasa ditugu Iturbide egoitzan, eta momentu gogor hauetan lehen lerroan egon zareten langile guztiei eskerrak eman nahi dizkizuet –garbitzaileei, klinika laguntzaileei, gaueko langileei, erizainei, fisioari, harrerako langileei, ikuztegiko langileei, gainbegiraleari, monitoreei eta administrariari–. Urduritasuna eta beldurra gaindituz gure egoiliarrak behar eta merezi duten bezala artatzea izan da zuen lehentasuna, eta, egindako lan ikaragarriari esker, egoerari buelta eman diogu. Zuen konpromisoa eta lan nekaezina izan dira gakoak egoerari aurre egin eta egun gauden egoerara iristeko; izan ere, horri esker, egoiliarrak ondo daude, sendatuta, antigorputzekin eta arriskutik kanpo. Horregatik, mila esker.

Kabiako lankideei ere eskerrak: zuen laguntza eta babesa ezinbestekoa izan da. Mila esker.

Eskerrak ere gure egoiliar eta familiei, izandako jarrera eta pazientziagatik; ea laster elkar ikusteko aukera duzuen. Zuen bultzada eta animoengatik ere, mila esker.

Hala ere, ezin ditugu ahaztu bidean gelditu diren egoiliarrak. Izugarrizko tristura eta mina daukagu eta asko kostako zaigu beraien hutsunea betetzea. Besarkada handi bana bidali nahi diegu familia guztiei, eta eskerrak, emandako animo eta esker onengatik. Zuen laguntzagatik ere, mila esker.

Osakidetzako profesionalei: Juanjo, Mikel, Nora eta Hiara medikuei eta Carol, Leire, Naiara M., Naiara A., Izaskun, Ilargi, Marina, Edurne, M. Asun, Lur eta Izar erizainei, bereziki, eskerrik asko. Zuei esker ere lortu baitugu gure ospitale txikian egoiliarrek aurrera egitea; zuen laguntza izugarria izan da. Anbulantzietako langileei ere eskerrak, egindako zerbitzuagatik eta emandako animoengatik, Horregatik, denoi mila esker.

Eskerrak Kabiari, Foru Aldundiari, Osakidetzari, Mondragon Unibertsitateari, Covideuskadiri, Arizmendiri, Ternuari eta herritar anonimoei. Zuek emandako materiala ezinbestekoa izan da gure lana baldintza duinean egiteko. Mila esker.

Zubillagako suhiltzaileei eta Anticimexi ere eskerrak eman nahi dizkiegu, egoitzako bazter guztiak desinfektatzeagatik.

Azkenik, ezin ditugu arrasatearrak ahaztu: zuen txalo eta animoek lanean jarraitzeko indarra eman digute eta; zuei ere mila esker.

Eskerrik asko guztioi, bihotz-bihotzez.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna • Eskertza-gutuna • Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali ***gutunak@goiena.eus*** helbidera!

Erantzun-gutuna • Aldarrikapen-gutuna • Kexa-gutuna

Egin tokiko komunikabideen alde

Egin Goiena Klubeko bazkide

Anima zaitez, egin zaitez Goiena Klubeko bazkide. Baduzu zer irabazi:

- Deskontuak hainbat komertziotan: Goiena Klubeko txartela erabilita.
- *Puntua* aldizkaria jasoko duzu: zeuk eskatutako helbidean.
- Zozketak: irabazi ekitaldietarako sarrerak, liburuak, teknologia gailuak...
- Deskontuak *Iragarki sailkatuak* atalean, *Goiena* aldizkarian.
- Deskontuak eskelak jartzean *Goiena* aldizkarian.

Gainera, ORAIN egiten bazara bazkide, beste abantaila hauek ere izango dituzu:

- 30 euro bakarrik kostako zaizu urte bukaerara arteko kuota, 56 beharrean.
- %30 merkatuko zaizu bazkidetza kuota errenta aitorpena egiterakoan. Izan ere, Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso zuten 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.
- Maskara jasangarria jasoko duzu, 300 aldiz garbitu daitekeena. (Maskarak agortu arteko oparia.)

BAZKIDE EGITEKO:

943 25 05 05 **kluba@goiena.eus**

0 km

HEDABIDEEKIN ERE BAI

goienakluba

Euskara irabazle, denok irabazle!

Gazte bat, iazko San Juan bezperan, Herriko Plazako suaren gainetik salto dotorea egiten. IMANOL SORIANO

Adostasuna, "sanjuanak bere horretan" ez egiteko

Alarma egoera eta jaiak beti bezala egitea "bateraezinak" direla ondorioztatu dute herriko lau alderdi politikoek. Ez dute baztertu "jaiak irudikatzeko" ekintza batzuk egitea; betiere, jaietako eragileekin adostuta. Egitekotan, aurrerago jakinaraziko dituzte

Xabi Gorostidi ARRASATE

Bergarako jaiak izan ziren lehenak, eta ostean, Oñatiko Corpusak. Osasun larrialdia luzatzen hasi zen heinean gero eta agerikoagoa zen horren eraginak ere herriko jaiak ere zipriztinduko zituela, eta hala izan da. Arrasateko sanjuanekin lotuta txosna batzordea izan zen urratsa egiten lehena, apirilaren 30ean. "Gaur egun bizitzen ari garen egoera ezegonkorra kontuan izanda, aurtengo San Juan jaien antolakuntza bertan behera utzi beharrean gaude. Izan ere, gaur-gaurkoz ez dugu jaiak lasaitasun osoz ospatu ahal izango ditugun inongo bermerik", azaldu zuten komunikabideetara igorritako prentsa ohar bidez.

Udalaren ohar bateratua

Asteazken honetan heldu da Udalaren erabakia. Alderdi guztien babesarekin idatzitako ohar baten bidez jakinarazi du Arrasatek "bertan behera" utziko dituela "gaur arte ezagutu ditugun San Juan jaiak. Arrasateko Udalak, udal talde politiko guztien onespenarekin –EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Arrasate– eta Kultura batzordearen proposamenez, ekainaren 23tik ekainaren 26ra ospatzea aurreikusia zeuden San Juan jaiak bertan behera uztea erabaki du; hala ere, jaiak irudikatzeko ekintza sinbolikoren bat egitea ez da baztertu", azaldu dute oharrean.

Gehitu dutenez, udal ordezkariak jaien antolaketan parte hartzen duten eragileekin elkartu dira erabakia partekatzeko eta, jaiak irudikatzeko ekintzaren bat egite aldera, eragileen ideia edo eta planteamendu ezberdinen proposamenak entzuteko. Azkenik, eskerrak eman dizkiete jaien antolakuntzan aritzen diren eragileei, eta adierazi dute aurrerago jakinaraziko dituztela egingarriak izan daitezkeen balizko ekintzak.

EZ DUTE BAZTERTU EKINTZAREN BAT EDO BESTE EGITEA, BAINA AURRERAGO EMANGO DITUZTE ADITZERA

EH Bilduren proposamena

Oharra plazaratu eta gutxira jakinarazi zuten bat egiten zutela jaiak "bere horretan" ez egitearekin, eta jaietako dirua –150.000 euro– herriko kultur alorreko eragileengan inbertitzea gustatuko litzaiekeela adierazi zuten. "Diru hori urtean zehar gelditzen diren hilabeteetan inbertitzea eskatzen dugu. Kultura sustatzen duten eragileei, artistei, musikariei eta orokorrean herriko kulturaren inguruan lan egiten duten pertsonei eta elkarteei bideratzea, alegia".

Maalako jaiak

Bertako jai batzordeak ere aditzera eman du ez dituela jaiak antolatuko, "bermerik ez dagoela" iritzita.

Elikagaiak, poltsatan banatuta, furgonetan sartu aurretik. GIPUZKOAKO GURUTZE GORRIA

93 familia zaurgarri, oinarrizko elikadurarako laguntza erabiltzen

Udalak, Gurutze Gorriak eta Eroskik txartel bidezko sistema jarri dute martxan, lan logistikoak arintzeko

X.G. ARRASATE

Krisialdi hasieran, hiru eragile horiek jenerotan emateko laguntza sistema jarri zuten martxan, koronabirusaren krisiagatik diru sarrerak murriztu zaizkien herritarren oinarrizko elikadura beharrak asetzeko. Orain arte, banaketa lanak Gurutze Gorriak egin ditu. Laguntza jasotzen dutenetako asko euren kabuz erosketak egiteko gai direla ikusita, txartel bidezko sistema adostu dute. "Onuradun bakoitzari txartela egin eta Udalak izendatutako zenbatekoarekin Arrasateko Eroskiren bi dendetan erosketak egin ahal izango ditu familia unitate bakoitzak. Astero aginduko dira birkargak. Ezintasunen bat duten herritarrei, zeinak ezin diren saltokira bertaratu, Udalak orain arteko zerbitzu bera eskainiko die", azaldu dute Udaletik. Hauek dira familia-unitateko ezarritako zenbatekoak: kide bateko familia unitatea, 50 euro asteko; bi kideko familia unitatea, 75 euro asteko; hiru kideko familia unitatea, 100 euro asteko; lau kideko familia unitatea, 150 euro asteko; bost kideko familia unitatea, 200 euro asteko.

Apirileko osoko bilkuran, EH Bilduk laguntza mota hau kritikatu zuen. "Tokiko merkataritzaren alde zaudetela diozue, baina laguntza hau soilik Eroski supermerkatura mugatzen duzue", adierazi zuen Maider Morrasek. Ostean, gaineratu zuen "Bergaran eta Oñatin" posible dela laguntza hori herriko komertzioetan erabiltzea.

Gaia aztertuko zutela adierazi zuten Gobernutik, eta oharrean bi arrazoi eman dituzte horrekin lotuta: laguntza jasotzen duten familien kopuru handia eta oinarrizko produktuak erosketa bakarrean egiteko zailtasunak.

Terrazak erabiltzeko, bi ordu eta erdi gehiago

Terrazen ordutegia arautzen duen dekretuak 10:00etan ezartzen zuen irekiera ordua, baina Udalak baimena eman du 07:30ean irekitzeko. Ibai-artek alkateari egin zion eskaria, argudiatuz 10:00ak baino lehenago badagoela zarata kaleetan: garbiketa makinak, herritarrak... Udalak ordutegia moldatu du, betiere, alarma egoera amaitu arte.

Arrasateko terraza bat. GOIENA

Naturan jolastea, "inoiz baino beharrezkoago"

Egoera berrira egokitutako 'Naturan jolasean' jaiaren bosgarren aldia antolatu dute Txatxilipurdik, Leintz Eskola Kirolak, Besaide Mendizale Elkarteak eta Gaztetxeko Haur eta Gurasoen Asanbladak; hilaren 20tik 25era naturguneetan jolasteko dei egin dute

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Gaur inoiz baino ozenago, espazio hauen balio zein zaintzaren aldeko aldarria zabaldu nahi dugu. Egitasmo hau osatzen dugun lau eragileok natura ordezkorik ez duen osasun, ongizate, ikasketa eta sormen iturri agorrezina dela deritzogu eta hezkuntza komunitatean ere gero eta gehiago dira ildo honen aldeko apustua egiten ari diren adituak", azaldu dute antolatzaileek, ohar bidez.

Naturan aritzeak onura hauek dakartzala azpimarratu dute: "Funtsezkoa da zentzumenen eta adimenaren garapenerako, estimulu zein ikasketa iturri agorrezina da, lasaigarria eta arreta-piztailea da, garapen sozial eta afektiboa sustatzen du, fantasiaren, irudimenaren eta jolas librearen elikagaia da, garapen osasuntsua erraztu eta errespetatzen du eta biofobia fenomenoari –naturari beldurra– aurre egiten laguntzen du". Aurtengo testuinguru berezian, bost eguneko deialdia egin dute, egitarau eta ordutegi zehatzik gabe. Prebentzio neurriak betez jolas librean aritzea proposatu dute, eta gomendio hauek eman dituzte horretarako: naturgunea aukeratzeko orduan, herriko mugen baitan dagoen bat lehenestea, adin tarte bakoitzari dagozkion ordutegiak errespetatzea, gainontzeko pertsonekin kontaktua saihestea –bi metrotako tarteak zainduz– eta naturguneekin atseginak izatea.

Haur bat zuhaitz batean jolasean. IMANOL SORIANO

Jolasak aukeratzeko bideo bat egin dute, naturan egin daitezkeen jolasen adibideak jarriz: lokatz bolak egin, hondarrarekin jolastu, muralak egin, eskalatu, ura ukitu, txalupak egin uretara botatzeko, zuhaitzak besarkatu eta animaliak topatu, besteak beste. Naturguneak aukeratzen laguntzeko, hona proposatu dituzten batzuk: Etxezarreta, Hidalgobaso, Kurtzetxiki, San Balerio, Antoniña, Monterron eta Santa Barbara. Horiez gain, Udalak osatutako natur bideen sarea ere proposatu dute.

Argazkiak, partekatzeko

"Horretan zaudetela, argazkiak atera eta ondorengo helbidera bidali: *naturanjolasean@gmail.com*. Behin epea amaitzean, argazki guztiak batu eta hauekin guztiekin bideo bilduma polita osatuko dugu", azaldu dute antolatzaileek.

'Txatxitelebista' saioa

Haur, gazte eta gurasoentzat hiru eguneko telebista saioa egiten hasi dira, astero, Txatxilipurdiko lagunak. *Txatxitelebista* izena jarri diote, eta osagai hauek izango ditu: asteazkenetan, ipuin kontalariak; ostegunetan, *Gazte Kotxo* atal labur, pikante eta bihurria; eta ostiraletan, *Gora haurtzaroa* izeneko atala. Saioak, 19:30ean, Youtubeko kanalean.



Gora haurtzaroa **telesailaren une bat.** TXATXILIPURDI

A.U. ETA I.U.

Bi elkarretaratze aste barruan

Lehena martitzenean egin zuten, Herriko Plazan, gose eta egarri greban dagoen Patxi Ruiz presoari elkartasuna adierazteko. Bigarrena, asteazkenean, Seber Altube plazan, Talka espazio feministan, Fires lantegi berreskuratuan eta Itzulbatzeta gaztetxean bizitakoak salatzeko. Bietan neurriak hartu zituzten segurtasun distantziak mantentzeko.

Azken balkoi-festak egingo dituzte zapatuan

Erdiko Kaleko Komisiokoek emanaldi berezia prestatu dute, leku ikusgarri batean grabatuta, eta herriko komertzioei eta Euskaraldiari keinu eginez. Itxaropena kalean, aldiz, DJ Erik-ek azken emanaldia egingo du, auzotarrek azken balkoi festa goza dezaten

Xabi Gorostidi ARRASATE

Konfinamendu sasoiak ezohiko irudiak utzi ditu, baina baita ezohiko festak eta ezohiko jai-antolatzaileak ere. Etxean geratzearen gordintasunari aurre egiteko, giroa alaitzeko beharra sentitu dute batzuek, eta musika eta balkoia horretarako tresna perfektu bilakatu dira. Erdiko kalean, Itxaropena kalean, Zarugalden, Uarkapen... herriko hainbat lekutan sortu dira ekintzaile berriak, eta horietako batzuek ia astero zerbait antolatzeko lana hartu dute euren gain. Hori da Markel Goikolea eta Erik Martin DJen kasua, eta biek ala biek azken balkoi-festa egingo dute zapatuan.

Bi lagun, kopak altxatuta, Maritxu Balkoi ospatzen. IMANOL SORIANO

Erdiko Kaleko Komisioa

Markel Goikoleak musika jarriko duen arren, festaren antolatzailea Erdiko Kaleko Komisioa da, konfinamendu garaian sortu den taldea. Aurretik, *Maritxu Balkoi*, Urteberri Eguna eta San Fermin jaiak egin dituzte, besteak beste. Ordubeteko iraupena izango duen saio berezia botako dute, Izarra dorrearen goialdean grabatuta; 20:00etan egingo dute emisioa, Youtube bidez. "Musika jartzeaz gain, herriko komertzioetan erostearen garrantziari tarte zabala eskainiko diogu. Herriko merkatariekin bideo batzuk grabatu ditugu, eta eurek grabatutakoak ere jaso ditugu. Saioaren hasieran haurrentzako abestiak izango dira nagusi, eta *ahobizi*-ren eta *belarriprest*-en laguntzaz egindako koreografia batzuk dantzatu ahalko dituzte. Bigarren zatian, adin guztientzako musika jarriko dugu", azaldu du Markel Bazanbide antolatzaileak.

Gautxori Eguna Itxaropenan

Itxaropena kalean ere azken festa bat prestatu dute, hontza ikur hartuta. Auzoko maskota sortu dute lehengo Gautxori tabernari keinu eginez, eta *Itxaro* izena jarri diote. 12:30ean. *Itxaro*-ren jaitsiera egingo dute, balkoitik balkoira. Auzoko haurrek *Itxaro*-ren marrazkiak egingo dituzte balkoietan zintzilikatzeko –7.000 globo ere jarriko dituzte–, eta ostean, ibilalditxoa egingo dute kalean, margolanak ikusteko. Ur globo jaurtiketa, *Kahoot* lehiaketa eta DJ Iver-en musika jartzea ere egingo dituzte, eta 21:15 aldera *Itxaro*-ren igoerarekin amaituko dute Gautxori Eguna.

NIRE USTEZ

ENEKO FERNANDEZ

Azpiegitura berdeak

Badira urte batzuk Arrasateko Udala natur ondarea herritarron eskura jartzeko lanetan hasi zela. Izan mendi ibilbideen inbentarioa egiten, natur bideak osatzen eta seinaleztatzen, edota aisialdiari eta bioaniztasunari begira lursailak berreskuratzen. Hor ditugu, adibidez: Hidalgobaso, Kurtzetxiki, Anporreta, San Balerio eta Etxezarreta. Zalantza barik, eskertzeko lana.

Osasun larrialdi honen baitan garbi frogatu da zein beharrezkoa dugun naturarekin galdutako harreman hori berreskuratzea eta zein aproposa den herritar guztien eskura azpiegitura berdeak eta aisialdirako espazio irekiak izatea. Zoragarria izaten ari da ikustea hainbeste gaztetxo eta heldu udalerriko txoko ezezagunak aurkitzen.

Zer esanik ez mendi bizikletaren kasuan. Norbanako batzuek, beren izerdiaz, guztion gozamenerako bidezidor ezin hobeak sortu dituzte. Etorkizunari begira, mendi bizikletak eta trailak ekarri diezazkiguken aukerak handiak eta albora ezinak iruditzen zaizkit, bide batez, turismoari bultzada bat emateko.

GOIENA

150 euro aurkitu, eta itzuli

Herritar eredugarriak daudela frogatzen duen ekintza bat bizi izan da aste honetan. Anonimotasunean mantendu nahi izan duen lagun batek 150 euro aurkitu zituen Garibai kaleko kutxazain automatiko batean. Horiek batu eta zuzenean joan zen leihatilara, dirua itzultzera. "Hurrengo egunean esan zidaten jabea identifikatu zutela, eta diru-sartzea egin ziotela".

ion ELEKTRIZITATEA
Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiak
24 orduko zerbitzua
658 99 59 12
Deitu!!!

Jili Jili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta
arrasate
beinke

Hauek osatzen dute Arkada Social taldea: Alex Regaño, Mikel Arriaran, Hodei Beitia, Oier Beitia eta Brian De Inda. POLI KARPO

Oroimenean iltzatuta geratuko den bideoklipa

2019ko abenduan 'No retorno' diskoa kaleratu ostean, orain 'Por Qué' abestiaren bideoklipa aurkeztu berri du Arkada Social taldeak; astebete eskasean grabatu eta argitaratu dute zuri-beltzezko ikus-entzunezkoa, konfinamenduak baldintzatuta

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasatearrak *No retorno* diskoaren aurkezpen lanetan ari zirela etorri zen koronabirusaren pandemia. "Sentsazioak onak izaten ari ziren, sare sozialetatik erantzun onak jasotzen ari ginen, baina oso kontzertu gutxi eman ahal izan genituen, alarma egoera dela eta. Alde horretatik, egoerak apur bat izorratu egin gaitu, disko berria ezin izan dugulako behar bezala aurkeztu", adierazi du Hodei Beitiak, taldeko abeslariak.

Gainera, disko berria "berezia" izan da taldearentzat. "Orain arte gehiena nik egiten nuen, eta, azken lanerako, [Mikel] *Arri*-ren, Oierren eta nire artean sortu ditugu abestiak. Disko desberdina zen, zentzu horretan, gustura geunden egindako lanagatik eta, era berean, pozik geunden izaten ari zen erantzunarekin".

Ezohiko bideoklipa

Hala ere, egoerari aurre egin, eta *Por Qué* abestiaren bideoklipa kaleratu berri dute. "Maiatz hasieran egin genituen grabaketak. Gero, astebete ibili naiz edizio lanak egiten, eta aurreko egubakoitzean publikatu genuen". Hasierako intentzioa ez zen hori. "Beste bideoklip bat egiteko asmoa geneukan, beste abesti batekin, baina kalean grabatzekoak ginen, jendearekin, eta alde batera utzi behar izan genuen proiektu hori. Hori dela eta, honi heldu diogu".

Konfinamendu egoeran egin diren bideoen tankerakoa da, plano bakoitzean pertsona bakarra agertzen da-eta, egoerak hala eskatuta, baina hau "landuagoa" dela dio Beitiak. "Planoek mugimendua daukate, eta ezohikoa da guretzat. Ez ditugu horrelako askoz gehiago egingo".

Bideokliparen hasiera ere desberdin egin dute. *Intro*-a, esaterako, grabatu egin behar izan dute, eskubide kontuak direla eta. "Zuzenekoetan originala jartzen genuen, orkestra batekin egindakoa, baina ez denez gure abestia, grabatu egin dugu, badaezpada. Zentzu horretan ere desberdina da bideoklip hau".

Zuri-beltzaren indarra

Horrez gain, zuri-beltzean kaleratzea erabaki dute. "Niri asko gustatzen zait zuri-beltza. Kasu honetan, gainera, kontrastea eta distira ere handiak dira, eta horrek efektua areagotzen du. Tim Armstrongek modu horretan egiten ditu bere bideo asko, nahiz eta kontraste handiagokoak diren bereak. Hortik hartu nuen ideia eta taldekideei proposatu nien. Gustatu zitzaien, eta zalantzan egon ginen hasiera bakarrik egin zuri-beltzean edo bideo guztia. Azkenean, bigarrenaren alde egin dugu".

Gustura geratu dira emaitzarekin. "Polita geratu da, pozik gaude, eta ingurukoek ere hala adierazi digute sare sozialen bitartez", dio Beitiak.

Asiako bira, bertan behera

Disko berriaren aurkezpena dela-eta Japonian eta Taiwanen bira egitekoak ziren, apirilaren 9tik 19ra, Aste Santua aprobetxatuz, baina bertan behera geratu zen hori ere, pandemiagatik. Des-kontrol eta Arkada Social taldeek egin behar zuten bira hori. "Pertsona bat gehiagorekin bi talde osatzen ditugu. Beraz, elkarrekin egitekoak ginen bira hori. Talde bakoitzak sei bat kontzertu eskaini behar zituen". Dena den, aurrera begira, berriz joateko intentzioa dute. "Ea datorren urteko Aste Santuan guztiok aukera daukagun joateko", onartu du Beitiak.

Ekainaren 6an, Jimmy Jazz-en

Bergarako Brigade Loco eta Tafallako eta Larragako Rotten XIII taldeekin batera Gasteizko Jimmy Jazz aretoan izango da Arkada Social hilaren 6an, *streaming* bidezko kontzertuan. "Gogotsu gaude, nahiz eta ez gauden ohituta publiko barik jotzen eta arraroa izango den. Probatu egin beharko dugu, ikusteko ze erantzun daukan".

Udari begira, aurreikuspen "arraroak" dituzte. "Abuzturako genituen hainbat kontzertu bertan behera geratu dira, baina, era berean, abuztuaren 5ean Getarian jotzeko prest ote gauden galdetu digute. Ez dakit posible izango den jotzea, eta arraroa egin zitzaidan. Agian, aretoren batean izango da, edukiera kontrolatuta, auskalo!".

BRIGADE LOCO ETA ROTTEN XIII TALDEEKIN BATERA ARIKO DIRA HILAREN 6AN GASTEIZEN

Arrasate Musikalen matrikulazio epea astelehenean irekiko dute

Ekainaren 19ra arte egongo da aukera 2020-2021 ikasturtean izena emateko, Monterron jauregian

E.A. ARRASATE

Astelehenetik eguenera 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta egubakoitzetan 16:00etatik 19:00etara, Monterron jauregian. Bestela, *Arrasatemusikal.eus* webgunean dago izena emateko inprimakia betetzeko aukera. Inprimaki hori idazkaritzara eraman beharko da; maskararekin joan beharko da, eta nor bere boligrafoarekin. 943 77 05 40 telefonora deituta ere jaso daiteke informazioa.

5, 6 eta 7 urteko ikasleentzat Musika Tailerra eskaintzen du Arrasate Musikalek. "Instrumentuarekin hasi aurretik musikara egokitzeko tailerra da", adierazi du Edorta Aiastuik, ekintza arduradunak.

Bestalde, Suzuki metodoa ere badute, 3 urtetik aurrerakoentzat. Hori bai, biolinarekin bakarrik aplikatu daiteke. "Aspaldiko metodoa da eta hemen hiru bat urte daramatzagu hori aplikatzen. Gurasoen inplikazioa eskatzen du, eta klasean ikasleekin egon behar izaten dute, oinarrizko kontzeptu batzuk ikasteko. Oso eraginkorra dela diote adituek".

Horrez gain, 7 urtetik aurrerakoek bateria eta gitarra elektrikoa ikasteko aukera dute, baita hezkuntza berezia ere.

Kultura musikala lantzeko saioak ere badituzte helduentzat. "Euskal musikaren eta kulturaren historia eskaintzen dugu. Metodologia bat badaukagun arren, ikasleen beharretara ere egokitzen ditugu saioak, interes ezberdinak izaten dituzte eta".

Maileguan hartutako liburuak itzultzeko dei egin dute

Biblioteka eta Udala lanean dabiltza herriko kulturgune handiena berriz irekitzeko. Hori segurtasunez egin ahal izateko, aurrez mailegutako dokumentuak itzultzeko eskatu diete erabiltzaileei, horiek "lehenbailehen berrogeialdian" jartzeko. Itzulketak sarrera nagusiko buzoian egin behar dira, astelehenetik egubakoitz eguerdira arte.

Eguneko zentroko langileak, Barajuengo Iturbe baserriko Nicolasa Altunarekin. EGUNEKO ZENTROA

Eguneko zentroa, itxita baina arreta ematen

Ateak itxi zituztenean denbora antolaketa lanetarako-eta erabiliko zutela aurreikusi arren, egoera berezia luzatu egin denez eta beharrak aginduta, arreta beste era batera ematen jardun dute; orain, hasi dira erabiltzaileekin aurrez aurre biltzen ere

Julen Iriondo ARAMAIO

Martxoaren 13an itxi zituen ateak Aramaioko eguneko zentroak, COVID-19aren osasun krisiagatik. "Hasieran, pentsatzen genuen itxialdi denboran ekintza berriak prestatuko genituela, gimnasia taula berri bat, paperean ditugun ariketa liburuak digitalizatu, garbiketa orokor sakona egiteko aprobetxatu...", dio zentroko langile Karmele Barrutiak. Erabiltzaileei jarraipena egiteko asmoa ere bazen hor tartean, baina, azkenean, horixe bihurtu da zeregin nagusi eta denbora gehien eskatu diena.

Jarraipena modu desberdinetakoa ari da izaten denbora honetan zehar: "Konfinamendu gogorrena izan dugun denboran, telefono bidezkoa izan da, batez ere: euren egoeragatik arduratu; euren arteko lotura lanak egin –besteen berri emanaz, elkarren berri ez zeukaten-eta–; animoak eman eta garai hobeak etorriko diren ilusioa transmititu –zeren denbora osoan baitziren kutsatuen eta hildakoen berriak, eta batzuei asko eragin die–".

Horrekin batera, hainbat material prestatu dizkiete, etxean egon beharreko ordu luzeetarako: "Fitxak, kognitiboki ondo mantentzeko: kalkulua, lengoaia, arreta... zentroan egin ohi dituztenak. Euren gaitasun kognitiboak mantentzeko, eta baita egunero denboraren zati bat okupatuta izateko ere". Puzzleak, ariketak egiteko tabletak eta bestelako jokoak ere jarri dituzte erabiltzaileen eskura, prebentzio neurri guztiak hartuz astean behin familiekin hitzordua eginda, aipatutakoak helarazteko.

Konfinamendu gogorrenean ere batzuentzat egoera beste batzuentzat baino eramanerrazagoa izan den arren –aldea egon da auzoetan bizi edo pisuan–, denentzat doa orain arintzen poliki-poliki. Horrela, telefono bidezko jarraipenarekin segitzeaz gain, bisitekin ere hasi ziren: baserrietara joaten, aurrena –errazagoa delako, etxe aurrean egoteko aukerarekin, beharrezko neurriak hartuta–, elkar ikusteko eta berriketa apur bat egiteko; geroago, eta behin kalera irten ahal izanda, Ibarran bizi direnekin ere hasi ziren aurrez aurreko hartu-emana izaten.

ADINEKOAK "ESPERO BAINO HOBETO" TOPATU DITUZTELA DIO ZENTROKO KARMELE BARRUTIAK

Dena dela, egoera lehengora noiz itzuli ahalko den arrastorik ere ez daukate eguneko zentrokoek, estimaziorik ere ez dago: "Kolektibo zaurgarriena denez... Ni deseatzen nago zabaltzeko, eta uste dut batzuei mesede egingo diela, zeren batzuentzat oso gogorra izaten ari baita". Hala ere, eta adinekoen egoerak beherakada izateko arriskua egon arren, hasiera batean, "espero baino hobeto" topatu dituztela dio Karmele Barrutiak.

Edurne Arana, kaleko lorategi batean. EGUNEKO ZENTROA

Edurne Arana, baikor eta umoretsu

Edurne Arana da Aramaioko eguneko zentroak dituen zortzi erabiltzaileetako bat. 88 urte ditu, eta, GOIENAren deia jaso eta zer moduz dagoen galdetuta, hauxe da bere erantzuna: "Hobeto ezin, eguzki-eguzkitan hemen nago, kolorea hartzen!". Aramaio herri txikia izanda, aspalditxoan, nahi dutenean atera daitezke kalera, lasai, gainera –"inor ikusi gabe pasa daiteke urtebete"–, baina lehenago izan da bertan ere konfinamendu egoera zorrotza. Eta berak nola eraman duen? "Etxeko terrazan, paseoan. Hamabi bat metroko terraza daukat, eta paseatzeko ederto! Okerren egon dena ni moduan egon bada, ez da gaizki egon!". Horrez gain, eguneko zentrotik bidalitako lanak ere izan ditu egiteko. Umorez dio: "Larregi jarri dizkigute, egin gabe ere bueltatu ditut, ez dakit umeei hainbeste etxeko lan jarriko ote dizkieten".

Ramon Altuna, garajean, bizikleta estatikoan. EGUNEKO ZENTROA

Ramon Altuna, itzultzeko gogoz

Han ondo zaintzen dituztela eta, Edurne Aranak bezala, Ramon Altunak –78 urtekoa– ere badu gogoa eguneko zentrora itzultzeko. Altunari kirolak egin dio eramanerrazagoa konfinamendua; bizikleta estatikoa du garajean –kalean bizi da bera ere–, eta hantxe ibili da egunero: "Egunean ordubetez, ordu erdi goizean eta ordu erdi arratsaldean. Bestela, zoratu egin daiteke etxean egun osoan. Telebistarekin ere nekatu egiten da, beti gauza berarekin". Eguneko zentroko lanek kendu diote Altunari ere denboraren beste zati on bat, pare bat ordu egunero: "13:30etik 15:30era. Telebista ikusten baino hobeto!". Tokatzen denean, eguneko zentrora pozik itzuliko da: "Bada ordua han lanari ekiteko". Dio hasi dela beste erabiltzaile batzuk kalean ikusten, baina auzoetan bizi direnak ere faltan igartzen ditu.

Danel Herrarte, eskuinean, buruz buruko final ostean; ezkerrean, Asier del Campo. ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

Trinketa, aramaioarren gustuko modalitatea

Gipuzkoan ez bezala, Araban bada pilotarien artean trinketerako joera –asko egiten du instalazioa izateak; Gasteizen badira zenbait–. Hainbat aramaioar ibili izan dira, beraz, frontoi bereziotan euren trebezia erakusten. Danel Herrarte da azkenetakoa

J.I. ARAMAIO

Danel Herrarte 7 urterekin hasi zen pilotan, eta aurten, 15 urterekin, izan du lehen aldiz trinketa probatzeko aukera. Gustatu zaio esperientzia. "Agian, ezker pareta baino gustukoago dut", dio. Bi txapelketa jokatu ditu, Araba mailakoak: finalerdietara iritsi zen binaka, eta finalera buruz buru –galdu egin zuen, Legutioko Iñaki Cariñanosen aurka, alde handiarekin irabazten joan arren–.

Prestaketa handirik gabe joan zen Herrarte trinketeko bere lehen txapelketara, "aurretik entrenamendu bakarra eginda, berde-berde". Dena dela, ez zitzaion horren arrotz, aurrez anaia Jon eta beste batzuk ere jokatzen ikusita: "Aramaioarren batek finala-edo jokatzen zuenean, joaten ginen ikustera. Niri betidanik gustatu izan zait".

Eta dio nahikoa ondo moldatu dela hasieratik, nahiz eta ematen duena baino "are zailagoa" dela aitortu.

Jokoaren gakoak

Hainbat gauza izan behar dira kontuan eta egin behar dira ondo trinketean arrakasta izateko: "Sakea oso gauza inportantea da, sarera bidaltzea. Sake ona baduzu, partiduaren zati handi bat eginda daukazu. Kontrarioak erantzuteko lan zaila edukitzen du sarera bidaliz gero, boleaz sartu behar da edo... hori gakoa da. Horrez gain, teilatua du trinketak, eta teilatu gainetik pilota atzera bidaltzea ere oso inportantea da. Altuera askorik ez ematea ere bai; aurrean hartuz gero eman diezaiokezu altuera, baina beti bideratuta, ez frontoian modura; eta kontuz ibili behar da ezkerreko eta eskumako hormekin, atzeko partean teilatua baino apur bat gorago botata falta da eta. Argi ibili behar da frontoiko ohiturekin, hobe da pilotari zeharkako posturan ematea gehiago".

TRINKETA EZKER PARETA BAINO GEHIAGO GUSTATZEN ZAIOLA DIO DANEL HERRARTEK

Eskuineko horma da trinketaren beste berezitasun bat: "Batzuetan praktikoa da; egin daiteke bi pareta alderantziz, eskuineko pareta jo, frontisa eta sarera. Baina niri egin zait zaila, adibidez, ezkerrez moztuz gero eskuineko paretara; kristala izaten da, gainera, eskuineko pareta, arraro irteten da, eta nahikoa zaila egiten zait eramatea".

Buruz buru edo binaka jokatu ere, oso desberdina da: "Binaka, aurrelaria arduratu daiteke pilota sarean sartu ez dadin zaintzeaz edo hara sartzen bada ateratzeaz. Banaka, aldiz, bakoitzak eraman behar du dena. Sakean, adibidez, aurrean jarri eta sarera ez badoa, atzerantz joan behar duzu, eta alderantziz ere bai; norberak okupatu behar du frontoi osoa".

Alaiak erretiratuen elkarteak, "pazientziaz" itxaroteko deia

Aste hauetarako iragarrita zeuden ekintzen eta horien egoeraren berri eman du zuzendaritza batzordeak

J.I. ARAMAIO

"Bi hilabete osorik pasa ditugu alarma, krisi eta konfinamendu egoeran; aurrez ez dugu horrelakorik ezagutu. *Hirugarren* adinean gaudela eta, gaixotasun honen aurrean oso ahulak garela sinetsarazi digute", dio, hasteko, Alaiak erretiratuen elkarteak helarazitako oharrak. "Hala ere, jada hasiera eman diogu etxealdia leundu eta *normaltasunerako* itzulbideari".

Alaiak elkartekoek hainbat ekintza zituzten aste hauetarako, "guztiak garai hobearen zain": elkartearen eta Arabako erretiratuen elkartearen batzarrak ziren egitekoak; ortuari buruzko hitzaldia ere bai; karta-joko txapelketak; eguneko irteerak; *La ruta del Quijote* irteera –ez dute aurten egingo–; ekainaren 20an Aramaion egitekoa zen Arabako erretiratuen topaketa –ez dute aurten egingo–; kantu tailerra; podologia zerbitzua...



Otsaileko mus txapelketa. ALAIAK

Euskara hobetzeko ikastaroarekin, berriz, jarraitzen dute, aurrez aurrekorik gabe eta teknologiaren bidez bada ere. Ostantzean, "pazientziaz" itxaroteko dei egin du elkarteak.

Sexu joera guztien errespetua sustatzeko festibala

Laia Plazara ekimenak Yogurinha Borovaren *Sentipenak askatu* abestian oinarritutako bideoak bidaltzera dei egin die herritarrei: "Gehienez, minutu batekoa eta horizontalean grabatutakoa. Bideoan, dantzatu, abestu, playbacka egin, *Tik Tok* erabili... edo bururatzen zaizuna egin dezakezu, irudimena askatu!".

"LGTBI pertsonen eguneroko bizitzan dauden askotariko errealitateen ikusgaitasuna sustatzea, aske bizitzeagatik eta euren sexu-orientazioa edota genero-identitatea agertzeagatik paira dezaketen edozein motatako bazterkeria ekiditeko; gizartean aniztasunarekiko eta bizimodu desberdinekiko errespetua bultzatu nahi dugu", adierazi dute ekimenetik.

Euren webgunean daude parte hartzeko moduen gaineko xehetasunak.

Uribarriko elizako kanpandorrean eta kanposantuan, lanak

Gasteizko Elizbarrutiak kudeatuta, hainbat lan ari dira egiten Uribarriko elizako kanpandorrean, eta baita kanposantuan ere. Kanpandorrean garbiketa eta juntura lanak egiten ari dira. Gainera, dorrearen puntan dagoen gurutzea zuzendu egin dute. Ondoren, hilerriko horma bat konponduko dute, erortzeko arriskuan dago eta.

Uribarriko eliza. ARAMAIOKO UDALA

Salgai jarri orduko, agortu egin dira bonuak

Astelehenean jarri zituen salgai Udalak eta 50 euroko taloitegiak martitzenerako bukatuta zeuden. Terrazei ere harrera beroa egin diete herritarrek eta beteta daude egunotan; aste bukaerarekin batera taberna gehiago irekiko dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Merkataritza suspertze aldera ateratako bonuek arrakasta izan dute. Astelehenean jarri zituzten salgai eta lehen ordutik sortu zen ilara luzea horiek erosteko. Martitzen arratsalderako, salduta zeuden 50 euroko taloitegiak: 650, hain zuzen ere. Bigarren taloitegiak, 5 eurokoak, 16 urtetik beherakoendako dira eta horiek oraindik bazituzten atzo eguerdian, Arkupen. Hilero aterako ditu Udalak bonuak, eta hurrengoak ekain hasieran jarriko ditu salgai.

Terrazak, beteta

Tabernek jarritako terrazek ere arrakasta handia izan dute. "Lehen astean ez zuen eguraldiak lagundu, baina bete egin ziren, herritarrak elkartzeko gogoz zeuden seinale. Eta joan den aste bukaeran ez da egon lekurik inon", adierazi du Orly tabernako Igor Eskibelek.

Maiatzaren 11n, hamahiru bat tabernak ireki zituzten ateak herrian, astelehen honetan beste hiru inguruk, eta beste hainbatek dute zabaltzeko asmoa aste bukaeran; gutxi batzuk geratuko dira ekainerako. Udalak terrazak handitzeko aukera eskaini die, segurtasun distantziak bermatzeko: "Bezeroek badakizkite arauak, eta ez da egon arazorik", dio Eskibelek. Hala, orokorrean, "gustura" daude egunotako martxarekin, baina zerbitzua terrazetan eman beharrak lana asko handitu duela onartuta.

Ordutegi murriztua

Joan den domekan iragarri zuten Espainiako Gobernuaren ordezkariek 10.000 biztanletik beherako herrietan ez zela ordutegi murrizketarik izango; hau da, kirola egitera eta paseatzera gura den orduan joan ahal izango zirela herritarrak. Iragarpen hori indarrean izateko, baina, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, eta atzo, eguena, oraindik ez zegoen halakorik. Herriko udaltzainen ustea da –Ertzaintzako ordezkariekin hitz eginda– bigarren fasearekin batera jarriko dela hori indarrean, astelehenean.

Hainbat herritar bidali dituzte etxera egunotan: "Edozein ordutan dabiltza kirola egiten, eta gure lana da jakinaraztea ezin dutela halakorik egin. Isunik, baina, ez dugu jarri", diote.

Herriko Plazan jarritako terraza. MIRARI ALTUBE



IGOR ESKIBEL
ORLY TABERNA

"Lehen egunak zalantza askokoak izan arren, pozik nago. Plaza neuretzat izan dut egun batzuetan eta mahai asko jarri ahal izan ditut".



JON KEPA ZUBILLAGA
GUREA TABERNA

"Astean zabaldu dut eta herritarrak gerturatu dira poliki-poliki. Baina lan handia da bi terrazetan zerbitzua ematea bakarrik egonda".



AINTZANE AIZPURUA
LIE LURRIN-DENDA

"Itxialdian ez nuen pentsatzen halako harrerarik izango nuenik, zabaldu orduko etorri dira herritarrak. Bonuekin ordaintzen ere hasi dira".

Nerea Redondo Otamendi *coach*-a. TEILA FABRIKA

Emozioak lantzeko saioak egingo dituzte martitzenetan

Berdintasun Sailak antolatu du eta online ikastaroa izango da, Nerea Redondo Otamendi 'coach'-ak gidatuta

M.A. ARETXABALETA

Osasun krisiak sortutako egoerari erantzun nahian, adimen emozionala lantzeko ikastaroa antolatu du Udaleko Berdintasun Sailak, *Nola kudeatu egoera indartsu mantenduz?* izenarekin. Herriko emakumeei bideratu diete eta hiru saio egingo dituzte, martitzenetan (18:00-20:00): maiatzaren 26an eta ekainaren 2an eta 9an. Online izango dira horiek –*Jitsi.meet* plataformaren bidez– eta izena aurrez eman behar da mezu bat bidalita: *berdintasuna@aretxabaleta.eus*. Horretarako azken eguna domeka da, hilaren 24a. Izena emandakoei –*Jitsi.meet* plataformaren gida bat bidaliko diete saioetara arazo barik konektatzeko.

Hausnarketatik abiatuta

"Azken asteetan bizi dugun egoera berri honi aurre egiteko tresnak landuko dira", adierazi dute Berdintasun Sailetik, eta, horretarako, sentimenduei izenak jarri lehenengo, eta gero, horiek onartu eta kudeatzeko lan egingo dute: "Haserreak, beldurrak, segurtasun faltak eta tristurak, besteak beste, zer esaten diguten eta nola eraldatu horiek ikasiko da. Pedagogia feministatik abiatuta, bizitzarako tresnak indar ditzagun", gaineratu dute.

Nerea Redondo Otamendi soziologo eta *coach* profesionala izango dute gidari horretan: "Itxialdiak gelditzeko balio izan digu; horrek gure pentsamendua azeleratu egin du baina sentimenduetan ez dugu arreta jarri eta guk hor jarriko dugu fokua". Lan dinamikaren berri ere eman du: "Hausnartu egingo dugu, lehenengo, banaka zein taldeka, helburua izanik kontzientzia hartzea, ez epaitzea. Eta behin lanketa eginda, praktikan jarriko du norberak".

Euspot lehiaketaren sariak maiatzaren 28an banatuko dituzte

Ikus-entzunezko publizitate arloan euskararen erabilera sustatzea helburu duen Euspot lehiaketara 51 lan aurkeztu dituzte aurten. *Zer dago janzten dugunaren atzean?* izan da gaia eta maiatzaren 28an banatuko dizkiete sariak lan onenen egileei. Publikoak dagoeneko izan du lanik gustukoena hautatzeko aukera, eta 2.600 boto jaso dituzte.

Maileguan hartutako liburuak itzultzeko kutxa dago Arkupen

Liburutegiko arduradunek dei egin diete herritarrei maileguan hartutako liburuak itzul ditzaten. Horretarako kaxa bat jarrita dute Arkuperen atarian, 16:00etatik 20:00etara.

Liburutegiaren ateak noiz zabaldu ahal izango dituzten ez dakite oraindik, baina, laster izango denez, gertu egon gura dute ordurako.

Santa Kurtz kalearen proiektuari, ekarpen asko

Martxoan erakutsi zien Udalak herritarrei proposamena, eta bi aukera eskaini hautatzeko; 81 ekarpen eta 152 boto jaso zituzten orduan. Proiektua aurten idatziko dela iragarri dute, baina lanak atzeratu egingo dituzte, "egoerak behartuta"

Mirari Altube ARETXABALETA

Santa Kurtz kalea berriro urbanizatzeko asmoaren berri urte hasieran eman zuen Udalak, eta, ondoren, proposamena herritarrei erakutsi zien, haien iritzia jasotzeko. Bi aukera eskaini zizkien, eta bozkatuena hau izan zen: aparkaleku gehiago, 150era iritsi arte, eta zabalera txikiagoa oinezkoentzako guneetan, irisgarritasuna bermatuz. Herritarrek emandako 152 botoetatik 129 jaso zituen horrek, eta 21 besteak: aparkatzeko 132 plaza eta oinezkoentzako espazio zabalagoak –bi boto, zuri–.

Horrez gain, herritarren 81 ekarpen jaso dituzte, eta horiek Udalaren zerbitzu teknikoek aztertuko dituztela iragarri dute: "Bideragarritzat jotzen diren proposamenak proiektuan sartuko dira". Gehien errepikatu direnetako batzuk honako hauek dira: aparkaleku gehiago jartzea eta TAO ezartzea bertakoek lehentasuna izateko; Guridi kalearen inguruan kendutako zuhaitzak berriz landatzea; arrapala bat egokitzea Santa Kurtz 4. zenbakitik Otalora kalera jaisteko eskaileren ondoan; farola gehiago jartzea hainbat puntutan; lur azpiko gas depositua kentzea; radarra jartzea; eta estalitako jolas parkea egitea.

Proiektuaren gaineko azalpenak ematen Udal ordezkariak, martxoan. MIRARI ALTUBE

Proiektua aurten idatziko du Asmatu enpresak.

Lanak, atzeratuta

Udaletik adierazi dute lan horien helburuetako batzuk direla oztopo arkitektonikoak kentzea, espaloiak zabaltzea, erreiak estutzea ibilgailuen zirkulazioaren abiadura murrizteko eta oinezkoen eta autoen gidarien ikuspena hobetzea. Eta, bestetik, hornikuntza eta saneamendu sareak berritu egingo dituzte. Lanak aurten hasteko asmoa zuen Udalak, 2019ko gerakina erabilita, inbertsioa 1,8 milioi eurotik gorakoa izanik. Baina osasun krisiaren eraginez "gutxienez 2021era arte" atzeratu behar izan dituztela iragarri dute. "Udalaren inbertsio-ahalmena murriztu egin da COVID-19ak sortutako beharrei aurre egiteko, eta 2019ko aurrekontuaren soberakina funtsezko zerbitzuei eusteko ere erabiliko da", esan du Unai Elkoro alkateak, eta gaineratu: "Horrek ez du esan nahi berrurbanizatzea ez denik beharrezkoa, baina, oraingoz, mahai gainean uztera behartuta gaude".

Enpresa txikiendako laguntzak proposatu ditu EH Bilduk

Inbertsioetarako mikrokredituak eta zailtasunak dituzten negozioendako dirulaguntzak gura ditu, besteak beste

M.A. ARETXABALETA

Herriko ehun ekonomikoari "bultzada" emateko unea dela uste dute Aretxabaletako EH Bilduko kideek: "Zailtasunak dituztenei lagundu eta hobekuntzak egin nahi dituena laguntzea gure konpromisoa da". Horretarako, hainbat proposamen egin dituzte, eta alkateari helarazi dizkiote, eztabaidatzen hasteko.

Mikrokredituak

Batetik, aipatu dituzte mikrokredituak –20.000 euroko partida–; merkatariek, ostalariek, profesionalek eta enpresa txikiek "unean uneko beharrei" erantzuteko eta inbertsioak egiteko: "Likidezia ematea da helburua", adierazi dute EH Bilduko kideek. Interesik gabeko kredituak proposatu dituzte, aztertzekoen artean izanik 2021etik aurrera ordaintzen hasteko aukera.

Bestetik, likidezia duten enpresei inbertsioak egiteko ahalmenean laguntzea proposatu dute –80.000 euroko partida–, hobekuntzak egiteko: "Erakusleihoan moldaketak, irudi korporatiboa landu, promozio bereziak egin eta material berria erosi". Egindako inbertsioaren "ehuneko jakin batekin laguntzea" izango litzatekeela asmoa diote.

Hirugarren proposamena da bideragarritasuna bermatuta duten negozioen beharrei eusteko laguntzak –20.000 euroko partida–, eguneroko gastuei aurre egiten laguntzeko.

Ildo beretik, EH Bilduk uste du zaborraren gaineko tasa ez dagoela ondo zehaztuta eta "profesionalak kaltetzen" dituela, bereziki. Horregatik, sortutako hondakinen arabera, hainbat jarduerari zabor tasa "era iraunkorrean jaistea" proposatu dute.

Odola emateko aukera izango da martitzenean

Arabako Odol Emaileen unitate mugikorra bigarrenez izango da Aretxabaletan datorren martitzenean, maiatzaren 26an. Ohi legez, Durana kalean, plaza barrenean, egongo da autobusa herritarren zain, 16:45etik 20:00etara. Odol premiak bere horretan jarraitzen duela gogorarazi dute eta herritarrak ematera gonbidatu dituzte.

Santa Rita eguna ospatuko dute gaur parrokian

Santa Rita izango dute gogoan parrokiako kideek gaur, maiatzak 22, 19:00etan. Elizkizun xumea izango dela iragarri dute –kanturik ez da izango–, eta 52 lagunendako bakarrik egongo da lekua, ezarritako segurtasun neurriak betetzeko. Herritarrek estimu handian duten santua da, eta, ohiturari eutsiz, arrosak eramango dituzte bedeinkatzeko.



"Elikaduran eta naturan eragiten dute erleek"

ARIANE UNANUE ERLEZAINA

Ezti-batzea uztaileko lehenengo astean egingo du Ariane Unanue erlezainak. Ondoren, Lexargaratera eramango ditu erleak hurrengo bilketarako

Imanol Beloki ARETXABALETA

Erleek sortzen duten elikagai gozoa ekoizten bi urte daramatza Ariane Unanue aretxabaletarrak, eta, hain zuzen ere, kolore, zapore eta testura ezberdinak dituzten eztiak egiten ditu. Aurtengo loraldia asko aurreratu da, eta, eguraldia ez denez oso ona izan, produkzioan eragina izango du. Dena den, produktua batzeko gogoz dago. Hala ere, ez da bere helburua ezti kantitate handia lortzea, erleak zaintzen soilik gustura baitago, eta, kantitatea baino gehiago, kalitatea da lortu gura duena. Hala ere, urte hasieran aurreikusi baino ezti gutxiago jasoko duela gaineratu du. Eztiaz batera, propolia eta polen freskoa ere egiten du, Ezti-lur izenpean, eta ilusioz ari da.

Ariane Unanue Aretxabaletako erlezaina erlauntzekin. ARIANE UNANUE

Laster iritsiko da eztia jasotzeko garaia, ezta?

Erleek hainbat loralditara jo dezakete; horren arabera, eztiak kolore, zapore eta testura ezberdina izango du. Udaberrikoa, esaterako, argiagoa izango da eta udazkenekoa, berriz, ilunagoa. Lehenengo biltzea uztaileko lehenengo astean egingo dugu. Egun batean ezti guztia atera, filtratu, eta gero, poteetan sartu. Bertatik aterako dugun eztia suabea izango da, milaloretik datorrena baita. Gero, erleak basora eramango ditugu, Lexargaratera. Hala, iraileko lehenengo astean beste bilketa bat egingo dugu, eta ezti hori txilarrarekin edo mielatoarekin osatuta dagoenez, ilunagoa aterako da.

Nola hasi zinen erlezain?

Erleekin aritzea ez da gustukoa izaten pertsona askorentzat, beldurra ematen baitie. Edozelan ere, nik neuk beti izan dut kuriositatea erleekin aritzeko, eta halaxe hasi nintzen. Erleekin egotea gustatzen zait, egunetik egunera erlauntzen aldaketa ikustea... Horrekin batera, erleek elikagaiekin, naturarekin eta ingurugiroarekin erlazio handia dute, eta hortik abiatuta hasi nintzen; gero etorri zen eztia egitearena. Etxean harritu egin ziren hasiera batean, baina unibertsitatean erlezaina zen irakasle bat izan nuen, eta berarekin asko hitz eginda eta, batez ere, mutil-lagunak animatuta hasi nintzen.

"EZTIA BAI, BAINA EGUNETIK EGUNERA ERLAUNTZEN ALDAKETA IKUSTEA ERE GUSTATZEN ZAIT"

Zenbat erlauntz dituzu?

Aretxabaletan 25 erlauntz ditut, eta erlauntz bakoitzean 40.000 erle inguru egon daitezke, erreginaz eta erlamandoez gain. Aurten, loraldia aurreratu egin da, eta, horrenbestez, ikusiko dugu zenbat ezti batzen dugun. Edozelan ere, gainean egon behar duzu; bestela, erregina joan egiten baita, eta erlauntza ahuldu.

Hainbeste erleren artean, ziztadaren bat edo beste jasotakoa izango zara, duda barik, ezta?

Asko jaso ditut, bai; gorputz osoan zehar, eta baita aurpegian ere. Gorputzekoak ez dira nabariak izaten, baina aurpegikoak gehiago nabaritzen dira. Aritzen bazara, normala da ziztadaren bat edo beste jasotzea.

Liztor asiarren kaltea ere nabaritu zenuten.

Gure erleei kalteak eragiten dizkie liztor asiarrak, beraz, sortu ditzaketen kalteak gutxitzeko uda partean basora eramaten ditugu. Horrez gain, gainera, martxoaren bueltan tranpak jartzea komeni da liztor asiarren erreginak harrapatzeko. Erlea bioaniztasunerako ezinbesteko animalia da, eta ez digu, soilik, erlezainei kalte egiten, guztioi eragiten digu. Izan ere, kontsumitzen ditugun elikagaien herena erleek egiten duten lanarengatik dator...

Emaitzaren feedbacka jasoko zenuen herritarrengandik.

Hiru eztia mota batuko ditugu, erromeroarena, uztailean batuko dugun milalorearena, eta irailean batuko duguna, basokoa. Denbora gutxi daramat honetan, baina bertako eztia da, %100 naturala, eta probatu dutenek gustukoa izan dutela adierazi didate.

Joan den egubakoitzean, behi batzuk saihesbidean behera. GOIENA

"Animaliak errespetatu egin behar ditugu, eta lasai utzi"

Sorrarazitako uneagatik barkamena eskatzeaz batera, animaliekiko errespetua eskatu du behien jabeak

I.B. ARETXABALETA

Joan den egubakoitzean, ikusmina sortu zuten GI-627 errepidean ari ziren behiek, Aretxabaleta eta Arrasate arteko saihesbidean. Lehenengo, Almen ikastetxe inguruan ibili ziren, eta gero, Arrasateranzko bidea hartu zuten errepide erdi-erditik. Sustotxoren bat izan arren, ez zen zaurirurik izan. Hori bai, herritarrek gertaeraren bideoak grabatu eta sare sozialetan bolobolo zabaldu zituzten.

Horren harira, Galartza auzoko Zaloña Aurrekoa baserriko Ibai Alberdi behien jabeak barkamena eskatu gura izan du, herritarrei sorrarazitako uneagatik, baina, bide batez, "animaliak errespetatu" eta "kontzientziatu" beharra dagoela adierazi gura izan du.

Animaliei errespetua

"Animaliak dauden lekuan arriskua egon daiteke; beraz, hesiak ez dira hautsi behar, ezta gainetik pasa... jendea arriskuan jarri dezakete. Bideoan, ganadutik oso gertu dago autoa, eta, hala, behiak eramaten ari da; tarte gehiago utzita, agian, beraiek egingo zuten alde batera...".

NIRE USTEZ

PALOMA MARTINEZ

Kaleko babesa

Umea nintzenean oso arrunta zen umeari jotzea. Zigorra normalena zen. Etxean lau seme-alaba ginen; ama etxean, aita lanean. Dirua inoiz ez zen ailegatzen denetara. Tentsioa usaindu genezakeen. Eta lau umeak, etxean, jolasean... Ba, batzuetan, tokatzen zitzaigun egurra jasotzea. Gau batzuetan, ondo berotuta, ilunpean, lokartzea.

Egun hauetan gogora etorri zaizkit garai hartako bizipenak. Hotzikarak sartzen zaizkit gorputzean, garai hartan etxean bi hilabete jarraian egotea nola izango zen pentsatzen hasten naizen bakoitzean. Izan ere, askotan askatasun eta segurtasun handiagoa geneukan kalean eta eskolan, etxean baino.

Hemen nago, Aretxabaletan, etxean, hiru umerekin, babestuta, aske. Beste garai batean bizi gara. Niretzako, beste mundu baten. Hala eta guztiz ere, ezin ditut galdera hauek nire burutik kendu: zenbat emakumek, zenbat umek behar dute babesa? Zenbat ume daude kalera eta eskolara joateko irrikaz, babestuta eta aske sentitzeko?



Herriko elkarte eta eragileetako ordezkariak udalbatzako zenbait kiderekin eta teknikarirekin batuta. ARANTXA UNZUETA

Urratsak egiten hasi da 'Eskoriatza bizirik'

Eskoriatzako Udalaren martxan jarri berri duen egitasmoak herriko kultura talde eta eragile guztiak batzea eta elkarlana sustatzea du helburu. Hala, proiektuaren nondik norakoak azaltzeko aurkezpena egin zuten martitzenean, bideo-dei bitartez

Imanol Beloki ESKORIATZA

Herriko elkarte eta eragile ezberdinetako ordezkariak Eskoriatzako udalbatzako zenbait kide eta teknikarirekin batu ziren martitzenean, bideo-dei bitartez, *Eskoriatza bizirik* proiektuaren berri emateko. Egitasmo honen funtsa da herriko elkarte eta eragileak batzea eta, herrian egingo diren ekintzak gainjarri barik, elkarlana sustatzea.

Eskoriatzako musika bandako, Olazar Erretiratuen Elkarteko, gaztelekuko, ludotekako, talogile elkarteko, Atama Kenpo Eskoriatza taldeko, San Pedro eta Intxaurtxuetako jai batzordeko, Txistulari eta Trikitixa Eskolako, Eskomotor-eko, talde feministako, Beheko Errota musika eskolako, Atxorrotx Kultura Elkarteko, Arizmendi eta Luis Ezeiza ikastetxeetako, eta abarreko ordezkariak izan ziren bileran, eta, gaur egungo egoera ardatz, aurrera begira Eskoriatza sozialki, ekonomikoki eta kulturalki indartzeko eta ideia berriak batzeko lehenengo batzarra egin zuten.

Partaideak "gogotsu"

Antonio Regaño zinegotziak adierazi duenez, "egoerarekiko jarrera baikorra" erakutsi dute partaide guztiek, eta proiektuaren "ideiarekin ados eta gogotsu" daudela adierazi du: "Herrian egin izan diren zenbait ekintza hutsetik hasita antolatu izan ditugu, eta, horiek erreferentzia moduan, aurrera begirakoak modu berean antolatzea da asmoa. Hala ere, talde guztien partaidetza eta laguntzarekin. Hala, begi onez ikusi dute egitasmoa, eta aldizkako bilerak egitea da hemendik aurrerako asmoa. Talde bakoitzak bere ekarpena egingo du, eta egutegi bat finkatu nahiko genuke egin gura diren ekintzak zehaztuz".

'ESKORIATZA BIZIRIK' PROIEKTUA INDARTZEKO ALDIZKAKO BILERAK EGINGO DITUZTE

Lehentasunak markatuz

Kulturaren garrantzia azpimarratzekoa dela adierazi arren, herritarrek dituzten arazo ekonomikoek eta osasunak dutela lehentasuna adierazi gura izan du Regañok: "Pertsonen ongizateak izango du lehentasuna, baina, gero, herriko komertzioak indartzeaz batera, ekintza kultural, sozial eta kiroletakoak indartu gura genituzke. Jaiek itxaron dezakete. Udalaren aurrekontua ere jaitsi egingo da, eta hori jakin arte ezingo dugu gauza handirik egin...".

Jaietarako zer egin jakin barik

San Pedro jaiak bertan behera geratuta, ekintzaren bat edo beste antolatzeko nahia ere adierazi dute, baina, egoerak baldintzatuta, zehaztekotan utzi dute.

Jose Arana egoitzan ez dago koronabirus kasu aktiborik

Dena ondo bidean ekainaren 8an hasiko direla egoiliarrak bisitak edukitzen aurreikusten dute

I.B. ESKORIATZA

Martitzenean Gipuzkoako Foru Aldundiak eman zituen azken datuen arabera, Jose Arana egoitzako egoiliar bat izan da Gipuzkoako egoitzetan sendatu den azkena. Hala, "egoera lasaitu" egin dela adierazi dute egoitzatik.

"Bi kasu positibo izan ditugu, eta momentu honetan ez daukagu kasurik ez egoiliarren ezta langileen artean ere. Honek lasaitu egiten gaitu egoitza osatzen dugun guztiok. Izan ere, langile guztien inplikazioa izugarria izan da, eta lan ona egin da. Bi hilabete hauek luzeak eta neketsuak izan dira; batez ere, egoiliarrentzat: familien falta, ezjakintasuna, eta abar. Hala eta ere, familiak lasaitasuna transmititzen saiatu dira, eta, egoitza sektorizatzean, egoiliarren eta langileen arteko harremanak asko estutu dira", adierazi du Mireia Larrañagak, Jose Arana nagusien etxeko arduradunak.

Arintze-fasea aztertzen

"Diputaziotik pauta orokorrak bidali, eta gure egoitzara egokitu beharko ditugu hemendik aurrera. Dena ondo joanez gero, ekainaren 8an hasiko dira egoiliarrak bisitak edukitzen...".

Eskoriatzako Jose Arana nagusien egoitza. GOIENA

%40ko zerbitzua eskaintzen ari dira Tortolis ludotekan

Bideo-dei bidez komunikatuta, gauza mordoa egiteko aprobetxatu dutela adierazi dute arduradunek

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Tortolis ludotekan bideo-dei bidez jarraitu dute zerbitzua eskaintzen. Hezitzaileek ordutegia murriztu arren, gauza mordoa egiteko aprobetxatu dute, zenbait ariketa eta jolas eskainiz, eta kontaktuan jarraitu dute haur guztiekin.

"Etxean egiteko errezetak, eskulanak, ipuinak, kantuak eta bestelako zenbait ariketa dibertigarri eskaini dizkiegu Tortolis ludotekako haurrei", adierazi du Nekane Atxagak, bertako arduradunak. Horrekin batera, zerbitzua ematen jarraitzea "ezinbestekoa" izan dela gaineratu gura izan du: "Bideo-dei bidez egon gara haurrekin egunero, eta gurasoekin, berriz, Whatsappez komunikatu gara. Taldekako saioak egin ditugu, eta baita bakarkakoak ere. Batez ere, euskara errefortzua behar duten horiekin egin ditugu bakarkako saio horiek. Beraiekin dugun harremana, eta euren artean dutena jarraitzen segitzea oso inportantea dela uste dugu, eta, egoera oso berezia den arren, egokitu garela uste dut".

"Musika eta antzerkia uztartzea ez da samurra"

JESUS PEREZ MUSIKARIA ETA ANTZEZLEA

Jesus Perez eskoriatzarrak Patxi Rama lagunarekin batera 'Corazón salvaje' kantua sortu eta bideoklipa egin berri du. Emaitzarekin "gustura" geratu dela adierazi du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ahots urratua ardatz, melodia goxoekin bustita, eta erritmo lasaiari jarraiki, Jesus Perez *Suso* eskoriatzarrak *Corazón salvaje* kantua sortu du, eta Patxi Rama musikari gasteiztarrarekin batera bideoklipa grabatu. *Eskoriatza bizirik* Youtube kanalean ikusgai dago, eta, emaitzarekin "pozik", deskantsu pixka bat hartu nahi du lan hau amaitu berri. Hala ere, aurrera begira beste proiekturen bat martxan jartzea ere badela bere asmoa adierazi du.

Internetera igo duzuen bideoklipak ze harrera izan du?

Gasteizko Dorian Guitar musika instrumentu dendan hasi nintzen gitarra jotzen ikasten, eta bertan ezagutu nuen Patxi Rama. Ordutik, batera aritu gara ikasten eta sortzen. Hori horrela, konfinamendua hasi aurretik grabatu genuen *Corazón salvaje* kantuaren bideoa eta emaitzarekin gustura geratu gara. Bereziki, gertuko jendearentzat eta amarentzat zuzenduta egindako proiektua izan da.

Zure musika jendaurrean eskaini duzun lehen aldia izan da hau?

Iaz, Bea Rubiorekin batera Lorcaren bueltako irakurketa bat egin behar genuela, Marea taldearen *La ciudad de los gitanos* kantuaren bertsioa jo nuen, baina ez dut jo zuzeneko askorik. Hala ere, ez dut baztertzen zuzenean jotzea edota, Internetera begira, egin berri dugun moduko beste lan bat egitea.

Jesus Perez musikari eskoriatzarra. JESUS PEREZ

"EZ DUT BAZTERTZEN ZUZENEAN KONTZERTU BAT JOTZEA EDO BESTE BIDEOKLIP BAT EGITEA"

Musikaz gain, antzerkian ere aritu zara. Oholtza gustuko duzun seinale.

Ez pentsa. Oholtza gainean presio handia izaten dut, urduritasuna, eta asko prestatu beharra dago. Hori horrela, @remociones Eskoriatzako Antzerki Taldean aritu naizenetan gustura aritu naiz, baina pixka bat utzita dut. Beti nago eta egongo naiz prest taldekideek nahi dutenerako, baina erritmo lasaiagoan. Musika, antzerkia, erreleboetara lan egitea... lasai hartu beharra dago.

Arrakasta oholtza gainean ere

Musika sortzeaz batera, ez da geldi egotekoa Jesus Perez, eta @remociones Eskoriatzako Antzerki Taldeko kide ere bada; taldeko gizon bakarra da.

Arrakasta duen obra

Eskoriatzarrez osatutako antzerki taldea hasiberria den arren, Zaldibar antzokia bete izan dutez zenbait bider *Desbloqueadas* lanarekin.



Taldeko kideekin batera, ezkerrean, Patxi Perez oholtzan. GOIENA



Rafa Carriet, etxetik saioa eskaintzen. BEUP

Etxean egiteko ariketak eskaini ditu Rafa Carriet entrenatzaileak

Atama Eskoriatza taldeko borrokalariak denboraldia prestatzen ari direla adierazi du Carrietek

I.B. ESKORIATZA

Rafa Carriet Atama taldeko entrenatzailea eta arte martzialen, borroka kiroletako eta babes tekniken aholkularia zenbait klase aritu da ematen, online, sasoiari eutsi eta entrenatzeari ez uzteko.

"Atama taldeko kideentzat zenbait bideo egin ditut, eta horiek bidali dizkiet, ariketak egin ditzaten. Horrekin batera, Espainiako Kenpo Selekzioarentzat asteroko saioak eskaini ditut, online. Ariketa horiek egiteko plataforma ezberdinak erabili ditut. Ez da modu berean entrenatzen, eta arraroa da; interakzioa egotea oso garrantzitsua da, eta itsuan egiten duzu lan. Hala ere, esperientzia berria eta interesgarria izan da", adierazi du Rafa Carriet entrenatzaileak.

Rato eta Beloki, prestatzen

Atama taldeko Leire Rato eta Mikel Beloki, berriz, denboraldi berria prestatzen ari direla gaineratu du Carrietek. "Leire topera ari da lanean eta Mikel, berriz, sorbaldako operaziotik errekuperatzen ari da, bakoitza bere entrenamendu planarekin".

'Inora ez zihoan bidea' ipuinaren kontaketa jendaurrean

Eskoriatzako Udal Bibliotekak Maite Franko ipuin kontalariaren *Inora ez zihoan bidea* izeneko ipuina jarri du *Eskoriatzako Biblioteka* Youtube kanalean entzungai.

Lau urtetik gorako haurrentzat zuzenduta dagoen kontaketak ordu laurden inguru irauten du, eta Gianni Rodari idazle eta pedagogo italiarraren ipuina da. Hilabetez egongo da ikusgai, eta kontaketa honekin, herritarrak animatu gura dituzte bibliotekatik liburu edo musika gomendioak, ipuin kontaketa, edo bestelakoak bideo labur batean horizontalean grabatu eta *biblioteka@eskoriatza.eus* helbidera bidaltzen.

Matrikula zabaldu dute Beheko Errota musika eskolan

Musikak duen garrantzia azpimarratuz, Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolak matrikulazioa zabaldu du aste honetan, eta uztailaren 15era bitartean egongo da irekita.

2020-2021 ikasturtera begira 4 urtetik gorako edozeinentzat zuzenduta dago, eta musika instrumenturen bat jotzen ikasi nahi duenak zenbait datu bidali beharko ditu, *musikesko@hotmail.com* helbide elektronikora idatziz edo telefonoz deituta 943 71 49 95 zenbakira. Bidali beharko diren datuak honako hauek dira: izen-abizenak, adina eta jaiotza-data, ikasi nahi diren ikasgaien izena, eta kontakturako telefono zenbaki bat.

Kortazar familiak egindako lana indarra hartzen ari da

Fermin Muguruzak begi onez ikusi du eskoriatzarrek egindako muntaia, eta sare sozialetan partekatu

I.B. ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako playback txapelketan aurkeztutako hamar lanen artean garaile izan zen Kortazar familiaren lana. Bertan, Kortatu taldearen *Aizkolari* kantua oinarri izanda zenbait bideo grabatu zituzten, eta abestiari erantsi. Horrekin batera, Kortatu taldearen lehen diskoko azala moldatu, eta *Kortazar* idatzi zuten, bideoklipari hasiera emateko. Hala, Kortatu talde mitikoko abeslari ezagunari, Fermin Muguruzari, ere iritsi zaio eskoriatzarrek egindako lana, eta Facebook sare sozialean konpartitu du.

Kortazar familiaren muntaia. IÑAKI KORTAZAR

Arrakasta areagotzen

Cacereskoa den Psicopompo liburu-denda kafetegiak ere kontaktuan jarri dira Kortazar familiarekin, diskoaren azalarekin egindako muntaia gustatu egin zaielako.

Hala, tamaina handian eskatu diete Kortatu diskoaren azalarekin egindako muntaia, "liburu-dendan Kortatu eta Kortazar zale amorratuak direla" adierazita.

KARMELO OÑATE

Jaitsiera berriak probatzen

Arroila-jaitsierak egiten zalea den Karmelo Oñate eskoriatzarra lagun batekin batera Elorreta auzotik pasatzen den Bolibarko errekan barrena aritu da egunotan. Bi ur-jauzi eta salto bat izan dituzte bertan, eta, sokak hartuta horiek jaisteko aprobetxatu dute. Aurrera begira, errekan gora egitea dela asmoa adierazi du, leku berriak bilatzeko gogoz.

"Bertakoa ezagutzeko aukera dugu orain"

Gaztainuzketa mendi-etxeei gogor eragin die COVID-19 gaitzak. Izan ere, erreserba asko bertan behera geratu zaizkie eta data aldaketak ugari izan dituzte. Hala ere, positibo ageri dira jabeak, eta egoerak hobera egingo duelakoan daude

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Zeanuriko Randa Farhat-ek eta Kepa Atutxak iaz hartu zituzten Gaztainuzketako mendi-etxeak, eta, bertako funtzionamendua eta beste zenbait aldaketarekin batera, abendurako lau mendi-etxe jarri zituzten erabilgarri. COVID-19ak gogor eragin die beraiei ere Leintz Gatzagan duten negozioan, eta, beharrezko segurtasun neurri guztiak hartu dituzten arren, erreserbak bertan behera utzi edo atzeratzea eskatu duten bezero ugari izan dituztela adierazi dute. Hala ere, zabalik daude mendi-etxeak pandemia hasi zenetik, eta jabeek aurreikuspen positiboak dituzte aurrera begira.

Gaztainuzketako mendi-etxe bat. GAZTAINUZKETAKO MENDI-ETXEAK

Neurri guztiak hartuta

"Azkenaldian inor izan ez dugun arren, zabalik izan dugu Gaztainuzketako mendi-etxeetako zerbitzua. Guk argi geneukan segurtasun neurri guztiak bete genitzakeela, baina beldurra dago, eta pazientziaz hartu beharko dugu, egoera normalizatu arte. Bizi dugun egoera larria izan arren, ahalik eta zerbitzurik onena eskaini nahi diegu bezeroei. Besteak beste, *contactless* deritzon teknologiaren aldeko apustuarekin, mendi-etxeetako giltza kode batekin hartzen dute bezeroek, erreserbak eta ordainketak online egin daitezke...", adierazi du Kepa Atutxak, Gaztainuzketa mendi-etxeetako jabeak.

Alde positiboa

Atutxak gaineratu gura izan du euskal herritar askok Estatutik kanpora bidaiatzeko ohitura eta gogoa izaten dutela, baina, egoerak baldintzatuta, bertakoa ezagutzeko aukera aparta izango dela horrela uda partean: "Probintzian barrena ibili daiteke orain, alde batetik bestera, eta gauzak hobetzen joango direlakoan nago. Hala, hasiera batean, Gipuzkoako jendeari dei egin nahi diogu bertara etorri dadin, hemengoek bertako inguruak ezagutu ditzaten. Aurrerago espero dugu Euskal Herri osoko jendeak aukera izatea hemen duguna ezagutzeko...".

Jatetxeko zerbitzua

Hasiera batean, ez zuten aurreikusten jatetxeko zerbitzurik eskaintzea, baina mendi-etxeetan dauden bezeroentzat eskainiko dute plater hotzen zerbitzua.

Museoen Nazioarteko Eguna izanda, bisita birtuala jendaurrean

Astelehenean izan zen Museoen Nazioarteko Eguna. Hori horrela, Leintz Gatzagako Gatz Museoa nolakoa den erakusten duen bideoa argitaratu dute Youtube plataforman. Ikus-entzunezkoan, historian zehar *Leintz gatza* nola erauzi den erakusten da, eta gaur egun nola egiten duten ezagutzeko aukera ematen du. "Museoen Nazioarteko Eguna izanda, interesa duen orori opari gisa egin dugun lana izan da. Hala, *Gatz museoa, bisita birtuala* izenpean irudi ikusgarriak, gertukoak, eta bertan egiten duguna ikusi eta ikasteko bide ematen duen ikus-entzunezkoa da", adierazi du Jon Errastik Gatz Museoko langileak.

Horrekin batera gaineratu gura izan dute "gauzak ondo bidean", ekainaren 6an irekiko dituztela ateak, eta bisita gidatuak egiten hasiko direla, aurrez, erreserbak eginda.

OHARRAK

Aurrez aurrekoa

Udalaren aurrez aurreko zerbitzua astelehenetik zabalik dago. Hala ere, izapideak, ahal bada, telefonoz, posta elektronikoz edo telematikoki egiteko eskatu dute.

2020ko aurrekontuak

Udalbatzako kideek aurreikusten dute hilaren amaieran onartuko dituztela 2020ko aurrekontuak.

Zubieta kalea, otsailean ateratako argazkian; COVID-19aren aurretik, lanak azaroan hastea zegoen aurreikusita. JOKIN BEREZIARTUA

"Astindu ekonomikoak" eraginda, "lehentasun berriak" aurrekontuan

Urtarrileko aurrekontuarekiko ia lau milioi euroko defizitarekin eta arlo guztietan behar berriak sortu diren garaiotan proiektu esanguratsu batzuk atzeratu behar izan ditu Udal Gobernuak; adibidez, azaroan exekutatzen hastekoa zen Zubieta kalearen eraberritzea

Jokin Bereziartua BERGARA

Aurreikustekoa zen eta asteon ziurtatu du Udal Gobernuak: COVID-19aren krisiak hankaz gora jarri du urtarrilean onartu zen udal aurrekontua. Hain zuzen ere, astelehenean aurkeztu zituen Gobernuak krisiari aurre egiteko neurriak. Aurreikusita zeuden inbertsio garrantzitsuenetako batzuek itxaron egin beharko dute; besteak beste, Zubieta kalea berriro urbanizatzeko proiektuak eta Agorrosin berrirako proiektuaren idazketak –beraz, Agorrosin berrirako lanak ere atzeratu egingo dira–.

Lau milioi euroko defizita

2020rako onartuta zegoen udal aurrekontua 25,2 milioi eurokoa zen, eta krisiaren ondoren aurrekontu erreala 21,3 milioi eurokoa izatera pasatuko da. Hau da, hasierako aurrekontuarekiko defizita ia lau milioi eurokoa izatera pasa da, 3,9 milioikoa. "Horren aurrean, departamentuz departamentu berrikusten dihardugu zein egoeratan dauden diru sarrerak eta gastuak, gaurko egoerari erantzungo dioten aurrekontu errealistak osatzeko. Lehentasun berriak ezarri dira, eta, horretarako, zenbait inbertsio mahai gainean utzi beharko dira", esan zuen Gorka Artola alkateak.

1,5 milioi euroko kreditu eskaera

Artolak gogora ekarri zuen Udalak hainbat inbertsio lehenagotik konprometituta zituela –2,5 milioi euro–, eta horiekin aurrera egingo dutela. Hain justu ere, horrek moldaketak egiteko "aukera txikia" uzten die: "Inbertsioetan egoten da gastuen arloan moldaketa esanguratsuak egiteko aukera, eta 2,5 milioi euro jada konprometituta baldin baditugu, moldaketak egiteko aukera txikia dugu".

LAU MILIOI EUROKO DEFIZITA IZANGO DUTE ETA 1,5 MILIOI EUROKO KREDITUA ESKATZEA DA ASMOA

Horregatik azaldu dute 1,5 milioi euroko kreditu bat eskatzeko asmoa dutela: "Egoera berriaren defizitera egokitu ahal izateko kreditu bat eskatzeko beharra ikusi dugu".

Inor atzean ez uztea lehentasun

Bestalde, Udalak 2,3 milioi euro inguruko gerakina zuen 2019tik. Hortik zati handi bat Zubieta kalea berriro urbanizatzera bideratzeko asmoa zegoen; lanen helburua izan behar zen kalearen irisgarritasuna bermatzea eta segurtasuna hobetzea. Lanak azaroan ziren hastekoak eta 2020an milioi bat euro pasa bideratu behar zuten; aurtengo kontuetatik 200.000 euro inguru bideratzea zen asmoa, lehen faseak duen milioi bat euro pasatuko aurrekonturako geratzen dena udal gerakinetik hartuta. Udal Gobernuak azaldu duenez, beste 1,3 milioi seminario azpiko parkinga egin beharko balitz gordetzeko konpromisoa hartuta zuten...

Alkateak, baina, orain beste lehentasun batzuk egongo direla esan zuen asteleheneko agerraldian: "Gerakineko dirua sortutako behar berriei erantzutera eta udal kontuen defizita estaltzera bideratu beharra izango da". Azaldu zuen pertsonak direla, "orain inoiz baino gehiago", erdigunean jarri behar direnak: "Eta, bergararrak bazterrean ez lagatzea da gure lehentasun nagusia".

LEHENTASUN NAGUSIA DA, DIOTENEZ, INOR ATZEAN EZ UZTEA: "PERTSONAK BEHAR DITUGU ERDIGUNEAN"

Terrazak: ostalarien konpromisoa

Herriaren "biziberritze ekonomikorako" neurrien artean dago Udal Gobernuak ostalariei azken egunotan proposatu dien terrazak ez kobratzeko neurria: "Prest gaude tasa hori ez kobratzeko abenduaren 31ra arte, ostalariek elkar lankidetzarako eta elkar laguntzeko konpromisoa hartuko balute". Ostalariei eskatu diete terrazaren kokapenaren proposamena bideratzea "lehenbailehen", honako helbide honetara: *garapena@bergara.eus*.

Honako hauek dira terraza jarri ahal izateko bete beharreko baldintzak: oinezkoentzako pasoa gutxienez hiru metrokoa izatea; mahaien arteko distantzia bi metrokoa –mahai baten aulkitik aldameneko mahaiaren aulkiraino–; mahaien arteko pasoa ziurtatuta egotea; mahai bakoitzean lau aulki egotea soilik; mahaiak elkartu bai, baina asko jota hamar lagun elkartzeko; oinezkoen pasoa bermatzea; larrialdietarako pasoak baimentzea; eta mahai kopurua gehienez hamarrekoa izatea.

Egoera ekonomikoaren azken argazkia

Aurrekontu berrian aurreikusten diren inbertsioak:

- Ibargaraiko zati bat eta Amillaga kalea berriro urbanizatzea.
- Labegaraietako kiroldegiaren bigarren fasea gauzatzea.
- San Martin eskolako leihoak aldatzea eta haur eskolan ataria.
- Albitxuko ur-hoditeria berritzeko lanen bigarren fasea.
- Ortu komunitario bat.
- Txakur parke bat.

Aurrekontu berritik kanpo geratzen diren inbertsioak:

- Zubieta kalea berriro urbanizatzea.
- Agorrosin Berriaren proiektuaren idazketa (ikus 27. orria).
- Jolas parke estalia.

Udalaren diru sarrerak "bereziki" non jaitsi diren:

Foru fondoa: 2.102.311 euro.

Agorrosin Kirol Gunea: 580.000 euro.

Atzeratutako eta suspenditutako zergak eta tasak: 90.000 euro.

Beste sarrera batzuk –obren gaineko zerga; aprobetxamenduak; kale okupazioak, IAEn jaitsiera...–: 1.100.000 euro.

COVID-19agatik "nabarmen" igo diren Udalaren gastuak:

- **Gizarte zerbitzuak** Gizarte Larrialdietarako diru izendapena 63.000 euro handitu da eta agortzear dago. Berriz handituko da.
- **Etxez etxeko zerbitzua** Beharrak hazi litezke eta horri aurre egiteko lerroak handitu beharra aurreikusten da.
- **Babes neurriak** EPIak eta langileendako neurriak: 21.400 euro.
- **Kale desinfekzioa** Desinfektatzeko produktuak eta tresnak: 30.000 euro inguru –maiatzera arte–.
- **Aktibitatea berraktibatu** Diru-laguntza lerroa: 340.000 euro.
- **Behar berriak** Lerro berriak sortu beharra ere aurreikusten dute.

Agorrosin berria eperik gabe atzeratu du birusak

Udalak eta BKEk duela urtebete sinatutako hitzarmena betetzea galarazi egingo du COVID-19ak, eta inkognita bat da noiz garatu ahalko den proiektua, finantzaketa delako arazo nagusia. "Gaizki-ulertuez harago", lanean segitzeko asmoa agertu dute bi aldeek

Jokin Bereziartua BERGARA

Astelehenean egin zuen publiko Udal Gobernuak, COVID-19agatik udal aurrekontua berrantolatu behar izan dutelako, Agorrosin berriaren proiektuak itxaron egin beharko duela. 2019an Udalak eta Bergara Kirol Elkarteak sinatu zuten hitzarmenean jasotzen zen, besteak beste, beranduenez 2023rako izango zela artifiziala Agorrosingo berdegunea. Gobernuak atzerapenaren berri eman eta gutxira, "harridura" erakutsi zuen BKEk, atzerapenaren berri "prentsaz" jaso izanagatik. Diote pandemiak proiektuan izango zuen eragina kontuan hartuta bazekitela hitzarmena bere horretan betetzeko "arazo handiak" izango zituztela. Hala ere, diote apirilean Udaleko ordezkariekin izandako bileran Udalak "aurrekontuen berregituraketa" abiatzeko asmoa azaldu ziela, sortutako gastu berriak eta sarreretan aurreikusitako jaitsiera kontuan hartuz, izango duten inbertsio ahalmena ezagutzeko.

Proposamena "begi onez" ikusi zuen BKEk eta diote "babesa" eta hitzarmenean aldaketak egiteko "disposizio osoa" erakutsi zietela. Horrez gain, azterketa bat egin ostean maiatzean Udalarekin "berriro biltzea" adostu zuten, eta "zain" jarraitzen dutela adierazi dute.

Agorrosin berria irudikatzen duen zirriborroaren plano bat. IZASKUN LARZABAL

BKE: "Birplanteatu beharra dago"

Agorrosin berrirako arazo nagusia finantzaketa izan da hasieratik. 2018ko uztailean BKEk aurkeztu zuen proiektuaren zirriborroan hiru fase aurreikusten ziren, 1.670.069 euroko aurrekontu estimazio batekin. Orain, kostuari dagokionez, Udalak "informazio guztia" ematea gustatuko litzaiekeela azpimarratu dute BKEtik: "Hasiera baten, 55.000 euroko partida bat onartu zen aurrekontuan proiektua idazteko. Eremuak ematen dituen aukerak aztertuta, Udalak Agorrosin Gunea eraberritzeko eta zerbitzu berriak sartzeko aukera planteatu zigun, begi onez ikusi genuena. Hori izan da proiektuaren idazketa kostua 120.000 euroraino igotzearen arrazoia". Horrez gain, BKEtik diote hartu beharreko erabakiak "adostasunean" hartu gurako lituzketela: "Proiektua birplanteatu beharko dugu, fase gehiago planteatuz eta egoera berrian kokatu, futbolean jokatu nahi duten neska-mutiko guztiek beharrezko instalazio eta aldagela duinak izateko eta herritarrak kirola egiteko eremu berri bat izan dezaten".

Gobernua: "Orain ez da posible"

Gobernuak ere "harriduraz" hartu du BKEren haserrea, eta azaldu dute prentsaren bitartez ezer jakinarazi aurretik zuzendaritzako kide bati zuzenean deitu ziola alkateak. Gaizki-ulertuez harago, Gobernuak dio proiektuaren idazketa lizitaziorako prest zegoela eta martxoaren 17an batzordetik pasatzekoa zela. Baina orduan heldu zen alarma egoera, eta, tramiteak etenda, kontratazioa bertan behera geratu zen: "Proiektu honek BKErendako duen garrantziaz jakitun, bilera baten egoeraren berri eman eta aurreikuspenak zeintzuk ziren argi azaltzen saiatu ginen". Proiektuaren idazketak, hitzarmenaren arabera, datozen urteetarako Udalari 1.000.000 euroko konpromisoa hartzea dakarkio: "Argi esan zen gaur egungoa bezalako egoera ezegonkor batean konpromiso hori lotzea ez dela posible".

Arazoen gainetik elkarlanerako dei egin du Gobernuak: "BKEren oharrean ondo adierazten zenez, ez da eztabaida antzuetarako garaia, elkarlana inoiz baino beharrezkoagoa da eta oraingoa bezalako gaizki-ulertuen gainetik hauek konpontzeko ahalegina guztioi dagokigu".

HIRU FASETAN EGITEA AURREIKUSTEN ZUEN ZIRRIBORROAK: AURREKONTUA 1.670.069 EURO ZEN

Labegaraieta berria, 2021ean gertu

Udal ordezkariak Labegaraietan. B.U.

Dena ondo bidean, Labegaraieta berria 2021erako gertu egongo da. Kiroldegia berritzeko lehen fasea amaitzear dago eta bigarren fasea, eraikin nagusia barrutik eraberritzekoa izango dena, Artzamendi enpresari esleitu diote, 1.502.396 eurotan –BEZa barne–. Bigarren fasea maiatza bukatu aurretik hasiko dute eta aurreikuspena da lanak urte bukaerarako amaitzea. Sarrera aldatuko dute, eserlekuak eta taberna berrantolatu, kantxako lurra aldatu, biltegiak egokitu, rokodromoa birmoldatu eta aparkalekutik kantxarako sarrera hobetu. Artzamendi enpresak lizitazio oinarritik 38.000 euro jaitsi du aurrekontua eta "hainbat hobekuntza" aurkeztu ditu: kantxan markagailu modernoagoa jarriko dute; espazio anitzetako altzariak jarriko dituzte; zubi-garabiaren kanpo aldeko egituran hobekuntzak egingo dituzte; eta rokodromo itxian aroztegi metalikoa jarriko dute.

Arrakala digitalaren aurrean, konexioa eta ordenagailuak

Arrakala digitalari aurre egiteko asmoz, Udalak ordenagailu eramangarri batzuk eta Interneterako konexioa ahalbidetu die horretarako aukerarik ez duten ikasleei. Udalaz gain, Soraluce enpresak ordaindu du 33 ikaslek konexioa izatea –4.000 euro– eta Danobat Group taldeak 6.000 euro eman ditu Elikagai Bankuko erabiltzaileendako.

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

Xaxau batu da entitate gisa; argazkian, Maider Guridi, Nere Zurro, Oier Elortza, Aroa Elortza eta Iosu Agirre, Iralan. EUSKARALDIA BERGARA

Ziur ataka honetatik ere euskaraz irtengo garela!

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo dugun Euskaraldiaren antolaketa hankaz gora jarri du COVID-19ak, baina entitate batzuk hasi dira dagoeneko izena ematen; entitate horiei lagundu egingo diegu, besteak beste, ariguneak identifikatzen

Goiena komunitatea
Euskaraldia / BERGARA

COVID-19ak hankaz gora jarri du gure mundua, eta baita aurtengo Euskaraldiaren antolaketa ere. Aurten, norbanakoez gain, entitateek ere parte hartu ahal izango dute, baina koronabirusak eragindako krisiak hankaz gora jarri du entitateekin egin beharreko lanketa. Bideo-deien bidez, kiroleko, kulturako eta lan munduko entitateekin harremana izan dugu, baina bizi dugun egoerak oso zaila egiten du entitateetara zuzenean jotzea. Beraz, entitateak Euskaraldian parte hartzera gonbidatuko dituen kanpaina bat martxan jartzea erabaki dugu. Horretarako, talde aurkezpenetatik pauso bat aurrerago jo eta zerbitzu pertsonalizatua eskainiko zaie Euskaraldian interesa duten entitateei.

COVID-19aren ondorioz erabat egokitu behar izan dugu kanpaina, baina helburuek hasierako berberak izaten jarraitzen dute. Batetik, entitateak Euskaraldira hurbildu nahi ditugu zeharka, eurengana zuzenean jo gabe. Bigarrenik, kanpainaren hedapenaren ondorio gisa Euskaraldiaren presentzia handitu nahi dugu kalean, sarean eta hedabideetan. Eta, hirugarrenik, gure baliabideekin herriko komertzioari eta ostalaritzari bultzada bat eman nahi genioke, euskara aurrera begira giltzarri izan daitekeela nabarmenduta.

Bideo-deiak zalantzak argitzeko

Hala, entitateei eskainiko dizkiegu, Jitsi bideo-dei plataformaren bidez, zalantzak argitzeko saioak, astean birritan: astelehenetan 19:00etatik 20:00etara eta eguaztenetan 15:30etik 16:30era. Horrez gain, entitateek aukeratzen duten

KRISIA KOLPE LATZA IZAN DA; HORREGATIK, ENTITATEEI GAUZAK ERRAZTUKO DIZKIEGU, BANAKAKO ARRETAZ

euskarrian, Euskaraldia aurkeztuko diegu eta izena emateko prozesuan lagunduko diegu. Gainera, entitatean egon daitezkeen ariguneekin eman beharreko pausoen gaineko gidalerroak eskainiko dizkiegu.

Arreta pertsonalizatua entitateei

Badakigu entitateendako, bergarar guztiondako bezala, osasun krisi hau kolpe latza izan dela. Ulertzekoa da halako egoera baten Euskaraldia bigarren plano batean geratzea, baina, pixkanaka, entitate batzuk hasi dira izena ematen. Horregatik, Euskaraldian egon nahi duzuen entitateoi gauzak errazteko erronka hartu dugu; banakako arreta zerbitzua jarri dugu martxan, entitate bakoitzari arreta pertsonalizatua emateko asmoz.

Edozein zalantza argitzeko, jarri kontaktuan gurekin: 688 60 43 14 (Asier), *bergaraeuskaraldia@gmail.com* edo sare sozialetan. Ziur gaude ataka honetatik ere euskaraz irtengo garela!

NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO

Kaixo guztioi

COVID-19aren inguruan argitaratu diren albiste guztiengatik eta pandemia honekin sufritzen ari garenagatik, beharrezkoa da gure jarrera arduragabean hausnarketa handi bat egitea. Hausnarketa egitea, ea etxean konfinatuta, bakarrik, bizitza sozial gabe edota lanik gabe egon garenean zerbait ikasi dugun; hori horrela ez balitz, arazo bat daukagu. Ez legoke gaizki hurrengoari buruz gogoeta bat egitea: Jainkoak edo sortzaileak edota sistemak nahikoa dela esan duela, jaia amaitu dela; bere egunean antzeko zerbait gertatu zen Castrorekin Kuban, nahiz eta egoera oso desberdinak izan.

Arazo bat dugu, garbi dago, baina arazoak konpondu egiten dira. Konponbide hori izan daiteke mundu solidarioagoa egitea, irudimentsuagoa eta zorrotzagoa beharrezkoa den horrekin, eskuzabaltasunetik hasita. Utopiari eta arkadia zoriontsuaren ametsari ezetz esatea eta mundu apalago baten bizitzea, pertsona apalekin eta gustu apalekin osatua izango dena. Ez hain matematikoa eta askoz ere humanistagoa. Hori gustatuko litzaidake.

NDANK NDANK

Heldu dira arroza eta olioa

Senegalgo Dionewar herrira arroza eta olioa bidaltzeko 2.570 euro batzea lortu zuen Ndank Ndank elkarteak Bergaran, apenas astebetean. Asteon heldu dira jakiak Dionewarrera; 2.000 euro bideratu dituzte olioa eta arroza erostera eta, horrez gain, 150 euro baliatu dituzte maskarak erosteko. Gainerakoa, 330 euro inguru, herriko hiru auzoek dituzten kutxa komunitariorako izango dira.

OHARRAK

Zabalik dago BAZ, aldez aurreko txanda hartuta

Atezain bat egongo da sarreran txandak kontrolatzeko; txanda eskatu behar da 010 telefono zenbakian edo udal webgunean. Hainbat neurri izango dira; besteak beste, gehienez bi lagun egon ahalko direla barruan eta kanpoan distantzia gordetzea.

'Kuttuna.org'-eko bonuak gastatu egin dira

Herriko komertzioa bultzatzeko asmoz, 20.000 euro bideratu zituen Udalak erosketa bonuetan. Ekimenak arrakasta handia izan, eta beste 20.000 euro ere bideratu dira; bonu guztiak agortu dira.

Oxirondoko saltzaileei eskaerak egiteko aukera

Saltzaile guztien kontaktuak daude *www.bergara.eus* webgunean.

Iazko udaberriko kontzertuaren irudi bat. Aurtengoa domekarako, hilak 24, zegoen aurreikusita. GOIENA

Musika Eskola ezagutzeko, online ate irekiak bihar

Zapatuan, hilak 23, egingo dute ate ireki saioa, 10:30ean. Internet bidez, Hala, Musika Eskola ezagutzeko aukera egongo da bihar, baita ostean ere, saioa gordeko baitute. Izen emate epea zabalik dago maiatzaren 18tik ekainaren 19ra arte

Jone Olabarria BERGARA

Musika kultura "sustatzeko" eta Bergarako musika taldeen "harrobi" izateko helburuarekin, 2020-2021 ikasturteko matrikulazio epea zabaldu dute aurten ere Bergarako Musika Eskolan. Maiatzaren 18tik ekainaren 19ra egin ahalko da, webgunearen bitartez, eta eskola hobeto ezagutzeko, gainera, maiatzaren 23an, zapatuan, goizeko hamar eta erdietan ate irekiak egingo dituzte, online.

Ate irekietan parte hartzeko, eskolaren webgunean sartu beharko da: *www.bergarakomusikaeskola.com:* "Ate ireki hauek gure sare sozialen bidez jarraitu ahal izango dira zuzenean, Youtubeko *streaming* estekaren bidez; ez dago aurrez izena eman beharrik".

Jakinarazi dutenez, interesa duen norbaitek une horretan online bisita egiteko aukerarik ez badu, bisita birtuala gordetzeko asmoa dute, edozein unetan eskuragarri izateko asmotan. Gogorarazi dute lehen aldia izango dela halako ate irekiak egiten, eta COVID-19 gaitzak larrialdi egoera behartu aurretik ekitaldi ugari antolatuak zituztela azaldu dute; horren adibide, domekan egitekoa zen udaberriko kontzertua.

Musikan barneratzeko aukera

Horietako bat da, hain zuzen, *Willy Wonkaren fabrika musikatua* proiektua: "5 eta 7 urte bitarteko haurrek Musika Eskola ezagutzeko asmoz, ipuin berezi bat prestatzen ari ginen, *Willy Wonkaren fabrika musikatua* izenekoa. Bergarako adin tarte horretako 422 haurrak guretik pasako lirateke, taldeetan, eta ipuin batekin musikaren munduan barneratzeko aukera izango lukete".

"MUSIKAK EZ DU ADINIK; BETI IZAN BADUZU MUSIKA IKASTEKO GOGOA, HAU DA MOMENTUA"

Eskaintza zabala

Hainbat esparru jorratzen dituzte, hala nola musika sinfonikoa, musika herrikoia eta gaur egungo musika. Bergarako Musika Eskolak ikasle guztiei taldeetan parte hartzeko aukera ematen die: Orkestra Sinfonikoa, Gazte Banda, Big Band, konboak, abesbatzak, akordeoi taldea, gitarra taldea, trikiti taldea, txistu taldea eta dantza taldea.

Taldeetan lanean

Talde hauen helburu nagusia klaseetan ikasitakoa praktikan jartzea dela azaldu dute: "Beste ikasleekin musika egitea da, disfrutatzea". Musikak adinik ez duela ere gogorarazi dute Musika Eskolatik: "3 urterekin hasi zaitezkete musika ikasten, baina goitik ez daukagu inongo mugarik. Beti izan baduzu musika ikasteko gogoa, orain da momentua".

Plazako mobilizazioetara itzuli da Pentsiodunen Mugimendua

Bi hilabeteren ostean, astelehenean itzuli ziren ohiko plazako mobilizazioetara Bergarako pentsiodunak

J.O. BERGARA

Bi hilabeteko konfinamenduaren ondoren, leiho eta balkoietako mobilizazioak alde batera utzi eta astelehenean itzuli ziren pentsiodunak plazara.

Euren "haserrea" erakusteko asmoz, pandemiak adineko pertsonengan eta pentsiodunengan eragin dituen ondorioak salatu zituzten eta, era berean, gogorarazi nahi izan zuten Gipuzkoako adinekoen etxeetan apiril amaierara arte 160 pertsona hil direla, horietako gehienak "bakardade osoan" eta "hurbilekoen azken agurraren kontsolamendurik gabe".

"Iragarritako egoera"

Elkartasuna adierazteaz gain, gertatutakoa "iragarritako drama baten kronika" dela salatu dute: "Pentsiodunok urteak daramatzagu salatzen mendekotasunaren arretarako sisteman izandako murrizketak. Zerbitzu publiko bat pribatizatzeko joera inposatu digute; eskubide unibertsal eta subjektiboa izan behar zuena ukatuz. Mendekotasuna duten adinekoei etxean ematen zaien arreta eta adinekoen egoitzetan bizi direnek jasotzen duten zerbitzua jada eskasak ziren pandemiaren aurretik, eta pandemiak bere gordintasun osoa azaleratu du".

Osasun langileekin elkartasuna

Osasun arloko langileentzat lanbaldintza egokiak eskatu dituzte, "euren lana duintasunez eta profesionaltasunez egin ahal izan dezaten". Kalean jarraituko dutela ere azaldu dute, "pentsio publiko duinen sistema publikoa, zerbitzu publiko unibertsalak eta mendekotasunaren arretarako zerbitzu soziosanitarioen sare publiko eta unibertsala defendatzen".

Astelehenean San Martin plazan egindako mobilizazioa, segurtasun neurriekin. I.U.

Hiruko saskibaloi txapelketa bertan behera utzi du BKEk

Urtero ekaineko klasiko bat den Bergarako hiruko saskibaloi txapelketa ere bertan behera geratuko da, COVID-19 gaitzak eraginda.

BKE saskibaloi saileko zuzendaritzak adierazi dutenez, "segurtasuna bermatzea" izan da erabakia hartzearen arrazoia: "Bizi dugun egoera eta segurtasun neurriak bermatzerik izango ez dugula ikusita, behartuta gaude txapelketa suspenditzera".

Era berean, eskertze mezua helarazi nahi izan dute, antolakuntzako kide eta jokalari guztiei zuzenduta: "Urte asko daroatzagu txapelketa hau antolatzen, ilusio guztiarekin. Eskerrik asko hamabi edizioak antolatzea posible egin duzuen guztioi".

Datorren urtera begira, 2021eko edizioa antolatu ahal izatea espero dutela azaldu du zuzendaritzak, "betiko ilusio eta gogo berberarekin".

Asentziok aisialdirako gune izaten jarraitzen du, eta eguzkiak laguntzen badu askoren aukera da konfinamendu egunotan. L.Z.L.

Asentzio Egunik ez aurten

Atzo izan zen Asentzio Eguna, baina ez zen ospakizunik egin. Aste bukaeran ere ez da egingo; izan ere, alerta egoerak ez du horrelakorik antolatzea ahalbidetzen. Sasoi bateko erromeriak zelakoak ziren gogora ekartzeko aukera, ordea, ezin da galdu

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Leku seinalatua da Asentzio elgetar askorendako, eta adin batetik aurrerakoek nostalgiaz gogoratzen dituzte Asentzio Egunarekin putzu inguruan egindako erromeriak eta askotariko festa egitarauak. Aurten, ezin izan da inolako ospakizunik egin, baina eguraldiak lagunduta jende asko erakarri du Asentziok konfinamendu asteotan; izan ere, paraje ederra da.

Antzinako erromeriak

Maiatzarekin izaten da Asentzio Eguna, eta bolada batzuetan indar handiagoarekin eta beste batzuetan indar txikiagoarekin, baina ia beti ospatu da Elgetan.

50eko hamarkadan bizi izan zuen Asentzio Egunak loraldietako bat. "Orduan, erromeria asko egiten ziren inguru guztian", azaltzen du Ostatu tabernako Arantxa Aretxagak. "Ni ume kozkorra nintzen, baina gogoan dut nola jartzen genuen taberna Asentzion. Aitak eta Candido Bolinagak jartzen zuten, ohol handi batzuekin eta arramekin atonduta. Iturria bazegoen. Gainerako guztia gurdiarekin igotzen genuen. Goizean goiz gurdia goraino bete eta Asentziora! Sua ere jartzen genuen. Ama aritzen zen sukaldari lanetan, eta Albistegitik ere etortzen zen bateren bat laguntzera. Sekulako erromeria izaten zen Asentzion".

Aretxagak gogoan du jendea bazkariarekin joaten zela egunpasa. "Pagopea jendez betetzen zen. Familia osoak elkartzen ziren; senar-emazteak eta zazpi, zortzi edo bederatzi seme-alaba. Askok lekua hartuta izaten zuten, gainera".

PAGOPEA BETE EGITEN ZEN ETA ETXETIK ERAMANDAKOA BAZKALTZEN ZUEN JENDEAK, LURREAN

Orduan, ez zegoen mahairik Asentzion. Lurrean eserita bazkaltzen zuten. "Barran txorizo egosia, tortilla, salda eta halakoak ematen genituen. Ermitaren alde batean barra egoten zen eta bestean erromeria egiten zen. Uste dut meza 10:00 aldera esaten zela, eta ordurako prest izaten genuen salda".

Erromeria, iluntzera arte

Erromeria bazkalostean hasten zen, eta 20:00ak edo 21:00ak arte irauten zuen. Gehienetan, Gelatxo soinu-joleak eta Eguren saxofoi-joleak egiten zuten. "Bateria *Elektriko* esaten zioten mutil batek jotzen zuen", gogoratzen du Manu Sarasua elgetarrak. "Jende asko elkartzen zen Asentzion: Elgetakoak, Angiozarkoak eta Bergarakoak ere bai. Orduan, ez zen besterik egoten!".

Kanpanzarren, Altuben eta San Romanen ere erromeria handiak egiten zirela du gogoan Aretxagak. "Gehienak desagertuta daude; izan ere, beste garai batzuk ziren!".

Dantzariek, borondatea

Gastuak ordaintzen laguntzeko borondatea eskatzen zen. "Dantzaldi eta erromeria gehienetan izaten zen horrela", azaltzen du Ramon Ugaldek. "Dantzan ari zinela banderatxodun orratz bat jartzen zizuten paparrean. Hura izaten zen seinalea. Gizonezkoei jartzen zitzaien, emakumezkoei ez". Eta dantzan ibilitakoei borondatea eskatzen zitzaien. "Musikoak ordaintzeko izaten zen dirua", dio Ugaldek.

GELATXOK, EGURENEK ETA 'ELEKTRIKO' ESATEN ZIOTEN MUTIL BATEK EGITEN ZUTEN ERROMERIA

"Dantzan egiteko eskatu egiten zen. Mutilak eskatzen zuen: 'Dantzan eingou?'. Eta neskak erantzuten zuen baietz edo ezetz. Ze denborak, ene!", gogoratzen du irribarre batekin Aretxagak.

Geroko Asentzio Egunak

Denborarekin, Asentzioko erromeria indarra galtzen joan zen, eta 1995an berreskuratu zuen Elgetako Gazte Asanbladak. Bigarren loraldia izan zen. Sasoi hura ere pasa zen, eta gaur egun formatu txikiagoan ospatzen da Asentzio Eguna.

Ermitan berritze lanak egin osteko ospakizuna, 1953an. INDALECIO OJANGUREN

Sasoi batean, egun osoko erromeria

Aspalditik dator Asentzio Eguna ospatzeko usadioa. Ermitan hainbat eraberritze lan egin dituzte, eta, Indalecio Ojangurenek 1953an hartutako argazkian ikusten denez, jende asko elkartu zen egindako txukuntze lanen osteko inaugurazio ekitaldirako urte hartan.

Auzotarren artean txandakatu izan dituzte ermitaren zaintza lanak urteetan. Giltza eskutik eskura pasatzen zuten auzoko baserri batetik bestera, eta giltza jasotzeak zekarren ardura lan horiek urtebetez betetzeko konpromisoa hartzea.

Gaur egun, auzotar gutxi dira, eta Bergarako parrokia arduratzen da Asentzio ermitako elizkizunez eta ospakizunez. Ezkontzarik ez badago, urtean meza bat esan ohi dute bertan. Hain zuzen ere, Asentzio Egunarekin edo egunean bertan ez bada hurrengo domekan esaten dutena. Putzuaren aldeetako batean dagoen Gure Borda elkarteari dagokionez, 1962an egin zuten.

Aisialdi-gune estimatua izaten jarraitzen du, oraindik ere, Asentzio. Konfinamenduko azken asteotan ez dira gutxi izan familian zein bakarka, paseorako zein kirola egiteko, Asentziora gerturatu diren herritarrak. Elgetarrak bakarrik ez; izan ere, Angiozarrek ere lotura handia du Asentziorekin.

Aurten ez da, ordea, ospakizunik egin. Egoerak ez du horretarako aukerarik eman.

Gazte Asanbladak antolatutakoak

1998ko Asentzio Eguneko bazkaria. 'GOIBEKOKALE'

Bazkaria Trikitilariak, dantzariak eta bolatokia ere egoten ziren Asentzio Eguneko egitarauan. Askotariko erronkak eta abilezia erakustaldia ere bai. Bazkalosteko kantu saioak ere ez ziren nolanahikoak izaten.

Elgetarrak, ermita ostean ipinitako pantailari begira. 'GOIBEKOKALE'

Buruz buruko finala pantaila handian 1997ko Asentzio Eguna berezia izan zen. 400 eta 500 pertsona artean elkartu ziren eta pantaila erraldoi batekin jarraitu zuten Aitor Elkoro elgetarrak Fernando Arretxeren aurka jokatutako buruz buruko finala.

Trontza desafioa 1996ko Asentzio Egunean. 'GOIBEKOKALE'

Desafioak Hainbat desafioren lekuko ere izan da Asentzio Eguna. 1996an, esaterako, ikuskizun polita eskaini zuten trontza desafioan parte hartu zuten bi taldeetako ordezkariek. Apustuak parekatuak izan baziren ere, gazteak nagusitu ziren.

Ferixa Nagusiko jaietako kartel lehiaketak badu irabazlea

Jai batzordea jaiak ospatu edo ez aztertzen ari da, eta ospatzekotan nola egin segurtasuna lehenesteko

L.Z.L. ELGETA

Ferixa Nagusiko jaiak, aurten, uztailaren 2tik 5era ospatzekoak dira, baina bistan da jaiak ez direla aurreko urteetakoak modukoak izango. COVID-19ak eragindako egoerak baldintzatuko ditu, ezbairik gabe, eta neurriak hartu beharko dira denon segurtasuna eta osasuna bermatzeko.

Jai batzordeak ez du, oraingoz, erabaki irmorik jakinarazi. Iraitz Lazkano alkatea da jai batzordeko burua, eta adierazi du gaia mahai gainean dutela. "Aztertzen ari gara batzordeetan parte hartu duen jendearekin. Hemen ere segurtasuna lehenetsiko dugu, hori bai", izan dira haren hitzak.

Kartel irabazlea. JUAN ANTONIO AGUILAR

'Guztiok kalera' kartela

Bien bitartean, kartel lehiaketa egin du jai batzordeak, eta Juan Antonio Aguilar sevillarraren *Guztiok kalera* lanak irabazi du. Hala, 100 euroko saria jasoko du eta 2020ko jaietako irudi nagusia izango da.

Bederatzi kartel proposamen jaso zituen jai batzordeak, baina bi lehiaketatik kanpo gelditu ziren, baldintzak betetzen ez zituztelako. Hala, zazpi lanen artean aukeratu dute elgetarrek, eta herritarren botoek erabaki dute irabazlea. 270 boto jaso ditu jai batzordeak Internet bidez egindako inkesta bitartez, eta botoen %80,4 jaso ditu irabazleak.

Liburutegiak ez du, oraingoz, zerbitzu presentzialik emango

Online zein telefono bidezko arreta ematen ari dira, eta gogorarazten dute badaudela mailegu zerbitzu digitalak

L.Z.L. ELGETA

"Gure helburua era seguruan irekitzea da, eta horretarako lanean ari gara", esan du liburutegiko Geaxi Ezpeletak. "Irekierak araututa daude Espainia mailan eta murriztuta Euskal Autonomia Erkidegoan. Arauen joan-etorriak dezente zailtzen du egoera bideratzeko era egokiena zein izango den zehaztea". Bien bitartean, zabalik da itzulketak egiteko buzoia. "Berriz mailegatu aurretik hamalau eguneko desinfekzio garaia pasa behar dute liburuek".

'Gu ere kontalari' saioa, sarean

Ezin denez, oraingoz, aurrez aurreko ipuin kontalari saiorik egin, etxetik egiteko proposamena egin du udal liburutegi zerbitzuak. Herriko kontalari txikiei zein handiei ipuinak, txisteak, abestiak, antzerkiak... grabatzeko eta bidaltzeko proposamena egin diete. Banaka, binaka edo taldeka egin daitezke grabazio horiek, eta baita ere heldu baten laguntzarekin. Ideia da domekara bitartean jasotako bideoekin osatzea hurrengo *Gu ere kontalari* saioa.

Haur eskolak ekainaren 1ean zabalduko ditu ateak

Matrikulazio kanpainaren erdian zabalduko ditu, berriz ere, ateak zerbitzuak. Ekainaren 1era bitartean matrikula online egiteko aukera izango da, eta egun horretatik aurrera haur eskolan ere eskatu ahal izango dute matrikulazioa orria interesatuek; betiere, 09:00etatik 14:00etara. Argibide gehiagorako, jo *www.haurreskolak.eus* webgunera.

Herri Eskolan, berriz, ez dira aurrez aurreko saioetara itzuliko. Azaldu dute azken ebaluazioa egiteko aurreko bietan egindako lorpenak eta azken asteotan etxetik egindako lana hartuko dituztela kontuan; betiere, ikasturteko ebaluazioan modu positiboan eragiteko.

Ozkarbi Eguna eta domekako mendi irteera, bertan behera

Beste ekintza eta hitzordu asko moduan, bertan behera geldituko dira aste bukaera honetan Elgetan egitekoak ziren Ozkarbi Eguna eta Kantsatzeke mendi taldearen maiatzeko mendi irteera. Biharko, maiatzak 23, iragarri zuen Ozkarbi elkarteak Ozkarbi Eguna. Egoera zein den ikusita, egitarau guztia bertan behera uzteko erabakia hartu du zuzendaritzak. Gauzak ondo bidean, hurrengo urtean ospatuko da, berriz ere, Ozkarbi Eguna.

Kantsatzeke mendi taldeak ere irteera zuen prestatuta. Kasu honetan, domekarako, eta Kruzetara. "Ez da egingo, ez. Gauzak aldatu arte geldirik. Gainera, autoetan joaten garenez, zaila da. Beharbada, egoera pixka bat arindutakoan irteeraren bat egingo dugu Elgeta aldean, eta autorik hartu beharra izan gabe. Abisatuko dugu", adierazi dute.

Jaunartzeak atzeratu egin dituzte; urrian ospatzea da asmoa

Maiatzeko azken domekarako zegoen aurreikusita jaunartzeen ospakizuna Elgetan. Hiru neskamutiko ziren jaunartzea egitekoak. Elgetako parroko Juan Cruz Juaristik azaldu du ospakizun hori atzeratzeko erabakia hartu dutela, COVID-19ak eragindako egoera dela eta. Hasiera bateko asmoa da jaunartzeak urrian ospatzea.

Aiztitik Galartzara bitartean egiten diharduten bidegorriaren konpontze-lanak. MAIDER ARREGI

Asteburuan zabalik egongo da bidegorria

Bidegorriarekin batera Antzuolako ur-zikinak Bergarako araztegira eramango dituen kolektorea egiteko asmoa du Diputazioak. Aiztiko zatiaren proiektua eginda dago eta lanak udan egitea daude aurreikusita; Galartzatik Bergararako zatia geldi dago

Maider Arregi ANTZUOLA

Aste honetan, Arizti eta Galartza arteko bidegorri zatia itxita egongo da erabiltzaileendako. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Departamentuak bidegorrian hondoratuta zegoen zoru tartea konpontzeko lanak egiten dihardu. Berez, bidegorriaren itxiera hilaren 18tik 24ra artekoa izango zela iragarri zuen Gipuzkoako Aldundiak; baina asteburuan oinezkoendako pasabidetxo bat irekiko dutela adierazi diote bertako langileek GOIENAri. "Lanak ia-ia amaituta daude eta astebururako oinezkoei aukera emateko tartetxoa irekitzeko aukera izango dugu. Hala, lanik handienak eginda, datozen egunetan amaituko ditugu lurra egonkortzeko lanak", azaldu dute langileek.

Ur-zikinen kolektorea

Bidegorriarekin batera egitekoak dira, ordea, Antzuolako ur-zikinak Bergarako araztegira eroango dituen kolektoreari falta zaizkion tarteak. Oraingoz, baina, bidegorritik Bergarara joango litzatekeen kolektoreko lanak geldi daude. "Guk daukagun azken berria hauxe da: kolektorea Aiztiko zuzengunetik eroango dute, oraingoz. Proiektua ikusita daukagu, eta baita ere 2020ko abuztuan egiteko asmoa. Bestetik, badago kolektoreak eta bidegorriak eduki beharreko beste zati bat ere: Galartzatik igaro eta Bergarainokoa. Guk dakigunaren arabera, oraindik ez dago proiektua onartuta eta ez dago partidarik horretarako. Horixe da guk gaur-gaurkoz daukagun informazioa. Kolektoreari dagokionez, une honetan zerbait egitekotan Aiztiko zatia da, eta, berez, abuztuan hastekoak dira egiten. Azkenengoz Diputazioan egon ginenean, ordea, bi zatiak aldi berean egin gura zituztela esan ziguten. Beraz, ez dakigu zer eta noiz izango den; 2020an egingo den edo 2021ean…", argitu du Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak.

ANTZUOLA ETA BERGARA LOTUKO DITUEN BIDEGORRI ZATIA, EGITEKOEN ARTEAN, ZAIN

Bergarako lotunea

Bergara eta Antzuola lotuko dituen bidegorri zatia geldi dago, oraingoz. "Badakit Bergarako sarrerari buruzko proiekturik ez dagoela oraindik. Ura agentziaren eta Diputazioaren arteko akordio tekniko bat badagoela ere esan digute; baina ez dakigu zehazki ezer garbirik".

Rafaela Romero Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatuaren departamentuak GOIENAri jakinarazi dionez, zati hori ez da aurten egingo. Hala ere, egiteko asmoa baduela argitu du: "Egiteko dauden bidegorrien artean daukagu aurreikusia".

Basalde eta Errekalde lotzeko pasabiderik gabe, oraingoz

Errekalde auzo parean hondoratuta zegoen errepide zatia egonkortzeko lanekin hasi da Diputazioa

Maider Arregi ANTZUOLA

Diputazioak hasi ditu lurra egonkortzeko eta berdintzeko lanak Errekalde parean. Lan horiek aprobetxatuta, Udalak oinezkoendako pasabidea egin zezatela eskatu zuen martxoan: "Ura agentziari eta Diputazioari eskatu genien lanok aprobetxatuta errepidea pixka bat zabaldu eta oinezkoendako bidea egin zezaten. Eztabaidatu dugu eta, oraingoz, ez daukagu baiezkorik, eta, ikusten denaren arabera, ez dirudi egingo dutenik; kudeaketaren ikuspegitik hankasartzea dela deritzot. Lan bat hasita dago eta aukera ona dago diru gutxirekin Basalde auzoa herriko erdigunearekin lotzeko. Hala, auzotarrek oinez errepidean ibili beharrean segurtasun osoz ibiliko lirateke pasabidean".

Gipuzkoako Diputazioak azaldu du, plataforma zabaltze hori ez dela posible "edozein aukeratan Deskarga ibaiaren jabariaren okupazioa dakarrelako". Gaineratu du, Antzuolako Udalak ibai-jabaria okupatzeko baimena lortuko balu, errepide sailak ez lukeela inolako arazorik jarriko pasabidea egin dadin.

Basalde auzoko errepideko lanak. M.A.

Jatetxeak 2. fasearen zain daude barruko jarduna hasteko

Asteon, herriko sei tabernak ireki dute; jatetxeak, ordea, barruko jangela irekitzeko baimenaren zain daude

Maider Arregi ANTZUOLA

Herriko jatetxeak itxita daude; izan ere, euren jardun nagusia lokalaren barruan dago. Horregatik, jatetxeak 2. fasean irekitzen hasiko lirateke –dena ondo bidean, astelehenetik aurrera–.

Bestalde, asteon, Udalak onartu du herriko mugikortasunean aldaketak egitea. Hala, terrazen mesederako, Kalebarrengo errepide zatia terrazendako eta oinezkoendako izango da. "Zati bat oinezkoendako izango da; hala ere, autoendako ezinbestekoa denean pasoa egongo da; gainera, orain badago Sagastira igotzeko ordezko bidea. Badakigu herritarren espazio publikoa dela, eta ez da betirako izango erabakia; laguntzea eta malguak izatea tokatzen zaigu une honetan, eta jendeari pazientzia pixka bat eskatu gura diogu", dio Beñardo Kortabarria alkateak.

Kalebarrenen dagoen terraza bat. M.A.

Gaineratu du herriko ostalariei erantzukizunez eta arduraz jokatzeko ere eskatu dietela.

Bestalde, tasak atzeratu egin dituzte, eta ordaintzeko malgutasuna emango dute. Terrazen tasa ez dutela ordaindu beharko jakinarazi du Udalak.

"Handia izaten jarraitzen du mutilekiko aldeak"

UXUE IPARRAGIRRE EIBAR TALDEKO FUTBOL JOKALARIA

Lehen Mailara igo diren notizia konfinamenduan, etxean, jaso du Uxue Iparragirre antzuolarrak. Esfortzu eta lan sakonari esker, ametsa errealitate bilakatu zaio

Maider Arregi ANTZUOLA

Antzuolak Lehen Mailako futbol jokalaria dauka: Uxue Iparragirre (Antzuola, 2000). Ezkerreko hegaleko jokalaria berdegunera salto egiteko "gogoz" dago.

Zurrumurrua egia bilakatu da?

Albisteak itxialdian harrapatu ninduen. Egia da filtrazioak bazirela –liga etenda eta gu 2. postuan geunden– eta gure artean hizketan bagenbiltzan zer gertatuko ote zen galdezka. Gure harridurarako, entrenamendu konexiora presidentea etorri zen eta ofizialki Lehen Mailako taldea ginela esan zigun. Emozioz betetako goiza izan zen.

Etxean entrenatu zarete.

Bai, entrenatzaileak jarritako ariketekin, astean bost egunetan; gure asmoa jokoan geneukan igoera hori lehiatzea zen eta.

Merezitako igoera izan al da?

Denboraldi ona egin dugu, eta saria izan da mailaz igotzea. Nork esango zigun horrela izango zirela gauzak. Jokatzen ari ginen mailara heldu berriak ginen: *staff*, ekipo eta sistema berria geneukan... ametsa zen mailaz igotzea. Egin duguna historikoa izan dela diote.

Lehen Maila gogorra da. Kanpobidaiak gehiago izango dira.

Orain arte, oso gogor entrenatu gara, eta oraingoan, zer esanik ez. Gainera, bidaiak luzeagoak izango dira, bai: Andaluziara, Bartzelonara, Galiziara...

Euskal taldeak ere badira: Athletic eta Reala. Derbiak jokatzeko gogoz?

Bai, gure artean ere komentatu dugu jada eta desiratzen gaude! Benetako derbiak izango dira, derbi ofizialak!

Nolakoa zen zure egunerokoa koronabirusa iritsi aurretik?

Bilbon pisukideekin bizi nintzen. Goizean Psikologiako klasetara joan eta eguerdian bazkaria egiten nuen. Arratsaldeetan, aldiz, lanak egiten nituen. Eta 19:00etarako Berrizera entrenatzera joaten nintzen, 22:30ak arte.

Uxue Iparragirre Eibarko elastikoarekin. @JAVIUROLA

"TALDE' HITZAK ISLATZEN DUEN GUZTIA GARA; BAI BARRUAN ETA BAITA KANPOAN ERE"

Ondoren, etxera etorri, garbigailua jarri eta afaldu. Gainera, gidabaimena atera berri dut, eta odisea izan da Bilbon gidatzea. Eguaztena, aldiz, nire atseden eguna zen eta ikasketekin aurreratzeko aprobetxatzen nuen.

Gustura zabiltza Eibarren?

Bai, oso gustura. Txikitatik maite dut futbola. Egia da ikasketekin uztartzea zaila dela. Baina aurtengo moduko denboraldiaren ostean, ahalegin guztiek merezi dute, dudarik gabe.

Eztalara joaten zara?

Ez, ez daukat denborarik, baina badaukat hasi nintzen tokira berriro itzultzeko nahia.

Pentsatu duzu nola uztartuko dituzun ikasketak eta futbola orain?

Egia esan, ez. Oraindik ez dakigu entrenamenduak noiz eta nola izango ditugun; agian, goizez izan litezke; dena den, moldatuko naiz.

Partidu asko jokatu dituzu aurten ere maila gorenean.

Aurten, hamar partidu jokatu ditut talde nagusiarekin, eta ilusio handiz bizi izan dut. Asko ikasi dut, gainera.

Nola bizi izan duzu profesional mailako emakumeek lan baldintzengatik egindako greba?

Aurten lortutako lan-hitzarmena urrats handia izan da emakumezko futbolarendako; orain bizi dugun egoerak ERTEak ere eragin ditu eta ez dakigu zein bilakaera izango duen. Hala ere, oso garrantzitsua da emakumezkoen futbola indartzea, mutilekin dagoen aldea handia izaten jarraitzen du eta. Lorpena itzela da, eta ezinbestekoa. Izan ere, mutilen esfortzu eta sakrifizio bera egiten dugu. Halaber, neskak ezin gara futboletik bizi.

Eibarrek talde izaera oso barneratua daukala diote. Indarra eman dizue horrek?

Talde hitzak islatzen duen dena gara eta kanpoan ere islatzen dela hori uste dut. Jokalari baten kalitateak ez du ezertarako balio talde bat ez bagara. Talde sentipen horrek indarra eman digula esango nuke. Eibar, Eibar dela erakutsiko dugu.

Alboradak txistulari taldea Herriko Plazan. JOKIN BEREZIARTUA

Sanisidro tristeak izan dira, alarma egoerak baldintzatuta

Azken ordura arte zalantzan izan bazen ere, triki-bertso saioa atzeratu egin du Udalak, "zuhurtziagatik"

Maider Arregi ANTZUOLA

San Isidro festarako egitarau egokitua zuen aurreikusita Antzuolako Udalak: bertso saio ibiltaria, kukumarru lehiaketa, baserrietara bisitak, pintxo lehiaketa... Eta kalera irtetean, betiere, segurtasun neurriak errespetatuz, baserritar jantzita irteteko deia eginda zuen. Hala ere, herritarrak ez dira baserritar jantzi eta bertso saio ibiltaria ere atzeratu izanak tristatu egin du jaia. Txistulariek, baina, ez zuten hutsik egin.

Zalantza eta kezka nagusi

Konfinamendua arintzen joan den heinean, San Isidro jaiez kalean gozatzeko aukera zalantzan egon da azken unera arte. Bertso saio ibiltaria azken orduan suspenditu izanak zeresana eman du herrian, batzuek erabakia kritikatu egin dute eta Udalak azalpenak eman ditu: "Bertsolariekin hitz egin eta Ertzaintzari baimena eskatu ostean, asmoa zen auzoz auzo saio txikiak egiteko. Azken bi asteetan gure artean berbetan ibili gara eta kezka bagenuen... azken orduan erabaki genuen, bertsolariekin ere egonda, akaso goizegi zela halako bat antolatzeko. Kontuan hartu dugu zein den egoera eta ze ondorio izan zitezkeen; benetako lehen fase baten sartuko bagina, lehenbailehen antolatuko genuke. Bertsolariak ez ekarri izanaren pena handiena guk daukagu".

Herritarrei enpatia-ariketa egiteko eskaera ere egin die Beñardo Kortabarria alkateak: "Egoera hau oso konplikatua da guretzat kudeatzeko; gure gainetik daudenak ere pentsa nola ibili diren! Udalera ez ginen heldu pandemia bat kudeatzeko, eta horregatik eskatzen diet herritarrei gure paperean jartzeko".

Hondakin bilketako hainbat zerbitzu, berriro ere martxan

COVID-19aren ondorioz geldi zeuden hainbat zerbitzu berriro martxan daude. Hala, herriz herriko garbigune ibiltari zerbitzua, traste zaharren bilketa zerbitzua eta ehunki eta berrerabilgarrien bilketa zerbitzua ere berrezarri dira. Oñati, Arrasate eta Bergarako garbiguneak ere ohiko ordutegian, astelehenetik zapatura, zabalik daude.

Odol ateratzeak egingo dituzte, babes neurri guztiekin

Hilaren 26an, martitzena, odol ateratzeak egingo dituztela Antzuolan iragarri dute Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko kideek. "Aurrez 40 odol emaileri telefonoz deituko diete odol ateratzea non eta zein ordutan egingo duten zehazteko. Babes neurri guztiak hartuko dira", dio Begoña Lete Antzuolako Odol Emaileen Elkarteko kideak.

"Udara begira kultura gida bat prestatzen gabiltza"

IZARO ELORZA OÑATIKO ALKATEA

la urtebete daroa alkate karguan eta "buru-belarri" tokatu zaio lanean aurre egitea koronabirusak sortutako larrialdi egoerari. Herritarrak ondo erantzuten ari direla dio

Oñatiko udaletxeko alkatearen bulegoan. ENEKO AZKARATE LASPIUR

Eneko Azkarate Laspiur OÑATI

Aurreikusitakoa baino 1,6 milioi euro gutxiago jasoko du Foru Funtsetik Oñatiko Udalak, eta kezkaz jaso du iragarpen hori herriko alkateak. Bestetik, udarako, bainutokiei, udalekuei, turismoari eta kultura ekimenei begira, erabakiak hartzen ari direla dio.

Nola daude une honetan udal zerbitzuak?

Arreta Zerbitzua abian da, txanda sistema bidez, segurtasun neurriekin. Orain arte, funtzionatu du modu telematikoan eta telefonoz. Gizarte zerbitzuetan ere antzera, nahiz eta, bereziki, larrialdi egoera berezi honetan sortutakoei erantzuten ari diren, beste batzuk albora utzita. Artxiboa erabil daiteke, txanda hartuta; gaztelekua-eta itxita daude, baina hezitzaileak ari dira zerbitzua Internetetik ematen... Zerbitzu gehienei eutsi diegu, modu berezian bada ere, eta modu presentzialarekin orain hasiko gara. Kiroldegiko ohiko zerbitzuak itxita daude, baina, aldian-aldian, zabaldu egiten da kiroldegia zapatuetako azokarako.

Usako eta inguruak zaintzeko eskatu diozue Ertzaintzari, konfinamendu egoera arintzen hasi denean jende pilaketa nabaritu duzuelako. Kezkatuta zaudete?

Pedagogia lanak egiten gabiltza, informatzen. Ikusi dugu baten batzuk Usako aldera hurbildu direla azken egunetan eta ohartarazi nahi dugu ura, erreka, kutsatzeko bide izan daitekeela eta kontuz ibili behar dela. Kartelak jarri ditugu, eta noizean behin bertaratzen dira udaltzainak edo ertzainak ohartarazteko. Herritarrak, oro har, ondo ari dira. Azken astean lau bat isun proposamen egin dituzte udaltzainek, baina kanpoko herritik bertara etorri izanagatik eta.

Terrazak zabaldu zituztenean?

Tabernariekin lanketa bat egin dugu aldez aurretik: nola zabaldu, ze baldintzatan, non... halakoak zehazteko. Hasierako egunetan, udaltzainak aritu ziren begiratzen, zuzendu beharrekoen gainean ohartarazten... Dekretu bat argitaratu dugu terrazen erabilera arautzeko, eta egoera berrian erraztasunak eman ditugu. Erabilera egokirako argibide kartelak sortzen ere bagabiltza. Tasak, esaterako, itxita zeuden bitartean ez kobratzea erabaki zen, eta, zabaltzen zirenetik hasita, urrira arte atzeratzea kobrantza.

Uda eta bainu denboraldia ate joka dira. Zabalduko dituzue ur parkeak, Usako?

Oraingoz, ez. Usako zabaltzea zaila izango da. Ura kutsatzeko puntu bat izan daitekeelako. Igerileku batek kloroa dauka eta horrek lagun dezake. Errekak, ez. Gatzura eta errekako ura ez dira igualak birusaren transmisioari dagokionez. Ikusi beharko dugu. Ur txorroekin aukera handiagoak izango dira. Ikusi behar. Igerilekuak itxita daude. Bainutokiak, hortaz, aurten itxita izango dira, seguruen, Oñatin. Ur txorroen parkea izan daiteke aukera. Usako puntuan utziko dugu, mantentze lanak-eta eginda. Baina ikusi behar zein den egoera. Akaso, uda aurrera doan heinean... aztertuko dugu.

Igerilekua berritzeko lanak nola daude?

Martxa onean. Bi astez geldi egon dira. Urte amaierarako lanak amaitzea zegoen aurreikusita eta uste dut gutxi gorabehera beteko ditugula epeak. Aurtengo udal aurrekontuaren handiena da eta aurrera doa, iaztik.

Aurten aurreikusitako beste inbertsioek aurrera jarraitzen dute?

Hasiera baten, bai. Aurreko urtetik datozenak, Natur Eskola, Araotzeko ostatua... horiek aurrera doaz, normal. Olakuan, irisgarritasuna bermatzeko lan batzuk egingo dira... Dena den, herritarren parte hartzea eskatzen dutenak, aurrekontu parte hartzaileak bezalakoak, ezingo dira aurrera eroan.

Udal aurrekontuan nola eragingo du krisi honek?

17,2 milioi eurokoa da aurtengo aurrekontua, baina gerakinak eta beste kontuan izanda, guztira, 27,6 milioi euroko aurrekontua da eta bere horretan eusten diogu.

"27,6 MILIOI EUROKO UDAL AURREKONTUA DA AURTENGOA ETA BERE HORRETAN EUSTEN DIOGU"

"OHIKO UDALEKU IREKIAK EZINGO DIRA EGIN, BAINA BESTE ZERBITZU BATZUK ESKAINI NAHI DITUGU"

"OÑATIN, 36 BAT FAMILIA ARI DIRA JASOTZEN GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK"

Foru Funtsetik %20 gutxiago jasoko dute udalek. Berria ez duzue ondo hartu.

Bi kontu gertatu dira: forma aldetik huts egin du Aldundiak, hedabideetatik enteratu garelako udalok. Gainera, badaude foroak eta horien bidez esan behar dira gauzak. Izan ere, diru hori Udalarena ere bada, ez da soilik Aldundiarena. Bakoitzari bere zatia dagokio. Adostu egin beharko litzateke denen artean gaia nola bideratu.

Nola eragingo dio murrizketak Oñatiko Udalari diru-sarreretan?

1,6 milioi euro gutxiago jasoko ditugu eta ikusiko dugu zelako doikuntzak egin, hilabetez hilabete. Gerakin bat badaukagu, dirua badaukagu, eta horrekin jokatuko dugu. Aurrekontua egiterakoan eta gerakinak berrantolatzerakoan, erreserba poltsa bat uztea erabaki genuen

bere garaian. Arduraz jokatuta aurreikusi gabekoetarako. Horri esker gaude gauden moduan.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak-eta handitu egin dira Udalean?

Gizarte zerbitzuetan eskaerak handitu egin dira. Horretaz aparte, Oñatiko Udalak ezohiko laguntza bat bultzatu du. 30.000 euro zeuden aurreikusita eta beste 20.000 euro handitzea erabaki dugu. Bonu sozialetara bideratu dugu. Diru sarrera mugatuak dituztenei edo diru sarrerarik ez dutenei, elikagaiak eta garbitasunerako produktuak bertako dendetan erosteko laguntzak dira. Baldintza jakin batzuk betetzen dituztenendako. Oñatin, une honetan, 36 bat familia ari dira jasotzen hori. Oraingoz, lehen aste hauetan, dagoeneko 8.000 euro bideratu dira. Jarraipena izango du. Gizarte zerbitzuen gainean informatzen ahalegindu gara. Egoera honetan inportantzia berezia eskuratu dute.

Aurreikusten duzue herriko erakundeei eragingo dien murrizketarik, dirulaguntza jaitsierarik edo halakorik?

Momentuz, udal aurrekontua berdin geratzen da eta onartutako diru kopuruak ere bai. Urte amaieran ikusiko zer egin ahal izan duen bakoitzak, ze aurkezten duen, zuriketaren araberakoa izango da.

Elikagaien Bankuarekin, Caritasekin eta halako gizarte erakundeekin harreman zuzenean diharduzue?

Bai. Elikagaien Bankuak bi banaketa berezi egin ditu orain arte; Ausolagunek ere ontziak banatu ditu janariekin... Ekainaren erdi ingururako Europatik etorriko da beste laguntza bat.

Herriko denda, taberna, jatetxe, eta abarretako kontsumoa sustatzeko neurriak hartu dituzte?

Kuttuna egitasmoa hor dago. 20.000 euro bideratu ziren, hasiera baten, eta, bukatu zirenean, beste 20.000 euro jarri genituen. Udaletik 40.000 euro bideratu dira, eta, ondorioz, 200.000 euroko kontsumoa sustatu dugu herrian. Gero, pixkanaka, dendak-eta zabaltzen joan diren heinean, bertan behera geratu da Kuttuna ekimena Oñatin. Urte amaierara bitartean, beste ekimen eta beste bonu batzuk jarriko ditugu martxan. Urte osorako, bonuetarako, 150.000 euro bideratu genituen eta 40.000 erabili ditugu jada. Bonuak, fisikoki, udaletxean, dendetan... salgai jartzeko aukera aztertzen ari gara, ze orain arte Internet bidez egin da-eta bakarrik.

Foru aldundiek bertan behera utzi dituzte udalekuak. Oñatiko Udalak hartu du erabakirik zentzu honetan?

Ohiko udaleku irekiak ezingo dira egin, ezta kirol eta arte udalekuak ere. Beste zerbitzu bat eskaini nahiko genuke, behar handia dagoelako, alde batetik, kontziliaziorako, baina, bestetik, haurren beharrei erantzuteko. Hori guztia kontuan izanda, begiraleen izen ematea martxan jarri dugu eta aurtengo zerbitzua definitzen ari gara. Aurreikusten dugu taldeak txikiagoak izan beharko direla. Segurtasuna bermatu ahal badugu, egingo ditugu, osasun adituen jarraibideekin. Bestetik, berreste prozesu bat jarriko dugu martxan: izena eman dutenek eta umea zerbitzura eroan gura ez dutenek edo horretarako beharrik ez dutenek izen ematea bertan behera uzteko aukera izango dute. Dekretuen zain gaude. Orduan ekingo diogu izen ematea bertan behera utzi dutenei dirua bueltatzeko prozesuari.

Udaletxeko balkoian, martitzenean. E.A.L

"Etxeko laurak ondo moldatu gara"

Larrialdi egoeran, egun gehienetan, udaletxetik aritu da lanean Oñatiko alkatea. "Aritu naiz buru-belarri lanean. Segurtasun egoera bermatuta daukazunean, beste zereginei errazago heltzen diezu, eta, zorionez, etxean denak ondo gaude: alabak, senarra… baita gurasoak eta inguruko guztiak ere. Horri esker, lanean jo eta ke ari naiz. Lasai".

Familian, "etxeko laurak" ondo moldatu direla dio alkateak. "Senarra etxetik ari da lanean, eta horrek laguntzen du. Bestalde, 4 eta 6 urteko alabak, bien artean, ondo moldatu dira, elkarrekin jolasean… Kalera atera garenean ere ondo, paseatzen, patinetan…". Etxeko txikienak kalera ateratzeko irrikaz zeuden galdetuta, zera dio: "Kalera atera ahal izan zenean, alabek ez zuten poz edo gogo berezirik kalera ateratzeko. Eta ez da beldurra zutelako kalera irteteko. Etxean gustura aritu dira. Hori bai, dio txikiak kalera atera direnean "zorrotz" bete dituztela arauak.

Iluntzean balkoira atera diren horietakoa den galdetuta, baietz erantzun du: "Krisi honi esker, auzokideen artean oso harreman ona sortu da, inoiz baino gertukoagoa". Bestetik, oro har, uste du oñatiarrak ondo ari direla erantzuten, nahiz eta zera azpimarratu: "Txarrena da herritar batzuk joan direla gaitz honengatik, edo hainbat preso edo gertuko ezin dituela bisitatu hainbatek…".

Turismoa, uda eta Oñati

"Aurten, kanpora ezingo gara horren erraz joan; bertan mugituko gara", dio Elorzak. Eta, horretan, Oñati bezalako barruko herriek "aukerak" dituztela uste du. "Natura eta kultura turismoa indartu daitezkeela uste du, eta kostaldeko herrietan sortzen den "jende pilaketa saihestu" barruko herrietako turismoarekin… Gainera, abuztuan lantoki batzuek lanean jardungo dutenez, herrian jende gehiago gera daitekeela uste du alkateak.

Kulturari dagokionez, ekainerako eta uztailerako hitzordu batzuk lotu dituzue dagoeneko?

Hainbat ekitaldi eten egin dugu, atzeratzeko asmoarekin. Hasieratik egon da Kultura batzordea aztertzen ze egin eta zela berreskuratu kultura jarduera. 13-14 bat ekitaldi lotu ditugu ekainuztailerako. Eskultura izena eman diogu ekimenari. *Kultura eskura* kontzeptutik abiatuta sortutako hitz jokoa da Eskultura. Bertan behera geratu ziren ekitaldiak berriro agendan sartzea da asmoa, eta berriak sortu ere bai. Kultura berpizten hasteko.

Herriko kulturgileen lana etxeetara, herritarrei, helarazteko asmorik baduzue, esaterako, *streaming* bidezko kultur emanaldien bidez?

Santa Anan, gaztelekuan, kultur aretoan... badaude ekitaldi batzuk aurreikusita. Baita kalean ere. Aztertzen ari gara gaztelekuan kontzertu bat *streaming* bidez ematea. Bizarro taldearekin eta herriko beste talde batekin. Ixteke dago.

Zinea aire librean moduko edo ohikoak baino kultura ekimen gehiago egingo dituzue?

Bai. Bertan behera geratu zaigun hainbat ekitaldi udan antolatu gura ditugu, eta, ondorioz, uztailabuztuan izango dira. Aire libreko zine emanaldiena aurrekontu parte hartzaileetan atera zen eta aurrera doa. Udako kultura gida bat ari gara prestatzen. Laster aterako dugu.

Jai nagusiak normal egingo dituzue?

Ohiko jaiak egitea zaila izango da. Moldatu egin beharko dira. Azkeneko urteetan plazan egin den kontzertu berezi masiboa, seguruen, ezingo da egin... Zehaztuta zeuden hainbat jai ekimen nola egin daitezkeen aztertzen gabiltza. Aurrekontuetan jaiei gordetako partida hor dago.

'ALKATEAREKIN BERBETAN' ATALAREN BABESLEA

Babestu zure begiak pantailetatik

%10eko deskontua
VARILUX LENTEETAN
+
MONTURA OPARI

Zure ikusmen osasuna zaintzen dugu

Tel.: 943 79 29 95 ARRASATE

Tel.: 943 76 15 75 BERGARA

multiópticas

www.multiopticas.com

Elikagaien Bankuko boluntarioak Ausolanek emandako menuak banatzen. IBIS RODRIGUEZ

100 familiatik gora daude elikagai beharrean herrian

Elikagaien Bankuaren erabiltzaile kopurua gora doa astetik astera Oñatin; 109 familiak, 282 lagunek, erabiltzen dute gaur egun. Laster, elikagaien bilketa egingo dute herriko supermerkatuetan eta bestelako janari dendetan

Oihana Elortza OÑATI

Elikagaien Bankua 109 familiak erabiltzen dute egun. Kopuru hori azken aste hauetan handitu egin dela diote bertako boluntarioek; 282 lagunetaraino iritsi da aste honetan. Gehiago ere egon daitezkeela uste dute, eta beharra duten denei joateko gonbidapena egin diete. Egun batzuk barru, gainera, janari bilketa egingo dute Oñatin.

Ezohiko funtzionamendua

Oraindik ez dakite elikagaiak eskura hartuko dituzten bilketa horretan, edo kaxa handiak bakarrik jarriko dituzten eta gero batzera pasa. Segurtasun neurriak betetzen dituztela egin gura dute bilketa, eta nola egin ari dira aztertzen orain. "Herriko supermerkatuetan egingo dugu, baina bestelako janari dendetan ere bai; fruta-dendetan eta okindegietan, esaterako. Janaria behar duen jendea dago Oñatin, eta laguntzeko gaude", dio Elikagaien Bankua antolatzen duen Acesma elkarteko Ibis Rodriguez boluntarioak.

Rodriguezek azaldu duenez, Elikagaien Bankuak ez du oraindik lehen bezala funtzionatzen, baina jarraitzen dute martitzenetan eta egubakoitzetan janaria banatzen. "Boluntario gehienak edadetuak dira eta horiek ezin dituzte horrelako lanak egin orain, zaindu egin behar dute eta. Baina besteon artean ari gara moldatzen zerbitzua eskaintzeko. Caritas elkartekoekin, CEAR-ekoekin eta Udaleko Gizarte Zerbitzuetako langileekin ari gara elkarlanean, eta beharra duten guztiengana heldu gurako genuke. Dena dela, norbaiti egokitzen bazaio elikagaien beharrean egotea, etortzeko esan gura diot, lasai etortzeko". Konfinamendua hasi zenetik, 7.000 kilo janari baino gehiago banatu dituzte.

ELIKAGAIEN BILKETA NOLA EGIN ARI DIRA ORAIN AZTERTZEN, SEGURTASUN NEURRIAK BETETZEKO

Eguneko menuak

Ausolan kooperatibak eguneko menuak prestatu ditu Elikagaien Bankuko erabiltzaileen artean banatzeko, eta horiek ematen dihardute aste honetatik Oñatin ere. "Patata kilo mordoa ere jaso genuen, 2.400 kilo, beste bide batetik, eta Ausolanek prestatutako menuak ere iritsi zaizkigu. Oso pozik gaude. Menu horiek egunero ari gara eskaintzen. Ilara luzeak egin dira azken egunetan menu horiek hartzeko. Herriko dendek ere asko laguntzen digute, kilo asko heltzen zaizkigu bertako janari dendetatik, eta oso pozgarria da hori", dio Ibis Rodriguezek. Ausolanen ekimen horrek bi hilabete iraungo du. Ibarran duten biltegian egingo dituzte janarien banaketak aurrerantzean ere.

Oñati tabernako terraza zapatu eguerdian. O.E.

Terrazen eremua bikoiztu ahal dute tabernek alarma egoeran

Mahai kopuru bera jarri ahal izango dute espazio gehiago hartuz, baldin eta ezer oztopatzen ez badute

O.E. OÑATI

Ostalariek kanpoko mahaiak jartzeko duten eremua bikoiztu ahal izango dute. Ez mahai kopuru bikoitza jartzeko, krisia hasi aurretik zuten mahai kopuru bera jartzeko baizik. Alkate dekretuz hartu du erabakia Udalak, eta alarma egoerak irauten duen bitartean mantenduko den neurria izango da, eta posible den guneetan bakarrik.

Terraza duten 30 taberna daude

Tabernariekin egindako bileren ondorioz hartu zuen terrazen espazioa bikoitzeko erabakia Udalak. Mahai gutxi dutenei, berriz, bost mahai jartzeko aukera eman die, tokia edukiz gero. Ordaindu beharreko zergei dagokienez, itxita egon diren denborari dagokiona ez zaie kobratuko. "Ulertzen dugu orain artekoa ere ez dela erabateko irekiera; beraz, zergak ere ez dira ohikoak izango, flexibleak izango gara", azaldu du Xabier Igartuak. Bigarren fasearen barruan jendea zerbitzatzeko aukera ere izango dute tabernariek. Datorren astean, orain baino taberna gehiago egongo dira zabalik herrian.

NIRE USTEZ

GARAZI GARAYO

Lehen emakume boto emaileak

1933an izan genuen emakumeok, aurrenekoz, bozkatzeko eskubidea; erabaki horren atzean etika gailendu zitzaion estrategia politikoari. Oro har, garai hartako gizartea katoliko eta tradizionala zen. Eta Elizak emakumeongan zuen eragina, handiegia. Hala ere, eskubide hori bermatzen ausartak izan ziren, jakinda erabaki horrek errepublikazaleen porrota ekar zezakeela hurrengo hauteskundeetan.

Une historiko hori eta beste batzuk aztertzeko, artxiboak oso baliagarriak dira: jatorrizko eta garaian garaiko dokumentuen bitartez gure historia idazteko. Betiere, gure irizpide kritikoa galdu gabe; dokumentu horien ekoizleen helburu eta asmoak ahaztu gabe. Historia puzzle bat da, dokumentu pieza ezberdinak topatu behar dira errealitate hori osatzeko.

Beraz, animatu zaitez bilatzen Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoaren webgunean (*http://oinati gipuzkoakultura.net*). Ea une historiko horretan zure amamak, amandreak, birramamak, eta abarrek parte hartu zuten!

"Edozein egun da ona lehen pausoa emateko"

SANDRA QUELLE 'HAPPY MONDAYS' PROIEKTUAREN SORTZAILEA

Gustuko lana gustuko enpresan aurkitzen laguntzen duen proiektua da. Singapurren du egoitza, baina mundu osoan ditu bezeroak; online egiten dute lan

Oihana Elortza OÑATI

Zortzi urte eta erdi darama Euskal Herritik kanpo Sandra Quellek (Oñati, 1987). Singapurren bizi da azken urteetan. *Happy Mondays* izeneko proiektua Singapurko onenen artean aukeratu dute hango aldizkari batean.

Ze proiektu da hori?

Norbera profesionalki ona den esparruko lanpostu bat topatzea, bere balioekin eta anbizioekin bat egiten duen enpresa batean. Horixe posible egiten saiatzen den proiektua da.

Lanera gustura joatea, alegia?

Batzuetan, pasatzen da egiten den lana gustatzea, baina ez enpresaren norabidea edo filosofia. Eta gu saiatzen gara biak uztartzen. Norberaren ongizatearen filosofia da gurea.

Sandra Quelle oñatiarra. S.Q.

Nola hasi zinen horretan?

Esperientzia pertsonalagatik. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasketak egin nituen eta Londresera joan nintzen. Lana aurkitu nuen eta ikusten nuen ona nintzela egiten nuen horretan, emaitzak lortzen nituela, baina ez zen nik gura nuena, ez nengoen gustura, nahiz eta lan hura atsegin. Gehiagori ere berdina gertatu ahal zitzaiela pentsatuz hasi nintzen.

Nolako enpresa da?

Bakarrik hasi nintzen, eta egun, hiru gara, hiru emakume; ni Singapurren nago eta besteak, bat Brasilen eta bestea Ingalaterran. Distantziara egiten dugu lan, konektatuta.

Zeintzuk dira zuen bezeroak?

200 pertsonarekin baino gehiagorekin ari gara orain lanean; gehienak Europakoak, Australiakoak, Amerikakoak eta Asiakoak dira. Online egiten dugu lan. Konferentziak ere enpresa askotan ematen ditugu, telematikoki zein bertara joanda.

Lortzen duzue norberak gura duen lanpostua gustuko duen tokian aurkitzea?

Bai; arrakastaren portzentajea oso altua da, %80tik gorakoa.

Sari bat baino gehiago jaso ditu *Happy Mondays* proiektuak.

Bai; badirudi bide onetik goazela. Edozein egun da ona hasteko, lehen pausoa emateko.

Zer irakasgai atera duzu pandemia egoera honetatik?

Nola bizi garen pentsatzeko aukera eman digu egoera honek: dugunarekin gustura gauden edo ez, etxetik lan egin daitekeela ikusi dugu... Bakoitzak beretako onena zer izango den pentsatu behar du, eta hori lortzen saiatu.

Selektibitatea duten ikasleak bueltatuko dira ikasgeletara

DBH-4ko eta batxilergoko lehen eta bigarren kurtsoetako ikasleak eskolara bueltatzeko aukera ikastetxeengan utzi du Jaurlaritzak; hezkuntza zentro bakoitzak hartuko duen erabakia izango da. Oñatin, Zuazolan eta Txantxiku Ikastolan, batxilergo mailako bigarren kurtsoan daudenak bakarrik bueltatuko dira, selektibitatea egingo dute ikasleak, hain zuzen ere. Klase presentzial horiek ekainaren hasieran hasiko dira eskaintzen, baina oraindik ez dute zehaztu banan-banako klaseak izango diren edo talde txikietan emango dituzten. Eskola ordu horiek, baina, selektibitateari buruzko galderak, zalantzak argitzeko edo proba bera prestatzeko bakarrik izango dira. "Segurtasuna bermatzeko" hartu dute erabakia. Gainerako ikasleek online bukatuko dute ikasturtea. Elkar Hezi ikastetxeko zuzendaritzak, ordea, ez du gai horren gaineko erabakirik hartu, lerro hauek idazterako.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

"Ez genuen espero igoera horrela lortzea"

JULEN CARR INGOU ALOÑA TALDEKO JOKALARIA

Senior mailako taldea sortu, mailaz igotzeko helburua jarri eta lortu egin du Ingou Aloña areto futbol taldeak. Maila horretan jokatzeko indartsu daudela diote

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko Ingou Aloña areto futbol taldeak kategoria bat gorago hasiko du datorren denboraldia. Hiru maila daude Gipuzkoan areto futbolean, eta bigarrenean jokatuko dute oñatiarrek hurrengo denboraldian. Julen Carr (Oñati, 2000) taldeko jokalarietako bat da.

Zorionak!

Eskerrik asko.

Nola jaso duzue albistea?

Aloña Mendiko futbol taldea igo zela jakin genuen lehenengo. Pentsatu genuen areto futbolean ere hartuta izango zutela erabakia, eta bai, taldeko presidenteak mezu bidez baieztatu zigun igoera.

Ez da izan, baina, espero zenuten moduko igoera izan.

Bigarren itzulia aurrera zihoala eten zen liga. Lehen postuetan hiru talde indartsu geunden, Ttakun, Anoeta eta Ingou Aloña, eta hiruron arteko lehia irabazteko ametsa genuen eginda, egia esan, baina, hala ere, oso pozik gaude igoerarekin, bai. Bestela, sailkapeneko lehen lau taldeen artean *play-off* bat jokatuko genuen, eta irabazlea igoko zen mailaz.

Badaezpada, entrenamenduekin jarraitu duzue.

Bai, hala da. Ligak jarraituko zuela eta noizbait jokatzera itzuliko ginela uste genuen, eta prestatzen aritu gara, bai. Baina egun ere entrenatzen jarraitzen dugu, e? Astean hirutan bideodeien bidez egiten ditugu entrenamenduak, eta gero, korrika egitera ateratzen gara. Kantxan aritzeko gogoa dugu, baina, guztiok, eta *behar* hori ahalik eta azkarren bete gurako genuke.

Sei urtez ordezkaritza gabe egon ostean, senior mailako taldea sortu zenuten aurtengo denboraldian. Ondo hasi da talde berria.

Bai, oso ondo. Egia esan, denboraldi hasieran, mailaz igotzeko helburua jarri genuen; areto futbolean jokatu eta mailaz igo. Eta lortu dugu. Partidu guztietan gure jokoa egitera atera gara, areto futbolean aritzea helburu bat buruan dugula, eta kategoriaz igotzea lortu dugu.

Areto futbol taldeko Julen Carr jokalaria. J.C.

"TEKNIKA HANDIA DUEN TALDEA DUGU, JOKALARIOK FISIKOKI ONDO GAUDE ETA JOKATU EGITEN DUGU"

Areto futbolerako gogoa bazegoen, beraz, herrian.

Bai, bai. Gazteen mailan oso jokalari onak zeuden, oso talde indartsua zen, eta horiekin eta berriak ziren beste batzuekin egin da senior taldea. Ondo ibili gara.

Arrasateko Mondrate taldea ere horrela sortu zen.

Eta Gipuzkoako lehen mailan daude orain. Ea guk ere ibilbide bera egiten dugun.

Nolako taldea da Ingou Aloña?

Oso talde ona da. Teknika handia duen taldea da eta jokalariak ondo gaude fisikoki. Gainera, jokoan kontzentratzen gara, geure jokoa egiten dugu inongo saltsatan sartu barik, eta emaitza ona eman digu horrek guztiak.

Denboraldi berrian Gipuzkoako bigarren mailan jokatuko duzue. Zer esan nahi du horrek?

Horrek esan nahi du aurkari izango ditugun taldeak oso lehiakorrak izango direla, aurtengoak baino hobeak, eta euren parean egon behar dugula.

Denok jarraituko duzue?

Baietz uste dut. Hori da, behintzat, oraingo asmoa. Posible da norbaiti ezin jarraitua suertatzea edo entrenatzaileak aldaketa batzuk egitea, baina, oraingoz, aurtengo berdinak izango gara hurrengo denboraldian.

Zein izango da zuen helburua?

Kirol emaitzei begira, ez dakit zer esan, baina ziur nago aurtengo gogo berarekin jokatuko dugula eta gure arteko giroari eustea izango dela helburuetako bat. Uste dut giro horrek aurten ere asko lagundu digula gure onena ematen.

Animo handiak jasotzen dituzue Zubikoako kantxan?

Bai. Lagunak eta senideak etortzen dira gu animatzera.

Noiz ospatuko duzue igoera?

Ba, auskalo, baina argi dugu ganoraz ospatuko dugula.

Segurtasuna bermatzeko neurriak prestatzen ari dira udal liburutegian. IBAI ZABALA

Ibilbideak eta sarrera-irteera berriak egongo dira liburutegian

Noiz zabalduko duten oraindik ez dakite, baina, hasiera batean, mailegu zerbitzua bakarrik eskainiko dute

O.E. OÑATI

Jaurlaritzak ez du esan oraindik liburutegiak noiz zabaldu ahal izango diren, baina Oñatiko udal liburutegia ari da prestatzen albiste hori datorrenerako. Izan ere, liburutegi publikoen titulartasuna udalena da eta herri bakoitzeko liburutegiek euren lana egin behar dute zabaltzeko moduan egoteko. Litekeena da, baina, ekainaren hasieran zabaltzea liburutegiak.

Edukiera ere neurtuta dute

Jaurlaritzak hainbat liburutegi publikorekin batera protokolo bat eratu du, idatziz jasotzeko gutxieneko ze neurri bete behar dituen liburutegiak zabaltzeko. Oñatiko liburutegia da lan horretan parte hartu duten liburutegietako bat. "Lehenengo betebeharra segurtasuna bermatzea da, bertako langileena zein erabiltzaileena. Hemen, esaterako, manparak eta gelak jarrita ditugu. Azken bi asteetan ibilbide bat prestatzen ere aritu gara, sartu-irtenak eta ilarako distantziak ondo adierazteko, geziekin eta kartelekin. Esaterako, haur liburutegiko eta helduen liburutegiko sarrerak ezberdinak izango dira, eta irteera guztiak lorategitik egingo dira", azaldu du liburutegiko arduradunak, Arantzazu Ibarrondok. Edukiera ere neurtu dute, eta eserlekuak kendu egin dituzte.

Hasieran, baina, mailegu zerbitzurako bakarrik zabalduko dute liburutegia. Erabiltzaileak aurrez egingo du behar duen produktuaren eskaera eta liburutegiko langileak emango dio eskura; erabiltzaileak ezingo du materiala ukitu. Protokoloak jasotzen dituen hurrengo pausoak dira: mailegu zirkulazio librea egotea, irakurketa, ikasketak eta prentsa eta aldizkariak.

Boleibolarekin amaituko da Eskola Kiroleko ikasturtea

Asteburu honetan, zapatuan, bukatuko da Eskola Kiroleko aurtengo ikasturtea; boleibola izango da egingo duten kirola.

Koronabirusaren krisiak ikasturtea ezohiko moduan amaitzea ekarri du eta Oñatiko Eskola Kirolak ere horixe egin du: egutegia bertan behera utzi beharrean, egoerara moldatu. Horrela, modu batera edo bestera, etxetik hainbat kirol praktikatzeko aukerak eskaini ditu, martxoaren amaieran duatloia eginez hasi zirenetik. Zapaturako proposamena boleibolean egitea da. Horretarako, puxikak erabilita egin daitezkeen hainbat jolasen adibideak jaso ditu webgunean, baita boleiboleko federazioak gomendatutako marrazki bizidun batzuk eta film bat. Informazio guztia *www.eskolakirola.eus* webgunean jarri dute, astero moduan. Hil amaieran jaia egiteko asmoa dute.

'Ttap' berritua eskuragarri!

+

Gora beherak

'Gorabeherak'
websailarekin!

ttap
Irakurri, ukitu, ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure mugikor edo tabletan

DESKARGATU Play Store-n

DESKARGATU APP Store-n

"Hawaiira otsailean joatea aukeratzeak arriskuak ditu"

MIKEL MUJIKA SALTOKI TRIKIDEAK TALDEKO TRIATLETA

IRONMANA Bergarakoak iazko abuztuan lortu zuen Frantzian Hawaiiko ironmanean esku hartzeko txartela, baina urriko hitzordua otsailera atzeratu dute.

Mikel Mujika, aste barruan Arrasaten, 10:00ak arteko tartea entrenatzeko aprobetxatzen. XABIER URZELAI

Xabier Urzelai ARRASATE

Mikel Mujikak (Bergara, 1989) zirt edo zart egin behar du oraingo astean. Ohi moduan, urrian egin behar zuten munduko ironman proba garrantzitsuena, Hawaiikoa, baina, COVID-19 gaitza dela eta, antolatzaileek adierazi berri dute urriko lasterketa otsailera atzeratuko dutela. Hala, 2021ean bi ironman izango dituzte Konan, otsailean eta urrian. Eta bi data horietako bat aukeratu behar du Saltokiko triatletak.

Erabakia hartuta dagoeneko?

Ez, oraindik ez dugu erabakia hartu, bidaia oporretarako ere aprobetxatu gura dugu. Astebete dugu data bakoitzak dituen alde onak eta txarrak baloratzeko, ikusiko dugu.

Dagoeneko hasita zeunden 2020ko denboraldia prestatzen...

Bai. Abuztuan Vichyko ironman proba egin nuenean ondo sentitzen nintzen, eta denboraldia Donostiako maratoiraino luzatzea erabaki nuen, azaroan. Marka ona egin nuen han, gustura geratu nintzen, eta entrenatzaileak eta biok erabaki genuen 2020ra begira planifikazio berbera egitea, hobekuntza txikiak sartuta. Hala, abenduan hilabetez atseden hartu nuen, eta Gabonak pasa eta gero hasi nintzen ostera ere martxan jartzen.

Poliki-poliki kilometroak sartzen...

Hori da, hiru kirol jardueretan kilometroak osatzen hasi nintzen, lasai, eta erabakita geneukan, gainera, hasieran lasterketa gutxi egitea. 10.000 metroko lasterketa bat egin nuen, duatloi bat... Pozik nengoen, sentsazio onak nituelako, eta entrenamendu saioetako datuek ere horixe baieztatzen zuten. Asmoa zen martxoan taldearekin Espainiako distantzia luzeko txapelketan esku hartzea. Eta urteko lehenengo sasoi puntura iristen nenbilela harrapatu gintuen alarma egoerak.

Zelan moldatu zara?

Beno, igeri eta korrika ezin genituen egin; horrenbestez, arrabolean orduak sartuta eta indar ariketak eginez moldatu naiz. Gainera, inork ez zekien zenbat denboran egon behar genuen etxean, eta gauzak lasaitasunez hartu nituen, itsutu barik.

Lasterketa guztiak poliki-poliki bertan behera utzi dituzte, eta Hawaiikoari ere iritsi zaio txanda.

Azkenetakoak izan dira hori iragartzen. Lasterketa urrian izan behar zenez, esperantza geneukan ea ordurako egoerak hobera egingo ote zuen, baina ez, aurreko astean jaso genuen antolatzaileen partetik posta elektronikoa. Eta bertan esan digute bi aukera ditugula. Berez,

"URTEKO LEHENENGO SASOI PUNTURA IRISTEN HARRAPATU NINDUEN ALARMA EGOERAK"

aurtengo lasterketa otsailera atzeratu dute, eta hor izango dugu lehenengo aukera, edo, bestela, urrian egingo duten lasterketara itxarotea da beste aukera.

Eta? Ze asmo duzu?

Alde batetik, otsailean egingo nuke gustura, datorren urteko urria oso urrun ikusten dut eta, baina otsailekoa aukeratzeak arrisku handiak ditu; izan ere, otsailean ere ezin bada lasterketa egin, eskubide guztiak galduko ditugu, ez da atzerapen gehiago egongo. Pentsa, orain gabiltza urrian egin behar genuen bidaia bertan behera uzten, ez nuke nahi otsailean berriro ere berdin ibili. Dortsala galduko nuke, gainera.

"HAWAIIRA BEGIRA ASMOA ZEN IAZKO PLANIFIKAZIO BERBERA ERREPIKATZEA"

Ez da komeni, ekonomikoki dakarrenagatik eta, bereziki, jakinda ze zaila den bertarako sailkatzea...

Hori da. Nik zortea izan dut nire lehenengo ironmanean lortu dudalako txartela, baina ez da ohikoa. Hara joateko oso ondo prestatzearekin batera, egunean bertan denak irten behar du bikain –Vichyko ironmanean zazpigarrena izan zen sailkapen orokorrean, eta bosgarrena 30-35 adin tartean–.

Otsailekoak, gainera, beste desabantaila batzuk ere baditu, hemen negua dela...

Hori da. Pentsa halako hitzordu baterako zenbat entrenatu behar den, eta hemen eguraldi txarra izaten dugu, argi ordu gutxi... Kiroldegi barruan orduak eta orduak egin beharko genituzke, eta, gainera, hemen tenperatura hotzetara ohitu, eta bat-batean Hawaiiko tenperaturara ohitu behar izatea... Ez da samurra, ez. Bestalde, urrian egiteak badu beste abantaila bat, eta da abuztuko oporraldia entrenatzeko baliatu dezakedala. Gauza asko izan beharko ditugu kontuan erabakia hartzeko.

Bigarren debagoiendarra zara Hawaiirako txartela lortzen duena. 2016an Aritz Kortabarria herrikidea izan zen bertan, nahiz eta lehenago zure taldekide bat ere sailkatu zen Hawaiirako.

Hori da. Gogoan dut Antxintxika taldean sartu berri nengoela Xabi Lekue taldekideak lortu zuela Hawaiirako txartela. Eta ondoren lortu zuen Aritz Kortabarria herrikideak txartela [2016ko edizioan hartu zuen esku]. Kortabarriarekin egin izan dut berba, eta badakit berak sari moduan hartu zuela Hawaiiko esperientzia, hainbat saiakera egin zituen sailkatu ahal izateko, eta lan handia egin zuen ametsa lortzeko. Lorpen galanta iruditu zitzaidan, eta orain, nik lortuta, kontziente naiz niretako ere opari bat izango dela.

Lastima Kortabarriak lasterketan arazoak izan zituela...

Bai; bereziki, maratoian izan zituen arazoak, zauriak izan zituen oinetan eta babak sortu zitzaizkion. Pentsa, halako lasterketa bat berez da gogorra, eta halako arazoekin ibiltzea... Baina, lasterketa nahi moduan egin ez bazuen ere, beti nabarmendu izan dit sekulako esperientzia izan zela.

2017ko Antzuola Sariaren irteera unea; aurtengo lasterketak –uztailak 12– hauteskunde egunarekin egingo zukeen bat. GOIENA

Ziklismo egutegiari berriro ekiteko zalantza handiekin

TXIRRINDULARITZA Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Ziklismo Federazioak amateur mailako egutegia berriro hastea adostu dute. 'DV'-k eman du horren berri astean, eta web digitalek jaso dute; ibarreko antolatzaileek zalantza handiekin hartu dute albistea

Xabier Urzelai ARRASATE

Martxoan, koronabirusaren gaitzak hankaz gora jarri zuen nazioarteko txirrindularitza egutegia, eta, gertuago, baita amateur mailakoa ere. Hala, astean *DV*-k argitaratu du Eusko Jaurlaritza eta Euskadiko Txirrindularitza Federazioa ados jarri direla. Hain zuzen, pandemia egoerak baimentzen badu, ziklismo egutegiari ekain amaieran berriro ekingo diotela. Hala, horrek bete-betean eragingo luke emakumezkoen San Martzialgo Igoeran (ekainak 26), Antzuola Sarian (uztailak 12), Dorletako Ama Sarian (uztailak 19), Leintz Bailarari Itzulian (abuztuak 12) eta Oñati Sarian (irailak 19) ere. Lasterketa horietako antolatzaileekin izan da GOIENA.

LOKATZA ZIKLISMO TALDEA

GORLAKO IGOERA IRAILEAN ANTOLATZEKO AUKERAK AZTERTZEN

Lokatzako presidende Jon Unamunok sorpresaz hartu du albistea. Berez, klubeko hitzordu maitatuena, Gorlako Igoera, bertan behera utzi behar izan zuten martxoan, eta hilabete hauetarako zituzten lasterketak antolatzea ere burutik kenduta zeukaten, San Martzialgo Igoera tartean: "Ez dakit, ba; UCIk uztailera arte lasterketak bertan behera uzteko agindua eman zuen, eta gure lasterketetan UCIko arautegia betetzen dugu. Berez, oraindik alarma egoeran gaude eta zail egiten zait pentsatzea horren goiz lasterketak itzuliko direnik. Gipuzkoako Federazioarekin hartu-emanetan geunden egoerak hobera egiten bazuen irailaren 26an Gorlako Igoera antolatzeko, baina... Joango gara ikusten".

ANTZUOLAKO PEÑA AYASTUI

LASTERKETAK HAUTESKUNDE EGUNAREKIN EGINGO LUKE BAT

Lehendakari Txapelketa barruan antolatzen du Peña Ayastuik Antzuola Saria, eta bestela ere nahikoa zailtasun izango ez, eta aurtengo edizioak hauteskundeekin –uztailak 12– egingo luke bat: "Lasterketa egitea erabakitzen badugu ere horrek ez ditu gauzak erraztuko. Eta, gainera, ez dakigu uztailean ze segurtasun protokolo izango ditugun", dio Joseba Lezetak. Antzuolarrak, baina, garbi du lehenengo egin beharko dutena Udalarekin berba egitea dela: "Antzuola Saria herriko jaien bueltan egiten den lasterketa da, eta jaiak bertan behera uzteko erabakia hartzen bada ez dakit zenbaterainoko zentzua daukan lasterketa bera egiteak. Gauza asko izan behar dira hemen kontutan, eta beste arazo bat egon daiteke lasterketako babesleekin, egoera zailean gaude denok".

DORLETAKO AMA, GATZAGAN

ZUHURTZIA HANDIZ HARTU DUTE ALBISTEA, EZ DA-ETA OFIZIALA

Gatzagako lasterketako antolatzaileek berria irakurtzearekin batera Euskadiko Federazioko ordezkariekin hartu-emanetan jartzeko ahalegina egin dute Dorletako Amako lagunek, baina ez dute erantzunik jaso –GOIENAk ere ez–. Hala, zuhurtziaz hartu dute aste barruko albistea. "Guk zalantza handiak izango genituzke eta talde barruan ez dugu gaia sakonean landu", dio Joxerra Agirreurretak. "Egia da ziklistak lasterketa gosez daudela, eta lasterketak errekuperatzen baditugu gurea lehenengotakoa izango litzatekeela, eta tropel handia etorriko litzatekeela. Baina ze baldintzatan? Publiko barik egin beharko genuke lasterketa? Antolatzaileok ibili behar dugu herrian jendearen artean distantzia zaintzen? Nik zalantza handiak ditut eta ez dakigu uztailean zein egoeratan egongo den pandemia, baina ez dut batere garbi ikusten".

Horrekin batera, halako lasterketa bat antolatzeak ekonomikoki esfortzua eskatzen dio Leintz Gatzaga moduko herri bati: "Lasterketa egiteko dirua behar da, eta diru hori gastatzekotan izan dadila berme guztiarekin. Kluba ekonomikoki egoera onean dago, eta oso ziklismozaleak gara, baina ez dugu lasterketa edozein modutan antolatu gura. Gainera, garbi dugu orain arte izan ditugun babesleen egoera zein den, eta ez gara dirua eskatzera joango. Lasterketa handiak antolatzeko babesleen partetik taldeek presio handiak dituzte, baina guk ez; horrenbestez...".

UDA, ZIKLISMO SAILA

BAIMENA EMATEN BADUTE, LASTERKETA ANTOLATZEKO ASMOA ARETXABALETAN

Aretxabaletako Andramaixen barruan antolatzen du UDAko txirrindularitza sailak Debagoienari Itzulia lasterketa. Abuztuaren 12rako antolatuko lukete lasterketa, eta orain momentuan ez dago aurreratzerik abuztuan ze egoeratan egongo den dena. "Egia da duela hiru aste pentsaezina zela lasterketa antolatzeaz berba egiten ibiltzea, baina astez aste egoera asko aldatzen dabil eta, poliki bada ere, bagoaz normaltasuna errekuperatzen. Horrenbestez, ezin dugu iragarri abuztuan zelan egongo garen", dio Gorka Etxabek.

Beste herri batzuetan moduan, Aretxabaletako lasterketa ere Andramaixetako jaietara oso lotuta dago: "Eta jaiek eurek ere baldintzatuko dute, seguruenik, egin dezakegun hori. Gure artean berba egin behar dugu oraindik, baina, egoerak baimentzen badu, behintzat, lasterketa antolatzearen aldekoak gara".

ALOÑA MENDI ZIKLISMO TALDEA

ANTOLATZEKO GERTU DAUDE, BAINA ZAILTASUN HANDIAK IKUSTEN DITUZTE

Oñatiarrek ere izan dute albistearen berri, eta eurek ere harriduraz hartu dute, orain momentuan errealitate horretatik urrun gaudela uste dute eta: "Oñati saria irailean antolatzen dugu, eta ordurako gauzak dezente aldatu daitezke, baina orain momentuan zailtasun handiak ikusten ditugu lasterketa antolatu ahal izateko", dio Ruper Arkauzek. Txirrindularitza gogoz daude oñatiarrak; izan ere, ekainean ere bertan behera utzi behar izan dituzte kadete mailakoen lasterketa eta gazte mailakoen Arantzazuko Igoera: "Baina ostera ere lasterketak antolatzen hasteko egoerak aldatu egin behar du, eta gauza asko ez daude gure eskuetan".

Eskualdeko kontalariak, OstegunERO borobiltzeko

Virginia Imazen, Vanessa Gonzalezen, Maider Alcelayren, Lander Juaristiren, Dorleta Kortazarren eta Carolina Rementeriaren helduentzako eta haurrentzako kontaketak izango dira maiatzaren 28an (16:00-00:00), 'Arrasate.eus/biblioteka' atarian ikusgai

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Zuzenean edo zeharka irakurketarekin lotuta dauden ekitaldiak eskaini ditu Arrasateko Bibliotekak Udaberriko OstegunERO ekimenarekin. Liburuaren Egunean, apirilaren 23an, abiatu zuten, eta, harrezkero, *Arrasate.eus/biblioteka* atarian eguenero izan da haurrentzako eta helduentzako eskaintza bana.

Maiatzaren 28an borobilduko dute zikloa, eskualdeko kontalariekin; 16:00etatik 00:00etara izango dira saioak ikusgai.

Virginia Imaz.

Dorleta Kortazar.

Carolina Rementeria.

Vanessa Gonzalez.

Lander Juaristi.

Maider Alcelay.

"Eskertzeko egitaraua"

Ez dira zuzeneko saioak, baina ikusteko epealdia dute –zortzi ordu–, eta Ane Berasategi Arrasateko Bibliotekako langileak dio hala jarri dutela artisten lana ahalik eta gehien errespetatzeko. "Batzuek hurrengo egunean ikusi nahi izan dute, eta ezin; horrela da zuzeneko formatuan ere... Oso pozik gaude; batetik, astero, batez beste, 400 ikustaldditik gora izan ditugulako; eta bestetik, ikusleek bidalitako mezuak bultzada eta pizgarri izan direlako ildo beretik lanean jarraitzeko. Bihotzez eskertu nahi dugu artisten ahalegina".

Sortzaileek asko estimatu dute euren ofizioei irteera bat ematea. Hala dio Virginia Imazek: "Garra piztuta jarraitzeko modu bat da ekimena. Sarean sormen-lan asko daude, baina profesionalon eskua igartzen dela pentsatu nahi dut. Oso eskertuta nago bibliotekakoekin; eta eskualdean, gainera, fan-kluba daukat!".

Hasieratik ari da Maider Alcelay *online*-ekimena jarraitzen: "Ederra da! Alde batetik, bibliotekan ipuinen presentziarekin jarraitu dutelako, eta guztiontzako garrantzitsua da hori. Asko eskertzen dut nik ere parte hartzeko aukera ematea".

Arrasateko bibliotekan egin zuten azken ipuin kontaketa Dorleta Kortazarrena izan zen, eta deseatzen dago berriz itzultzeko: "Oso gogoan dut saio hori, giro oso berezia sortu zen. Claudia Rementeriarekin izango naiz: keinu hizkuntzan kontatuko du berak eta ahoz, euskaraz, nik".

Ekimen ederra dela dio Vanessa Gonzalezek ere: "Beti iruditu zait kultura mugaezina eta anitza dela, eta oraingoan ere hala erakutsi da". Eta honela dio Lander Juaristik: "Garrantzitsua da halako eragileek kultura zabaltzeko saiakera egitea".

Bertakoak eta originalak

Amamak kontatzen zizkion gerra garaiko kontuei buruzko moldaketa da *Iturriotz,* eta hori kontatuko du Alcelayk, helduentzat: "Arrasaten gertatutako istorioa da. Lehenengo aldiz kontatuko diot publikoari; oso pozik nago, istorio pertsonala delako eta, aldi berean, bertakoa denez, jendeak ezagutuko duelako".

"Helduentzako eta gazteleraz kontatutako hiru ipuin motz izango dira nireak", dio Imazek, zera gaineratuta: "Pikaro samarrak, barre egitekoak, dira bi, eta hirugarrenak etorkizunari itxaropenarekin begiratzen lagunduko digu".

4 urtetik gorakoentzako prestatu dute Kortazarrek eta Rementeriak txori txiki baten ipuina. "Berezia izango da, bi pertsonak kontatuko dugulako; Rementeriak, itzultzeaz gain, interpretatu ere egiten du".

Nerabeei zuzendutako *Lolaren magia* ipuina kontatuko duela dio Gonzalezek: "Lola neska gazte eta abila da protagonista; bere nahiak, desioak eta ametsak albo batera utzi, eta itsu bihurtuko da, bere ugaritasuna ilunpean ezkutatuz horrela".

6 urtetik gorakoentzako kontatuko ditu Juaristik. "Nire klasiko bat, *Txomin ipurdi,* eta beste ipuin ganberro bat dira".

Kultura arloko diru sarrerak, espero baino %40,8 gutxiago

'Irekia.euskadi.eus'-en dago kulturako agenteei egin dieten galdeketaren emaitzen txostena jasota

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Euskal Behatokiaren azken azterlanaren arabera, kultura sektoreko agenteek urteko dirusarrerak baino % 40,8 txikiagoak izango direla aurreikusi dute. Ikerketan gaineratu dutenez, jarduera % 82,6ko proportzioan murriztu da. Enpleguan izandako eragin negatiboa %43,2koa izan da –kaleratzeak, ERTEak eta beste neurri batzuk eragin negatibo moduan hartuta–, baina, txostenaren arabera, eragina izan den kasu guztien % 10ean baino ez da egon kaleratzerik. Era berean, kultur eragileen %67,5ek pandemiak jardueran eragin sakona edo erabatekoa izango duela aurreikusten dute.

Emaitzak Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Krisiaren Behatoki txostenaren lehen jasoalditik atera dira; apirilaren 9tik 26ra bitartean egin zen, eta arloko 243 agentek parte hartu zuten.

Aurrez, "joera positiboa"

Pandemiaren aurreko testuinguruari dagokionez, "joera positiboa" identifikatzen da azterlanean, "batez ere, kontzertuetan eta arte eszenikoetan". Txosten osoa *Irekia.euskadi.eus* atarian dago irakurgai.

ETXETIK PLAZARA
GOIENA TELEBISTA
MAIATZAREN 22AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN
KOMUNITATEAREKIN EKOIZTUTAKO SAIOA
goiena
Zu hemen zaude.



Gasteizko Piztu Punk taldeko kideak. PIZTU PUNK

Piztu Punk taldearen esentzia, diskoan jasota

Txerra Bolinaga arrasatearra kide den Gasteizko taldeak bederatzi kantu "oldarkor" batu ditu '001' izeneko bilduman; sare sozialetan jarri dituzte abesti guztiak entzungai eta salgai, eta euren asmoa da ekainean CD formatuan argitaratzea

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Zaleek sarritan eskatutako bilduma atera berri du 2008an sortu zuten Piztu Punk taldeak. "Urtebete pasako lana izan da, luzea; eta, egia esan, ondo etorri zaigu itxialdia lanari azken ukituak eman eta, azkenean, gure estreinako lana kaleratzeko. Nik ere banuen arantzatxoa kentzeko gogoa; eta orain, oso pozik gaude emaitzarekin", azaldu du Txerra Bolinaga bateria-joleak.

Piztu Gasteiz jaialdian sortua

Gasteizko musikari beterano asko batu izan dira Piztu Punk taldean –RIP, Obligaciones, Sumision City Blues, Karrocerias Betoño, Señor No...–. Gaur egun, honako hauek osatzen dute laukotea: Topo, baxuan; Iñaki Wei, gitarrarekin; Leire, abesten; eta Bolinaga, baterian.

Urteetan zehar sartu-irten asko egon direla dio arrasatearrak: "Piztu Gasteiz jaialdiaren aitzakian batu ginen; harrera ona izan genuen, eta gu ere eroso sentitzen ginenez jarraitzea erabaki genuen. Bertsioak jotzen genituen, baina 2018an gureak sortzen hasi ginen; Pela abeslariak taldea utzi zuen gero, eta lekukoa hartu zuen Leirerekin grabatu genituen iaz".

Amorruz kritikatuz

Oinarrian, punk-rock estiloan kokatzen du bilduma, baina abesti bakoitzak bere izaera duela nabarmenduta: "Nahasketa bat da; rockeroagoak eta hardcoretik gertuago daudenak ere badaude, eta RIPen *Mundo muerto* bertsioa nahiko dantzagarria da. Lokalean grabatu dugu, eta Alacanteko gure lagun Oscar Streamlinek –OS Records– sekulako lan ona egin du nahasketan eta masterizazioan. Azala Javi Leonek egin digu".

Lagunei eskatzen diete hitzak idazteko. "Hainbat egile dira; singlea den *Post-gorrotoa* Zigor Olabarriak egin du, eta indibidualismo progrearen aurkakoa da. Orokorrean, amorruz abestutako abesti kritikoak dira; militarren aurkako bat dago, hilketa baten kontakizun beltz bat ere bai...".

Sarean orain, CDan gero

Youtuben, Spotifyn, Apple Music-en eta Instagramen –*@piztupunk*– dituzte kantuak salgai eta entzungai; eta azken ukituak ematen ari dira CD formatuari.

'001'
- **Estiloa** Punk-rocka.
- **Autoekoiztua**.
- **Non grabatu** Entsegu lokalean, eta Oscar Streamlinek –OS Records– masterizatu.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko maiatzeko sariak!

Telebista LG 32''
Parte hartzeko sariaren izena: Telebista

EROSKI

Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ

Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea
www.harremandenda.org

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: *kluba@goiena.eus* **Whatsapp:** KLUBA "izenen izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako otordua

ITURRIETA JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntuo* aldizkariko Otordu on atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: Maiatzaren 19a da

943 25 05 05 *kluba@goiena.eus*

KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Puntuo aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

ESKAINTZA BEREZIA!!
Maiatzetik abendurako bazkidetza: **30€**
Deitu: **943 25 05 05** • *kluba@goiena.eus*

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Baserria Oñatin. Baserri bila gabiltza Oñatin. Telefonoa: 653 01 71 65

104.ERRENTAN HARTU

Bergara. Hiru pertsonako familia bat gara eta errentan hartzeko etxebizitza bila ari gara. Badaukagu lana. 645 72 92 87

Debagoiena. Errentan hartzeko etxebizitza bila dabilen bikote bat gara. 688 63 46 06

Eskoriatza edo Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Telefonoa: 651 64 55 05

105. ETXEAK OSATU

Bergara. Errentan hartzeko logela bila nabil. Telefonoa: 631 15 19 94

Debagoiena. 48 urteko mutila naiz eta logela bat behar dut errentan. Txakur txiki bat daukat, ondo hezitakoa. Deitu 666 16 95 11 telefono zenbakira.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. 75 urteko emakumeari laguntza eman eta etxeko lanak burutzeko emakumezko euskalduna behar da goizetan 4 orduz. Titulu ofiziala beharrezkoa da. Kontratuarekin. Interesatuok idatzi mezua edo deitu: 680 61 96 99 edo ulexminor@hotmail.com

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Pertsona nagusien zaintza lanetan aritzeko prest dagoen emakume arduratsua naiz. Titulu soziosanitarioa eta legezko agiriak dauzkat eta baita esperientzia handia ere. 688 73 10 25

Arrasate. Hiru kideko familia bat gara eta erdigunean etxebizitza hartuko genuke errentan, prezio onean. 680 87 38 66

Bergara edo Arrasate. Bergarako neska gertu, goizez, arratsaldez edota gauez, umeak eta nagusiak zaintzeko. Baita bulego eta abarrak garbitzeko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Neska euskalduna lan bila: umeak zaindu, etxeko lanak egin, garbiketak eta abar. Esperientzia daukat arlo horietan. Irakasle titulua daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 03 51 50 (Garazi)

Bergara. Soziosanitario titulua daukan emakumea arratsaldetan lan egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 74 78 43 (Mari Carmen)

Debagoiena. Asteburuetan eta astean zehar, egunez, nagusiak edo umeak zaintzen zein garbiketan lan egingo nuke. Legezko agiriak eta lanerako titulazioa dauzkat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 02 45 80

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu orduka, egun eta gau solteetan edota asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta beharrezko agiri guztiekin. 685 22 54 01

Debagoiena. Esperientzia eta gomendio agiriak dauzkan Nikaraguako neska nagusiak zaintzeko edota garbiketan lan egiteko gertu. 600 86 41 39

Debagoiena. Garbiketan, etxean bizi izaten edo egunean zehar nagusiak zaindu eta laguntzen, edota umeen zaintzan jarduteko gertu nago. Erabateko prestutasunarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 03 51 50 (Garazi)

Bergara. Neska euskalduna lan bila: umeak zaindu, etxeko lanak egin, garbiketak eta abar. Esperientzia daukat arlo horietan. Irakasle titulua daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 03 51 50 (Garazi)

Bergara. Soziosanitario titulua daukan emakumea arratsaldetan lan egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 74 78 43 (Mari Carmen)

Debagoiena. Asteburuetan eta astean zehar, egunez, nagusiak edo umeak zaintzen zein garbiketan lan egingo nuke. Legezko agiriak eta lanerako titulazioa dauzkat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 02 45 80

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu orduka, egun eta gau solteetan edota asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta beharrezko agiri guztiekin. 685 22 54 01

Debagoiena. Esperientzia eta gomendio agiriak dauzkan Nikaraguako neska nagusiak zaintzeko edota garbiketan lan egiteko gertu. 600 86 41 39

Debagoiena. Garbiketan, etxean bizi izaten edo egunean zehar nagusiak zaindu eta laguntzen, edota umeen zaintzan jarduteko gertu nago. Erabateko prestutasunarekin. 603 23 15 01

Debagoiena. Gizonezkoa gertu nagusiak zaintzeko, eraikuntzan laguntzeko edo tabernan lan egiteko. Orduka eta etxean bertan bizi izaten ere bai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 642 90 41 05

Debagoiena. Mutila gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketak egitean, zerbitzari moduan eta abar. 638 85 43 36

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko gertu nago. Egunean zehar, etxean bertan bizi izaten edo asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 612 48 63 36

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketa lanetan aritzeko gertu nago orduka edo egunean zehar. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 612 23 89 09

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketa lanetan aritzeko gertu nago orduka edo egunean zehar. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 25 27 26

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Autoa daukat. 666 93 32 56 (Natividad)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, baserriko lanetan edota garbiketan lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 643 47 42 33

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, baserriko lanetan zein garbiketan lan egingo nuke. Telefonoa: 643 47 39 37

Debagoiena. Neska gertu garbiketa eta lisatze lanak egiteko edota umeak eta nagusiak zaintzeko. 611 24 26 64

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko orduka, egunean zehar zein etxean bertan bizi izaten. 642 41 72 62

Debagoiena. Neska gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketak egitean, zerbitzari moduan eta abar. 654 11 15 14

Debagoiena. Nikaraguako mutila gertu nagusiak zaintzeko, nekazaritzarako zein bestelako lanetarako. 631 79 31 92

Debagoiena. Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan ere, nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egiteko gertu nago. Erabateko prestutasuna. 632 04 13 49

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukan mutila gertu nagusiak zaintzeko edo denetariko garbiketak egiteko. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 643 73 62 36

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukan neska gertu nagusiak zaintzeko edo denetariko garbiketak egiteko. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 643 73 62 83

Nagusiak zaindu. Pertsona nagusiak zaintzea nahi dut. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen. 642 19 71 33 (Mariela)

Pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Pertsona nagusiak zainduko nituzke, arratsaldetan, aste bukaeratan edo jai egunetan. Badut autoa. 631 98 15 50

Zaintza eskaintza. Egungo egoera dela eta, eskolak itxita daude eta lanean dauden gurasoen seme alabei zaintza eta eskolako zereginetan laguntzeko eskaintzen naiz. Neska gazte euskalduna naiz, goxoa eta bokazioarekin; haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan esperientzia demostragarria daukat. Interesik izanez gero, deitu lasai. Eskerrik asko. 684 14 95 54

8. DENETARIK

802. EROSI

Bizikleta. Umeendako moduko 20 hazbeteko mendiko bizikleta erosiko nuke. 635 20 18 56

804. HARTU

Landareak. Piper eta tomate landareak hartuko nituzke. Emateko moduan badauzkazu, deitu telefono zenbaki honetara mesedez: 656 75 76 98

806. GALDU

Betaurrekoak Arrasaten. Graduatutako eguzkitako betaurreko marroiak galdu ditut, Zarugalde eta Munar aldameneko parke inguruan. Aurkituz gero, eskertuko nuke zenbaki honetara deitzea: 620 11 82 43

808. BESTELAKOAK

Lursaila errentan hartu. Gutxienez hektarea erdiko lursaila errentan hartuko nuke urtebetez, animaliak izateko, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza edo Aramaio inguruan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690 66 19 80

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
  Garajea Saldu/Errentan.
  Lokala Saldu/Errentan.
  Irakaskuntza eman.
  Motorra Saldu/Alokatu.
  Animaliak/Saldu.
  Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak.
  Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

GOIENA

DOCTOR DESEO TALDEAREN KONTZERTUA

'Kontzertua' *Zapatua, 22:00*

GOIENA

XABI BANDINIREN KONTZERTUA

'Kooltur Ostegunak' *Egubakoitza, 22:00*

EGUBAKOITZA, 22	ZAPATUA, 23	DOMEKA, 24
08:00 Txantxariak	**09:00** Kantari Arrasate 5	**08:00** Etxetik plazara
08:30 Kantari Arrasate 3	**09:30** Kantari Arrasate 4	**08:30** Hala Bazan
09:00 Kantari Oñati 8	**10:00** Kantari Arrasate 6	**09:00** Txantxariak
09:30 Kantari Arrasate 1	**10:30** Etxetik plazara	**09:30** Kantari Arrasate 4
10:00 Hemen Debagoiena	**11:00** Osasun ariketak	**10:00** Kantari Arrasate 5
11:00 Osasun ariketak	**11:30** Ane Lore sukaldean: Quiche	**10:30** Kantari Arrasate 6
11:30 Hala Bazan	**12:00** Hemen Debagoiena	**11:00** Osasun ariketak
12:00 Hemen Debagoiena	**13:00** Elkarrizkettap: Kulturgileak	**11:30** Hala Bazan
13:00 Kantari Arrasate 1	**13:45** Udaltop: Etxealdiko ekimenak	**12:00** Udaltop: Jon Sarasua
13:30 Kantari Arrasate 3	**14:00** Hemen Debagoiena	**13:00** Etxetik plazara
14:00 Hemen Debagoiena	**15:00** Udaltop: Jon Sarasua	**13:30** Hala Bazan
15:00 Albisteak	**16:00** Kooltur: Xabi Bandini	**14:00** Elkarrizkettap: Kulturgileak
15:30 Kantari Arrasate 3	**17:00** Etxetik plazara	**14:45** Udaltop: Etxealdiko ekimenak
16:00 Albisteak	**17:30** Adinberri 4	**15:00** Hemen Debagoiena
16:30 Ane Lore sukaldean: Quiche	**18:00** Udaltop: Jon Sarasua	**16:00** Kantari Arrasate 4
17:00 Albisteak	**19:00** Elkarrizkettap: Kulturgileak	**16:30** Kantari Arrasate 5
17:30 Adinberri 3	**19:30** Udaltop: Etxealdiko ekimenak	**17:00** Kantari Arrasate 5
18:00 Hemen Debagoiena	**20:00** Hemen Debagoiena	**17:30** Adinberri 5
19:00 Elkarrizkettap: Kulturgileak	**21:00** Astearen errepasoa	**18:00** Udaltop: Jon Sarasua
19:45 Udaltop: Etxealdiko ekimenak	**21:30** Hala Bazan	**19:00** Hemen Debagoiena
20:00 Hemen Debagoiena	**22:00** Kontzertua: Doctor Deseo	**20:00** Astearen errepasoa
21:00 Hala Bazan	**23:00** Elkarrizkettap: **Kulturgileak**	**20:30** Etxetik plazara
21:30 Etxetik plazara	**23:45** Etxetik plazara	**21:00** Kooltur: Xabi Bandini
22:00 Hemen Debagoiena		**22:00** Kontzertua: Anne Etchegoyen
23:00 Kooltur: Xabi Bandini		**23:00** Udaltop: Jon Sarasua

DOMEKA, 24

HERRITARREN KONTAKIZUNAK

'Etxetik plazara'

08:00

EGUNERO

ORDUERO ALBISTE NAGUSIAK

'Albistegia'

15:00/16:00/17:00

GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: ***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUNERO

GOIENA

ELKARRIZKETA ETA ERREPORTAJEAK

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

EGUNERO

ADINDUENDAKO KIROL ARIKETAK

'Adinberri'

17:30

ESKER ONA

Javier Agirreolea Uriarte

2020ko maiatzaren 5ean hil zen, 83 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, eta gurekin egon zareten guztioi.
Bereziki, Bergarako eguneko zentroko langileei eta erabiltzaileei.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2020ko maiatzaren 22an.

ESKER ONA

Antoni Arando Orbegozo

Pako Labakaren alarguna

2020ko maiatzaren 14an hil zen, Zumaian.

Pertsonalki ezinezkoa zaigunez,
familiak lerro hauen bitartez eskertu nahi dizkizue
jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak.

Bergaran (Osintxu), 2020ko maiatzaren 22an.

ESKER ONA

Maritxu Guridi Egaña

2020ko maiatzaren 16an hil zen, 93 urte zituela.

Maritxuren familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.
Lerro hauen bidez, banaka egin ezin izanagatik,
sendiari babesa azaldu diguzuen denak eskertu nahi ditugu.

Oñatin, 2020ko maiatzaren 22an.

ESKER ONA

Isabel Uribesalgo Akizu

Miguel Etxanizen emaztea

2020ko maiatzaren 15ean hil zen, 75 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2020ko maiatzaren 22an.

ESKER ONA

Teresa Alvarez Sanchez

Eugenio Diezen alarguna

2020ko maiatzaren 15ean hil zen, 82 urte zituela.

Seme-alabak: Mari Jose eta Iñaki Acebo, Jose Javier eta Josefina Centeno,
Tere, Isabel eta Jorge Ortega, Susana, Sonia eta Jose Callejo.
Bilobak: Gorka, Unai, Ivan, Eloy, Lorena, Markel, Erik eta Lujan.
Anai-arrebak, ilobak eta gainerako senideak.

—

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak
bihotzez eskertu nahi dizkizue.
Hileta eguna eta ordua gaur egungo larrialdi
egoera gainditzen dugunean zehaztuko dira.

Bergaran, 2020ko maiatzaren 22an.

ESKER ONA

Luisa Leno Rodriguez

Lucas Diazen alarguna

2020ko maiatzaren 20an hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Ez agurrik, ez adiorik
gero arte bakarrik.

Oñatin, 2020ko maiatzaren 22an.

OROIGARRIA

Isabel Uribesalgo Akizu

2020ko maiatzaren 15ean hil zen.

Une latz hauetan jaso ezazue gure besarkadarik beroena.

Zure lagun Mari Luz, Pakita, Maribel, Maixabel, Arrate eta Pili.
Bergaran, 2020ko maiatzaren 22an.

MEZA

Joaquin Rodriguez Pombar

2020ko apirilaren 7an hil zen, 84 urte zituela.

Emaztea: Elisa Garmendia. Seme-alabak: Karmele eta Ana Sobron,
Andoni eta Yolanda Mtz. de Aramaiona. Bilobak: Ibon eta Olaia.
Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak eta gainontzeko senide guztiak.

—

Familiak eskertzen ditu egun hauetan jasotako doluminak.
Gaur egungo egoera dela eta, azken agurra familia artean izan da.
Bere oroimenez, maiatzaren 27an meza bat egingo da,
Bergarako Santa Marina elizan, 18:00etan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2020ko maiatzaren 22an.

1. URTEURRENA

Arantza Egaña Aguirre

2019ko maiatzaren 21ean hil zen, 59 urte zituela.

Umila zinen guztien gainetik,
borondatean ere ez zeneukan faltarik,
nahiz eta urrun joan mundu honetatik,
ez duzu aldegingo gure bihotzetik.
Etxekoak.

—

Urteurreneko meza zapatuan, maiatzak 23, izango da,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2020ko maiatzaren 22an.

HILETA

Mertxe Garro Gallastegi

Fermin Urkiaren alarguna

2020ko maiatzaren 11n hil zen.

Haren aldeko hileta elizkizuna zapatuan, maiatzak 23, izango da,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

—

Beti izango zara gure bihotzetan.

Zure anai-arrebak.
Arrasaten, 2020ko maiatzaren 22an.

HILETA

Angel Urrutia Galdos

Benita Aranaren alarguna

2020ko maiatzaren 19an hil zen, 97 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna astelehenean,
maiatzak 25, izango da,19:00etan,
Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2020ko maiatzaren 22an.

BABESLEA

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Momentu zail hauetan,
lankideok, Jonek, Ibanek, Mariok eta Maribik,
sentsibilitate eta maitasunarekin lan egingo dugu

Zure senideak ahalik eta ondoen agurtuko ditugu
Beti izan dugun lan egiteko eran.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

TXUTXU-MUTXUAK

1



2

3



4

5

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

Posta elektronikoa
Mezua bidali *berriak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak
Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. 50 urte ezkonduta
Paulina Martinek eta Eduardo Cambronelek urrezko ezteiak ospatu dituzte. "Zorionak, bikote! Besarkada bat, familia osoaren partetik. Laster ospatuko dugu".

2. Bihar, urrezko ezteiak
Bittor Bergaretxe eta Ines Leibar arrasatearrak 1970ean ezkondu ziren. "Zorionak, familia osoaren partetik! Aurrerago ospatuko dugu denok elkarrekin".

3. Urrezko ezteiak
Jose Luis Agirrezabal eta Mari Sol Alberdi bergararrak zorioneko daude. "Zuek jarraitutako eredu apal eta tinkoa estimatzen dugu. Laster ospatuko dugu elkarrekin!".

4. Ipuin kontaketa
Oñatiko Haur Liburutegiaren ekimenez, herriko haurrei ipuinak kontatzeko gonbidapena egin diete. Hainbatek parte hartu dute. Tartean, Lea txikiak.

5. San Isidro jaiak ospatzen
Musakolako auzotarrek balkoietan ospatu zituzten sanisidroak. Juan Luis Merinok eta Mari Carmen Pavonek astoaren belarriak ipini zituzten eta giro onean ibili ziren.

ZORION AGURRAK

ARRASATE
Haitz Souto Lasa
Maiatzaren 28an, 5 urte. Zorionak, *Iosoki*! Oso-oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Milaka muxu etxeko guztion partetik, pottokitxo!

OÑATI
June Urtaza Ronda
Maiatzaren 27an, 9 urte. Zorionak, printzesa, etxeko guztien partetik. Muxu handi bat eta oso ondo pasatu eguna.

BERGARA
Aritz Leturia Zurutuza
Maiatzaren 26an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eguna. Patxo erraldoi bat familiako eta laguntxo guztien partetik.

ARETXABALETA
Naia Gonzalez Seijo
Maiatzaren 26an, 14 urte. Zorionak, Naia. Oso-oso ondo pasatu eguna eta muxu asko, familia osoaren partetik.

BERGARA
Imanol Unamuno Unamuno
Maiatzaren 26an, 5 urte. Aupa, Imanol! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Familiako danen partetik, zorionak!

OÑATI
Jonas Galdos Etxeberria
Maiatzaren 25ean, 5 urte. Zorionak, pottoko! Urte askotarako eta halakotxe potxolua izaten jarraittu! Luka, aittatxo eta amatxo.



BERGARA
Ekain Akizu Bilbao
Maiatzaren 25ean, 7 urte. Zorionak, Ekain! Zazpi urte; ze handi in zaren! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta disfrutatu! Patxo potolo bat, etxekoen partetik!

ANTZUOLA
Hodei Aranzabal Fernandez
Maiatzaren 25ean, 9 urte. Zorionak, potxolo! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu bat, etxeko danon partetik.

ANTZUOLA
Ekain Irizar Fernandez
Maiatzaren 25ean, 10 urte. Zorionak, txirrindulari! Ea egun politxa pasatzen dozun! Muxu bat etxeko danon partetik.

OÑATI
Alazne Bolinaga Barrena
Maiatzaren 24an, 8 urte. Zorionak era urte askotarako, Alazne. Muxu handi bat etxeko danon partetik eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna.

OÑATI
Gari Salazar Guridi
Maiatzaren 24an, 10 urte. Zorionak gure txapeldunari bere 10. urtebetetzean! Asko maite zaitugu, Garitxo! Mila muxu potolo etxeko danen partetik, maittia!

ARRASATE
Galder Arroiabe Garcia
Maiatzaren 24an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu eguna eta hartizu muxu handi bat denon partetik.

ARRASATE
Haizea Alvarez Merino
Maiatzaren 23an, 10 urte. Zorionak, laztana! Oso ondo pasatu zure egunean. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Besarkada handi bat, etxeko danon partetik.

ARAMAIO
Galder Ibarguren Beltran de Guevara
Maiatzaren 23an, 6 urte. Zorionak, maitia! Disfrutatu asko zure egunean, merezi duzu-eta. Segi horrela, txapeldun! Muxu erraldoi bat.

ARETXABALETA
Inge Berridi Errasti
Maiatzaren 23an, 9 urte. Zorionak, Inge! Ederto ospatu eguna eta dantza asko egin. Besarkada eta muxu pila, etxeko danon partetik.

ARRASATE
Hugo Ayala Torres
Maiatzaren 22an, 7 urte. Zorionak, laztana! Ezberdina izango den arren, aurtengoa ere egun berezia izango da! Asko maite zaitugu aitak eta amak. Patxo bat!

ARRASATE
Saioa Ojanguren Ojanguren
Maiatzaren 22an, urtebetetzea. Zorionak, amatxo! Ondo-ondo ospatu zure eguna!

OÑATI
Uxue Beitia Maisterrena
Maiatzaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Uxue! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo potolo bat amatxo, aitatxo eta Eñauten partetik.

OÑATI
Luken Olalde Agiriano
Maiatzaren 21ean, 9 urte. Zorionak, Luken! Oso ondo pasaizu gaurko egune! Muxu pila bat, etxeko guztien partetik.

BERGARA
Markel Callejo Diez
Maiatzaren 21ean, 11 urte. Zorionak, Markel, familia osoaren partetik!

BERGARA
Zohargi Sasiain Jauregi
Maiatzaren 21ean, urtebetetzea. Ilargiraino eta buelta maite zaittut, polittе! Muxu pila bat hemendik, eta ondo ospatu egune!

BERGARA
Haizea Iñarra Muñoz
Maiatzaren 21ean, 26 urte. Zorionak eta urte askotarako, Haize! Oso-oso ondo pasatu zure egunian! Patxo handi-handi bat, zure lagunen partetik!

OÑATI
Liher Errasti Urrate
Maiatzaren 21ean, 11 urte. Zorionak, Liher! Jada hamaika urte! Ondo-ondo pasatuko degu zure eguna, desberdina baina... Muxu handi bat etxeko danon partetik!

ARRASATE
Unax Gartzia Dorronsoro
Maiatzaren 20an, 11 urte. Distantzia gorde beharko dugun arren, laster ospatuko dugu denok elkarrekin. Zorionak, etxeko guztion partetik.



BERGARA / SALOU
Maddi Pose eta Leire Pose
Maiatzak 19 eta 24. Zorionak, bikote. *Felicitats*. Oso ondo pasatu. Laster ospatuko dugu denok elkarrekin! Mila patxo eta besarkada handi bat Ikerren eta osaba-izebaren partetik.

ARRASATE
Beñat Alonso Lopez
Maiatzaren 19an, 17 urte. Zorionak, Beñat! Urtebetetze berezia oraingoa, baina maitasunez betetakoa berriz ere! Etxekoen partetik, muxu potolo bat.

ARRASATE
Dunixe Tena Perez
Maiatzaren 17an, 11 urte. Zorionak, Duni! Muxu handi bat 'Peña Park Deluxe'-ren eta 'Sistrito 33'-ekoen partetik. Ospatuko dugu domekan... sorpresa!

ARRASATE
Martin Elorza Zenigaonaindia
Maiatzaren 17an, 5 urte. Zorionak, Martin! Gure etxeko txikixak dagoeneko bost urte! Muxu handi-handi bat familixa osoaren partetik!!

BERGARA
Aimar Osa Jimenez
Maiatzaren 16an, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako! Primeran pasatu eguna eta gozatu txokolatezko pastelarekin. Besarkada handi bat, guztion partetik.

ARRASATE
Sergio Canales Arribas
Maiatzaren 16an, 41 urte. Zorionak, Sergi! 'Peña Park'-en eta 'Distrito 33'-ekoen partetik. Bereziki Aitor eta Alazne. Zorionak, aitatxo!

BERGARA
Maika Gallastegi
Maiatzaren 14an, 24 urte. Zorionak, Maiki! Mila besarkada Bittoriren eta talde osuaren partetik. Bergaran beti zure zain egongo ga. Ez zaitxe gutaz ahaztu!

BERGARA
Maite Elorza Alberdi
Maiatzaren 14an, 26 urte. Aupa, Maite! Zorionak eta urte askotarako! Laister ospatuko dogu-eta bihar dan moduan! Patxo asko-asko, zure lagunen partetik!

BERGARA
Oxel Uriarte Sebal
Maiatzaren 13an, 2 urte. Zorionak eta ondo ospatu eguna! Patxo pilo bat, etxekuen partetik.



ARRASATE
Ilargi Sanzberro Iria
Maiatzaren 13an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Dagoeneko 9 urte! Aurten berezi xamarra, baina, guzti hau bukatzian, kriston parranda eingou! Patxo potolo pila bat, familia danaren partetik!

ZORIONTZEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *https://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu.
- Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

Zu hemen zaude. goiena

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Txalo, '0 km'

Hamaika ikusteko jaioak gara, baina oraingoan denok harrapatu gaitu ezustean, zientzia fikziozko film baten barruan bageunde bezala. Gure lehentasuna osasuna zaintzea da eta izan da, eta nahiko txukun ari gara pausoak ematen. Konturatzerako, ordea, ekonomia arloa laino beltz baten azpian sartu zaigu eta Osakidetza, gure gizarte politikak, hezkuntza, kultura, gure bizitzan beharrezkoak ditugun oinarrizko zerbitzu hauek lehengo mailan jarrai dezaten arlo honi heldu behar diogu, ekonomia bera, gure lanpostuak, zaintza berezietan sar ez daitezen. Maskara jantzi dugu, baina begietako estalkiak kendu behar ditugu.

Hemendik aurrera ematen ditugun pausoak konfiantzaz eta segurtasunez eman behar ditugu, bestela gureak egin du! Gure osasun langileei merezitako txaloa eman diegu eta orain gure lanpostuak aurrera ateratzeko industria ekimenei egin behar diegu txalo: Lazpiur, Embalan, Servimasa enpresa bergararrak adibide, beharretatik ikasten omen dugu eta pandemia honek zerbait erakutsi badigu *0 km* produktu eta proiektuak bultzatzea da. Bertan egindako makinekin maskarak egitea beti izango da hobe Txinak bidaltzen digunaren menpe egotea baino.

BUKATZEKO

Bi hamarkada hemengo informazioa ematen

Gaur, maiatzak 22, 20 urte bete ditu Goiena telebistak. 1990eko egun hartan egin zuen lehen emanaldia. ATB eta Aretxabaleta telebistaren baturatik sortu zen, eta bailarako herri guztietara zabaltzen joan zen, euskara hutsezko programa eskainiz

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE

Maiatzeko loreak bezala heldu zen Goiena Telebista bailarako herritarren etxeetara. 1990eko maiatzaren 22an loratu zen, tinko. "Debagoien osora eta Aramaiora euskara hutsezko telebista eramango dugu. Zenbait herritan mesede galanta egingo dio euskararen normalizazioari. Pozik egoteko moduan gaude", esan zuen sorrerako Goiena telebistako erredaktoreburu Joxe Aranzabalek.

Goiena telebista ATBren eta Aretxabaleta telebistaren baturatik sortu zen, eta ATBren programazio berberarekin hasi zuen ibilbidea. Eguneko albisteak, *Gatza eta berakatza* sukaldaritza saioa, *Goienasport*, *Hamaika magazin*, *Soinuz blai* eta *Guganda* ziren saioetako batzuk.

Egoitza nagusia, Arrasaten

Goiena telebistaren emisio zentroa Arrasaten zegoen. Egungo Goienaren egoitza berean. Horrez gain, hiru ordezkaritza zituen: Aretxabaletakoa, Oñatikoa eta Bergarakoa. Hiru ordezkaritza, baina bailarako herri guztietako albisteak jasotzeko asmoarekin. Hori posible egiteko, unitate ibiltaria estreinatu zuten telebistan. "Bailarako edozein tokitako gertakariak edo ekitaldiak zuzenean eman ahal izango ditugu unitate ibiltariari esker", azpimarratu zuen orduko arduradun tekniko Jon Aldanondok.

GOITB hasi zeneko kazetarien lantaldea. GOIENA

Emisioen lehen astean, albistegi bereziak grabatu zituzten Aramaion, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan. Kazetari lanak egin zituzten Maider Osak, Amagoia Lasagabasterrek, Lorea Agirianok, Aintzane Gardokik, Rosa Mondragonek eta Monika Belastegik.



Bergarako jaiak. GOIENA

Legeztatuta

1990eko maiatzaren 22an landatutako haziak ibilbide oparoa egin du hogei urtez. Garai berrietara egokitzen eta erronka berriak gainditzen jakin du. Hala, erronka horietako bat izan zen Lurralde Telebista Digital formatuan emititzeko baimena lortzea, 2007an. "Hainbat urtean legeztatu barik emititzen ibili ostean, legeak errekonozitutako lekua eta erakunde publikoen baimena lortu genuen. Kontratu administratibo harekin bermatu genuen seinalea banatu ahal izango genuela 10 urtez", gogora ekarri du Goiena telebistako egungo zuzendari Oihane Agirrek. Hurrengo pausu handia analogikotik digitalerako aldaketa izan zen, 2010ean. "Goiena telebistarendako oso garrantzitsua izan zen kanalen hedapena. Kable bidez emititzearenak aukera eman zigun gure ekoizpenak lurralde osora zabaltzeko. Ostean, Internet bidez mundu osora zabaldu gara", esan du Agirrek.

Zuzenekoa, herriko jaietan

Goiena telebistak esku artean duen hurrengo erronka herrietako jai nagusietako saioei "beste buelta bat" ematea da. Alarma egoerak aginduta, oso ezberdinak izango dira jaiak, eta baita Goiena telebistako saioak ere. "Bergarako Pazkoetatik hasiko gara. Bi orduko zuzenekoa egingo dugu, Bitorianatxoren jaitsiera eta guzti. Herriko sortzaileekin, eragileekin... egongo gara. Guk ere beste modu batera biziko ditugu jaiak. Baina garbi daukaguna da Goiena telebistak herrietako jai nagusietan egon behar duela".

Babestu zure begiak pantailetatik
%10eko deskontua
VARILUX LENTEETAN
+
MONTURA OPARI

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE
Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA
multiópticas
www.multiopticas.com